

aurkibidea

<i>Zenbaki honetan</i>	3
ALDEKOA, I.: XIX-XX. mendeetako euskal poesigintza. Tradizioa eta eraberriketa	5
TOBAR-ARBULU, J.: Inperialismoa eta armagintza	25
KAIERO, A.: Sindikalismoaren egungo arazoak	43

Gaiak	
AZURMENDI, J.: Miranderen kritika Iraultza Frantsesari.....	69
HERNANDEZ ABAITUA, M.: Arestiren literatur hizkuntza	89
HERNANDEZ ABAITUA, M.: Elebitasunaren arazoa euskal narratiban....	95

... Hainbat aburu	
INTXAUSTI, J.: 125.000 euskal hiztun Ameriketara?	99
EHIE: Ikastolaren nondik-norakoa	103

© JAKIN

JAKINek idazlanez
inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria.

JAKIN

aldizkari irekia da eta
ez dator nahitaez
idazleen eritziekin bat.

Zuzendaria

joan mari torrealdei

Idazkaritza eta administrazioa

Ategorrieta hiribidea, 23, 1. esk.
20013 Donostia. Tel. (943) 27 17 13

1989ko prezioak

barruan		kanpoan	
harpideduna	ez-harpideduna	harpideduna	ez-harpideduna
harpidetza ...3.000 pta.	—	3.500 pta. (175 FF)	—
ale arrunta500 pta.	800 pta.	600 pta. (30 FF)	900 pta. (45 FF)

Jabegoa: Anaidia. Arantzazu. Lege-gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: 0211-495X.
Fotokonposaketa: Onena. Lasarte. Inprimaketa: Lizarra. Lizarra.

ZENBAKI HONETAN

Eskuetan duzun hau, bigarren aldiko 52. zenbakia da eta 1989ko hirugarrena.

*Dakikezunez, urteko hirugarren emanaldian ez dugu gai monografi-
korik erabiltzen. Artikulu solteak dira, elkarrekiko loturarik gabeak.
Oraingo honetan ere alor askotara zabaltzen ditugu aldizkariaren
orrialdeak: literatura, sozio-ekonomia, sindikalismoa, euskalgintza,
etab.*

*Zenbaki honetan zortzi lan bildu ditugu, hiru sailetan banatuta. I.
Aldekoak, XIX-XX. mendeetako euskal poesigintzan nabari den tradizio-
aren eta eraberriketaren arteko segida-etenak gogoratzen dizkigu.*

*Hurrengo bi lanak, batez ere mundu zabalera begira egindakoak dira.
J. Tobar-Arbuluk inperialismoaren eta armagintzaren esanahi sozio-eko-
nomikoak arakatzten ditu, irakurlearentzat zuzpergarri izan daitekeen
lan batean.*

*Hirugarren artikulua, Andoni Kaiero-renak alegia, batez ere azken
Abenduaren 14etik hona gure inguruko komunikabideetan bizirik da-
goen sindikatuekiko zenbait galdera astintzen du: Aro berri baten au-
rrean ote da Sindikalismoa?*

Gaiak sailean bi lankideren emaitzak biltzen ditugu: Joxe Azurmendik, Mirandek Frantziako Iraultzaz eta haren ondoko demokraziaz zioena azaltzen digu, gaurko galderarik ere tartean dela. Mikel Hz. Abaituak euskal literaturaren inguruko eta barneko kezka batzuk harrotzen ditu, bi lan laburretan.

Bukatzeko, azken asteetan euskaltzaleon buruetan nahikoa galdera sortu duen hitzarmen baten inguruan dabil ...Hainbat aburu saila: Jaurlaritzaren eta Euskal Herriko Ikastolen Elkartearen arteko hitzarmenaren inguruan, alegia. Zuzenean Elkartearen Prentsa-bulegotik jaso ditugu albistea eta iruzkina. Horren ondoan, estatistika bitxi batzuei buruz dihardu J. Intxausti-k: Zenbat dira Ameriketako euskaldunak?

Batetik eta bestetik, hain gai ezberdinak biltzen dituen ale honek badu, uste dugunez, irakurlearentzat hausnarkizun pizgarririk.

XIX-XX. mendeetako euskal poesigintza: Tradizioa eta eraberriketa

Iñaki Aldekoa

Ez dakit zer geratzen zaion urrunago egungo poesi irakurleari, “Olerkariak” —Aitzolen gidaritzapean 1927an Arrasaten sorturiko “Euskaltzaleak” elkartearen inguruan batu zirenak batipat— zeritzon poesi belaunaldia ala garai hartako gainegitura ideologikoa. 1980ko hamarkada honetatik begiratu, ezin ditugu bereizi eta aldendu garai hartako poesia eta —zergatik ez?— norbere poetikak baino pisu handiagoa zukeen gainegitura ideologikoa. Aipatu urruntasuna izango da, hain zuzen ere, euskal poesiak urratu duen aro modernoaren adierazgarri. Gerraurrearteko eta gerraurretxoko poesia nola taxutu zen eta poetika koherente bat eratzeko momentuan suertatu ziren oztopoekin batera, berrogeitamarreko hamarkadan euskal kulturaren baitan eta, modu pribilegiatu batean, poesiaren alorrean emango zen transformazioa ditugu aztergai lan honetan.

Gerraurreko “Olerkariak”: lehen hurbilketa

Azterketa honen abiapuntua “Olerkariak” zeritzon mugimendu poetikoa izango dugu; beronen inguruan leku egingo zaio XIX.

mende-amaieratik, Lore-Jokoetatik alegia, datorkigun bertsolari-kutsuko poeta herrikioen andanari. Hau zioen Ibon Sarasolak "Olerkariak" en mugimenduaz ziharduela:

"Olerkarien mugimenduak euskal-literaturgintzaren planteamolde guztiz berri bat dakar. Alde honetatik, agertzen dituen era askotako mugatze eta limitazio jakinak gora behera, 1964ean finkatu zen eraberritzearen lehen aintzindaria da. Lehendabiziko aldiz euskal literaturaren historian literatur-mugimendu bat ohartu egiten zen literatura egiten ari zela. Are gehiago, asmo horrek zekarzkien eginkizun eta problemei serioki buru eman zien, batez ere taldearen teorikoa zen Aitzolen bitartez. Eginkizun hauen artean lehena forma poetiko landu eta berezi bat eraikitzea zen: soilik honek atera zezakeen euskal poemagintza lore jokoetako poetek sartu zuten bide itsutik"¹.

Lore-Jokoekin batera hedatu zen poeta sentiberaren erretorizismoak, momentuko errealitateaz ohartzuz sortu zitekeen esparru literario autonomoa baino maisukiago kanporatzen zituen, poetari berari, gizon bezala, zegozkion eta ustez jatorrak ziren sentimenduak.

XVII. mendeko poesia landuaren bide bakana —Oihenarterena bereziki— urrunegi geratzen zitzaizela, ez dute bertsolaritzaren joera baizik ezagutuko eta I. Sarasolak dioen bezala:

"Lore-Jokoetako ihardukiaz euskal poesia bide itsu batetan sartu zen, bertsolaritzaren ezein abantaila eta ia behaztopa guztiak beregana baitzituen. Lore-Jokoetako bertsogileak bertsolaritzaren gai, teknika eta baliabide formal berak erabiltzen dituzte. Haren eta honen artean, kasu askotan guztiz baztergarria gertatzen den tonu-diferentzia bat baizik ez da nabaritzen. Landutasun bat ia inoiz iritsi gabe, garaiko poesia, eta areago literaturaren gaineko alorrak, ez dute, ezinbestean, maila folklorikoa gaintitzen"².

Bestelako joera —joera kultoagoa— ireki nahi luke Sabino Aranak bere poetika ttipia dei geniezaiokeen "Lecciones de Ortografía del Euskera bizkaino" delakoarekin. Maiz aipatu izan da poetika tipi honen araudiaren onarpenean legokeela Olerkariak —Orixe, Lizardi, Lauaxeta, Loramendi, besteak beste— zeritzon mugimenduaren ezaugarri bateratzaile bat. Hala eta guztiz ere, aitortu behar dugu, esandakoa ez dela erabateko egia: Lizardik ezik, beste olerkariak noizbehinka baizik ez dute betetzen araudia. Hala ere adierazgarria ediren dugu metrikari buruzko naiz poesiari dagozkion beste fenomeno teoriko batzuen inguruko kezka: ageri-agerian erakusten bait dizkigute, ordurarte ez bezala, poesia lan-

du eta kulto baten lorpenerako zabaldutako urratsen ahaleginak. Hona hemen mugimenduaren eraberritze -asmoen emaitza: Lauaxetaren *Bide Barrijak* (1931) eta *Arrats-Beran* (1935); Lizardiren *Biotz-Begietan* (1932) eta *Umezurtz Olerkiak* (1934) eta Orixeren *Barne-muinetan* (1934). Zera ere ez dugu ahaztuko, alegia, Orixek bere *Euskaldunak* —nahiz eta gerra ondorenean, 1950ean argitaratu— 1935ean amaitua zuela.

Azaletik arakatuz, “Olerkariak” belaunaldiaren barnean hala-ko adostasun edo/eta koherentzia bat suma badaiteke ere, sakonki murgiltzeak bestelakorik erakusten du³.

Arestian aipaturiko poeten emaitzak 1930etik 1935era bitartean eman ziren arren, honek ez du esan nahi garai hartako euskal poesiaren eskusibotasuna zutenik. Jakina, 1930eko urte horietan ere, bazegoen Olerkariak zeritzon mugimenduarekin batera gorago aipaturiko Lore-Jokoetako tradizio herrikoia jarraituz, bertsolari-kutsuko hizkera erraz eta erretorikoaren alde apustu eginez, garaikide berrizaleen aurrean amore emateko prest ez zegoen korrontea. Lauaxetaren “Bide Barrijak” —titulua bera dugu joera berriaren adierazgarri— argitara ematearekin batera azaleratu ziren joera kontrajarrien ikuspuntuak. Alde batekoek eztabaidaren ardatzean hizkuntzaren arazoa jartzen zuten. Ez dugu ahaztu behar poesia kultoa lantzeko aproposagoa idurituz, nahiz garaia astindu zuen mistikaren eraginpean, Lizardi eta Lauaxeta purismoaren ildotik abiatu zirela, poesiaren ulermena aski zail bihurtuz. Dena den, ez da hau nahikoa izango auziaren benetako motibazioaz jabetzeko. Begi-bistakoa da alegia, zenbait autore xumeren ahotan zail egiten bazen ere, hizkuntz arazoa soilik zegoela sinestea, onartezin bihurtuko zaigu orain arte “Olerkariak” en partaide kontsideratu dugun Orixeren ahoan. Sakoneko problema ez zen hizkuntza —edota ez hau bakarrik— erradikalki 1931n ordura bitarteko euskal poesiaren tradizioa zokoratuz, Lauaxetak poesiarako beste modu edo tankera bat erakustea baizik. Ez dugu ahaztu behar Lauaxetaren poema-liburua, Europako korronteetara hurbiltzen gintuen estetika (poesiaren interpretazio) batean oinarritu zela.

Modu laburrean azaldu dugu “Olerkariak” zeritzon talde-gi-roaren zenbait zertzelada eta ezbaian utzi dugu mugimendu bate-ratu edo kohesionatu honi buruz egon zitekeen aurreritzia.

Puntu honetara iritsiak garelarik, urrats bat gehiago eman beharrean gaude nahitaez, aztertzen ari garen aro poetikoaren zinez-

ko kontraesanak atzematekotan. Beste modu batean planteiatuz, zeintzuk izango dira belaunaldi honen traba latzenak erregistro modernoan poetizatzeke?

"Olerkariak" aurreko literatura: historia gisa

Errenazimendu-mugimenduak Italiako mugak gaindituz mundu modernoa inauguratzen zueneko garaian, Europako beste nazioetan bezalatsu, Beñat Etxepareren poesi liburuarekin, euskal literatura idatziaren sorrera ezagutuko da. Alabaina, Jon Juaristik dioen bezala:

"Como otras literaturas surgidas en la misma época —durante el siglo XVI— la vasca fue un fruto más de la pugna entre protestantes y contrarreformistas. Los primeros textos en euskara (al menos, los primeros que tuvieron una entidad digna de tenerse en cuenta) fueron obras de carácter religioso para la evangelización de un pueblo sin escritura, libros escritos por clérigos para servir de apoyo a la labor pastoral"⁴.

Inprimategiaren asmakizunarekin irakurlego berria sortuko da; beraz, egoera aproposa ideia berrien —ideia hauek erlijioaren baten magalean, normalean— zabalkunderako. Ez zuen beste asmorik Leizarragak, kredo protestantea besarkatuz, Testamentu Berria itzultzeari ekin zionean. Eginahal honetarako, euskara arruntetik urruti zegoen euskara kultura erabili zuen. Trentoko Kontzilioaz geroztik, zapuztuak izan ziren defendatzen zuen kredo erlijioso nahiz euskara kulto baterako —beste nazio batzutan horren eman-korra— ahalegina.

"Si un hecho en la historia moderna —esaten du L. Mitxelena— ha tenido una profunda repercusión en Vasconia, éste es el Concilio de Trento, cuyos efectos llegaron a conformar de modo permanente la vida del país. Después de él y en su consecuencia va realizándose la identificación, luego familiar, de lo vasco con el catolicismo"⁵.

Trentoz geroztik Euskal Herria hertsi egin zitzaion kanpokoa zen edo berrikuntz usaina zuen orori eta bere baitan barnebildu zen. Elizgizonen artean, denborarekin ideia berrien aurkako harreririk bikainena euskara bera delako ustea zabaltzen joango da. Alegia, fedearekin batera, baserritarren ohitura onak ere gordeko zirelako ustea. Pulpituetatik bakarrik gidatua zen herriak, ez zuen

inolako kulturaren beharrik eta kleroaren eskuetan, euskara idatziak murrizketa funtzionala jasan zuen, herri xehearen heziketa erlijiosora bakarrik kondentatua izan zen eta. Ez dugu beste libururik ezagutuko XIX. menderarte. Europako nazioetan ez bezala, fedearn eta zientzien (ezagupena) alorrak bereizten joan ez ziren heinean, hizkuntza eta kultura oro ito egin zen.

XVIII. mendeak edo "Argien Mende" delakoak sakoneko eraginik gabe utzi zuen —esan genezake, ukitu ere ez zuela egin—, euskara eta Fedea bateratuz, baserri-giroan eratu zen mamudun marmolezko dorrea. XVIII. mendea dugu Ilustrazioaren mendea. Espainiak ez zuen arrazoiaren bultzadaren eragin epidermikoa besterik izan, eta Euskal Herriari bagagozkio, zer esanik ez. Bergarako Mintegian bildutako "Real Sociedad de Amigos del País" delakoak zientzien ikerkuntzak etab. bultzatu bazituen ere, ez zitzaion, filosofia eta mundu-ikuspegi aldetik, jatorrizko ilustrazioak zekarren izpiritu erradikala itsatsi. Benetan, mamirik gabeko etiketapean uler daiteke Mogel —*Peru Abarka*—ko elkarriketaren egilea— Euskal Herrian Ilustrazioaren pareko genuen Bergarako erakundeko partaide eta orobat Inkisizioaren salatari izatea. Beste leku batzuetan bezalatsu, giro honetan mamitu zen neoklasizismo xumea —XIX. mendean literatura fuerista eta erromantikoa bezala— ia guztia gaztelaniaz eman zen.

Garai hau ote dugu Europan Frantziako Iraultzaren ondorioz hedatuko den modernitatearen ataria? Modernitatea zerbait izatekotan, Europako gizarte-kulturaren zimentarria dugun kristautasunaren kritika zorrotza izan da⁶. Kritika-joera hau Errenazimendutik dator, Euskal Herria bere baitan barnebildu zeneko garaitik alegia. Errenazimenduaz geroztik, fedearn edo mandatu errebelatuaren gainetik arrazoiaren goralmena ezagutuko dugu, eta orduanik gainbehera datozen erlijio nahiz Antzinako Erregimenaren barne-egiturak, Ilustrazioaren eta bere eraginez jazo zen Frantziako Iraultzaren ondorenak errematatuko du. Ez gaitetzen izutu kritikoen artean leku arrunta betetzen duena esaten badugu, hau da, gizarte modernoa Jaungoikoaren heriotzarekin sortu dugula. Alde honetatik hauxe dugu euskal kulturari ikusten zaion tradizio-hutsunea: tradizio ilustratu edo erabateko filosofia kritikoarena. Hemen dago benetako haustura. Egiazko Modernitatea⁷ hasten den lekuan hasten da, era berean, gure aldenketa, gure urrunketa. Ez horrenbeste Aro Modernotik itzurika abiatu ginelako, geure posizioetatik mugitu ere egin ez ginelako baizik. Hobeto legoke esatea, Aro Modernoak ihes egin zigula, burgesiaren igoerarekin hedatzen

eta indartzen ari diren —gizarte berriaren ardatzak ditugun— zentru hiritarretara. Joera honen ildotik igarotzen da XIX. mende guztia. Liberalek —Espainiak ere ez zuen egiazko burgesia kontzientzia-duna izan— gudu zibilak irabaziz, beren lurrari atxekita zegoen baserriarraren berezko tradizionalismoa kulunka jarri bazuten ere, burgesiaren ideologia modernoak ezin urratu izan zuen Trentoz gerotik euskaldun fededunaren lemapean barreiatuta, euskaldungoaren egiazko kontzientzia izateko aukera guztiak zapuztuz eraiki zitzaigun harmorez⁸ eginiko ideologia itogarria. Euskal idazleek —euskaraz zihardutenek eta beste askok— segimendu inkontziente batean jarraitu diote, mistikaz, kanpoko orotatik isolatua zegoen Euskal Herriaren proezak kantatzeari. Fantasma haxe izan zen, eta izan da, literatura moderno baten bidea zabaltzeko orduan, gaindiezinezko eragozpen eta muga.

Lore-Jokoekin batera, igarotako gerrate zibilen ondotik, galdutako Foruen aurrean euskalduntasunaren kontzientzia erakutsi behar zen. Hau da: beste aukera guztiak galduak direnean, literatura eta folklorea geratzen dira. XIX. mendetik abiatuz XX. mendean gerrate aurreko belaunaldiarte heltzen zaigun euskal poesia, ez da Ilustrazioak eta Iraultza Burgesak eraginik sortu den erlijiorik gabeko gizarte industrial eta antiestetikoaren kritika izango. Ez da izango, zeruak hutsik utzi ondoren progreso eta arrazoiaren Jainko berriaren ondoan makurtzera behartzen gaituen filosofia positibistari ematen zaion sentiberatasun eta pasiozko erantzuna. Egiazko erromantizismoa honetan zetzan: modernitatearen seme izanik, bere eraikuntzaren ukatzailerik zorrotzen bihurtzean. Lore-Jokoekin sortzen den poesi giroak ez du modernitatearen kontzientziarik, hain zuzen ere, bizi izan ez duelako.

Hala ere, XIX. mendetik datorkigun tradizio poetikoaren mundu-ikuspegiak ez baldin badu jaso ere, gizon modernoak Jaungoikorik gabeko mundu-izadiaren aurrean sentitu ohi duen banaketa (escisión); Mogelen garaitik Foruen aurka egin diren maniobrak, —bi gerrate karlista eta, amaitzeko, Foruen desagerpena— medio, zabaltzen joango da banaketa (escisión) baten sentimendua. Euskal mundu tradizionallean, modernitatearen emaitza den zentralismoak egin zuen urradura, kontzientzi sortzaile izan zen eta ondorioz, Iraultzaren ondotik nagusitu nahi zuen gizarte berriaren gaintik, mundu zaharraren (gizarte tradizionalaren) goralmena ekarri zuen. Gertaera historiko hauen eraginpean, modernitatearen oihartzunak iragazi ziren.

Izadira (baserri-mundua) eginiko bidean bat etorri baziren ere, ez dugu ahaztu behar, gure kasuan, prozesu baten aitzinean gaude-la. Aipatu gertaera historikoek eta beren ondorioek ez zuten astindu, deskribatzen saiatu garen euskal kontzientziaren gainegitura ideologikoa. Honen ondorioz, kontzientziarik gabeko erromantizismo antzu baten ildotik, bere gainazaleko moldeak baizik agertzen ez dituela, sasi-literatura elokuenta zein sentibera bati amore emango zaio; faltsua bere azal-azaleko zintzotasunean eta hutsala bere ahaleginean.

Gernikako Arbola da, Fuerismoarekin sortua, Lore-Jokoetako eta ondorengo tradizioaren sinbolorik funtsezkoena. Historiaren eta bere gertaera historikoetatik at, euskaldungoaren sinbolo. Edo gutxienez, mendeen poderioz gizentzen joan zaigun euskal mistikarena. Arbola izango da zero-lurren bitartekaria; kristautasunaren magalean mantentzen gintuen sinbolo babeslea. Arbolaren ondoan, Israelgo herri hautatuaren pairakuntza biblikoa nagusitzen da Arrese-Beitiaren poesigintzan —garai hartako izenik sonatuena— eta, baita, bere girokoan ere.

Interesgarri deritzogu tradizio luze baten zimentarri-maila iritsi duen sinboloaren bilakaerari. S. Aranaren nazionalismoaren agerpenak bultzada eta indarra eman nahi izan arren, joera kultoen alde posizionatuz, ez zen nahikoa izan: orain arte ikusi dugunarekin lotura estuegia zeukan⁹. Lizardi, jaso zuen tradizioaren eta bide berriak zabaldu nahi dituen joera kontrajarrien¹⁰ artean, bitartekari dugu. Bitartekari jaukala: bide berrien alde apustu eginik ere, maila jaso batean tradizioa birsortu eta berrasmatu zuena. Bere "Asaba zaarren baratza" poeman, arbola hizkuntza zahar ("larreakoa"¹¹) eta hizkuntza berriaren ("jakintza-egoek igoa"¹²) bitartez lortzen den Euskal Herri zahar eta berriaren lokarri sinbolikoa dugu. Izadi guztia eragiten duen Jainkoarekiko ("Yaunari zor"¹³) aliantza berria:

"Ordun eguzkiz yantzi zan
asaba zaarren baratza;
ordun, zuaitzak igaliz;
ordun, baratza leeneratu zan
mugak berriro zabaliz.

Ta leen ikusi-gabeko
zuaitz berri bat zegoen
erdian, guzien buru...
Aren gerizak erri-baratzak
ezin-ilkor egin ditu"¹⁴.

Dena den, azken hau ahalbidetu dezakeen bakarra guztiz ahaltsua da:

“Ene asaben lokarri zaharra,
Yannari zor, etzan eten”¹⁵.

Lizardi eta erromantizismoa

Lizardi ez dugu poesi tradizio jakin baten beharrezko parada. Lizardi, bera dugu tradizioa. Lizardi ez dugu inon eta inorekin konparatu beharrik, bera izan zelako euskal tradizioa berrasmatu ezezik, ondorengoei ere bere begietatik ikuserazi diena. Bertsolaritzaren joera malkarrak abandonatuz poesia kulto bat lantzen zuelarik, ordurarteko tradizioak hain berea zuen naturaren babesa baitaiatu egin zuen. Bera dugu, Izadia, finezia handiko alegoria dir-daitsuetan bilakaturik, euskal poesian inork ez bezalako lirikotasunaz urte-giroen joan-etorria poetizatu ziguna. K. Mitxelenak ohi zuen era ezin hobean zioskun bezala:

“En sus mejores poesías nos ha dado el drama de las horas y de las estaciones en el paisaje vasco, inolvidablemente animado por unos personajes que no tienen más que la leve, y sin embargo suficiente, consistencia de una metáfora, el desnudo silencio del invierno que sólo rompe el temprano grito de la amarilla flor del árgoma; el inesperado encuentro con la primavera, muchacha vestida de azul, en el despertar del bosque; el robledal, palacio dormido en un mediodía de estío, abrumado por el sol; la angustia del monte otoñal, cubierto de orín, que no tiene otro consuelo que el recuerdo y la esperanza...”¹⁶

Hala ere burura datorkigun galdera hau da: zein begirekin ikusten du izadia Lizardik?, edota, modu zuzenago batean galde-tuz, zinez naturaren ikuspegi modernoa al demaigu Lizardik? Ene uste apalean, ezetz esango nuke: Lizardiren paisajea ez da erromantikoa (erromantizismoak, modernitatea¹⁷ esan nahi du hemen). O. Paz-i jarraituz, Modernitatearen lehen tradizio literario eraginkorra erromantizismoa izan zen. Modu berean, Pre-moderno terminoa erabiliko dut oraino modernitateak hautsi ez duen mundua izendatzeko. Lizardiren irudi-mundua aztertzerakoan, termino hauek Europako periodizazio literarioan daukaten zentzu estuan erabiliko ditut. Alegia, modernitatearen haustura aurretik eta geroztik, izadiaren ikuspegiak nolakoak ziren esateko.

Modu zabal batean onartzen da Rousseauk isladatu eta eragin zuela jarrera modernoaren aldaketa iraultzailea. Beharbada, bere eritzi politiko eta pedagogikoen gainetik, eragin erabakiorragoa suposatu zuen, gizartea giza itxurako sorkari soila ikusten zuelako abiapuntuak. Alegia, aurreko eritzien oinarri eta abiapuntuan dago, gizona bera —eta ez Jaungoikoa— gizartearen itxuraldatzearen arduradun bakartzat hartzea. Beraz, hemendik aurrerantzean, gizartea ez da izango Jaungoikoak gizonari —honen partehartzerik gabe— kanpotik ezarri dion fenomeno. Aurrerantzean giza arazoan esplikazioak, ezagutzeko gai garen giza gogoaren eruedetan soilik bilatu beharko ditugu. Guzti honen ondorio gisa, artea eta konkretuki poesia, jarriko da gizartearen ardatzean. Gizarte honen oinarria gizonaren sortze-ahalmena izango da eta eszenariorik aproposena hutsik geratu den izadia. Gizonaren sormenak berriro janzteko eta betetzeko zain geratu dena, alegia.

Beraz, natura ez da zera erregalatu izango, giza gogoaren ispilua baizik. Erromantizismoak astindu aurreko natura kanpoan dagoen zera objektiboa zen, orain gizonaren baitan berak asmatua izango den objektua dugu. Naturaren birkreatze-prozesu honetan poeta erromantikoak ahalmen sakratuen jabe agertuko zaizkigu eta herriaren jeinuak, jeinu poetikoak, asmatuko du benetako erlijioa. Benetako erlijioa, poesia dugu eta Biblia —ordurarte besteen gainetik agertzen zen liburu sakratua— ez da herriak sortu duen poesia hutsa baizik izango.

Modernitatearen gizarte-aldakuntzak, bere kontzientziarekin, iraultzaren inplikazio psikologiko guztiak barne, Mendebaldeko molde guztietako egiturak iharrausi zituen korronteak astindu al zuen Lizardiren irudimen-mundua? Berriro ere ezetz esango nuke, Europako beste nazioekin konparatzen badugu, bederen.

Lizardiren irudi-mundua pre-modernoa dugu: Jaungoikoaren sorkuntza dugun izadi bat da. Alegia, naturaren koadroa Jaungoikoak poetaren aurrean jarritako zirriborro bat baizik ez da; poetaren eginkizuna izango da natura honen egitura objektiboari jarraitzea. Hau dela eta, poetaren metafora eta irudi-munduak begien bidez atzemateko izaera fisikoa izango du. Poetaren ereduak ez dira barneratuak izango, ez dira bere barnetik irakurritz birsortzen duen izadia; alderantziz, naturak berak Jaungoikoaren eskutik —iruditeria ilun eta difuminatuetatik urrun— eskaintzen dizkion eredu garbiak dira; kanpokoak. Behaketa, sentimenduaren aurretik dihoakigu Lizardiren kasuan, eta ez alderantziz (erromantizismo ondorenean bezala).

Lizardiz geroztik, lilura sortzeko moduko naturaren ezagupe-na dugu; baina arestian aipatu naturaren bataio hori, nolakoa dugu Lizardiren poesian? Alegia, Lizardik asmatzen duen mitologia ttipiko jeinuak (iratxoak) nolakoak ditugu?

Erromantizismoko iruditeriak gizona eta natura etenda erakutsiko dizkigu. Paradisuko, Edeneko edota Urrezko Aroetako zoriontasunetik egotziak, mundu baxuenetan aurkitzen du poetak bere egoera adierazteko imajineria. Dena den, poesiaren bitartez, bitartekotasuna da bere funtziorik inportanteena, berriro ere jade-tsi nahiko ditu paradisu galduak. Poeta erromantikoek elementu numenikoz jantziko dute izadi berria, beren egoera larriaren ispilu izatera deitua den izadiaren baitan Jaungoiko berriak deskubritzen dituztelarik.

Lizardiren poesigintzan, aitzitik, gizona/natura eta Jaungoikoaren triadaren batasuna eten ez delako, ez da kosmoaren batasuna jaungoiko berrien eskutik etorriko, naturak poetari eman ahal dion ziurtasun eta babesaren aldetik baizik. Azken finean, ziurtasun eta babes hau ez da izango, Jaungoikoaren magalean, izadi osoak erakusten duen haren ontasunaren isuria baino. Designio edo asmo ezkutu honen metafora zabala dugu Lizardiren "Urte giroak ene begian"eko *Baso Itzal* (jeinu on eta babeslea):

"Itzal! Baso-ren ume yaukal,
xaloagorik ezin aal:
beltxeran, begi bai azal:
Itzal!...
Itzal!...
Sar naun geldixe, taupaka biotza,
Ar maitez, otoi, lerregin-arrotza...
oial illaun batez legortu didan
bekokia. Gero, aldamenean,
aitzadan eseri, andereño otxan,
ta, ai, zein gozo gauden, aopekotan!...

Atsedenenaren eliz, zutoiz bete,
osto-pillo ta izar izunak abe:
ta i bertan oianeko yaupaleme..."¹⁸.

Edota aurreraxeago:

"Gauden, bada, maite, basoan geldi¹⁹,
Uda! gar zoragarri, suzko itsaso:
untzi geriza untan nai aut igaro..."²⁰.

eta "Ondar gorri" poeman bezala:

“Uda —suzko itsaso— baitut ibilli
gerizpe atsegin bat nuela unti”²¹.

Virgilio eta, mende batzuk geroago, Danteren “Divina Comedia”n bezala, hemen ere jeinu babeslea izango da poeta naturaren mundutik poemaren amaierako —poetaren bizitzaren amaiera orekatutako— “Yainkozko betera” gidatuko duena:

“Ta Udazken-arratseko goiz batean
esnatu nadi Yainkozko Betean”²².

Hementxe batzen dira Lizardi bezalako poeta goren baten handitasuna eta gaindiezinezko mugatasuna. Lizardik ere ezingo du gainditu —berez aurrerakoia eta, erlijio aldetik ere, ikuspegi kultura zuen arren²³— modernizaziorako bide osoa ibiltzeko behar-beharrezko zen frogara: S. Aranaren bultzadaz indarberritu zen gorago aipatutako egitura ideologikoa, alegia.

Lizardiren ezintasuna, euskal munduak modernitatearen ulertze-ko agertzen zuen ezintasuna zen.

Lauaxeta

Lauaxetaren poesian aldaketarik badugu. Lauaxetaren “Arrats-Beran”eko izadia isilik geratu den Jaungoiko baten ispilu da. Gizonaren sufrimendu eta trajeriaren aurrean mutu geratu den Jaungoikoarena. Ez dugu poema-liburu honetan, Lizardiren poesian bezala, jeinu babesle eta gidaririk aurkituko. Alderantziz, “Eiztari aundiya”n²⁴ bezala, Jaungoikoa bera da erasotzailerik kru-delena.

Ziurtasun guztia galdu duen izadiaren eszenario honetan heriotza agertuko zaigu nonnahi. Eta larridurazko egoera hauxe izango da —“ziñeste-bakuarena”²⁵ poemaren aitormen gisa kontatu zaigu— ontasunez beteriko Jaungoiko babeslearekiko zalantzaren egiazko metafora. Lauaxetaren lehen liburuan (“Bide Barriak”) nitasun erromantikoa inguruan eraikitako konfidantzazko mundu baikorra bagenuen, bigarren liburuan (“Arrats-Beran”) konfidantza eta ziurtasun-faltaren adierazpide dugu gizonaz eta errealitateaz demaigun ikuspegi pesimista.

Poesia moderno baterantz emaniko salto handiena berea izan zen. Lauaxeta zen gerraurreko poetarik modernoena, zalantza-izpirik gabe. Europako korronte nagusien euskaratze bat egin zuen eta garaiko Espainiako poesiara hurbildu. “Arrats-Beran”eko “Iru zaldunak”ek²⁶ iragartzen dizkio euskal poesiari tradizio modernoan arruntak diren edukinak: plazerra, edana, emakumea eta aberria. Hauexek izango dira, Kortazar-ek ongi azaldu digun bezala²⁷, Lauaxetaren gai nagusiak. Alegia, Jaungoikoaren ispilu den izadiaren mututasuna —krudeltasuna zenbaitetan— medio, fedearrekiko zalantza nagusitzen delarik, denboraren igarotzeak dakarren larridurari erantzuna eman nahian aukeratu bideak. Guzti hau heriotzak bere arrastoa zabaltzen duen izadi erotizatu baten ingurugiroan.

Orixe

Ez da harritzekoa, “Arrats-Beran”en agertzen duen erlijio-zalantzagatik, Lauaxetari bere ingurukoek kritikak jasan beharra tokatu izatea²⁸. Azken hau 1935ean gertatu bazen, “Bide Barriak” argitaratzearekin batera jaso zuen, Aitzolen belaunaldikoa izan arren, Lauaxetaren beste muturrean zegoen Orixerena —itzal handiko idazlea berau—. Honela zioen bere kritikaren parte batean: “..., ta gure gastediari mesede baño kalte geyago egin lezayote”²⁹.

Ez zuen alferrik esaten Orixez Koldo Mitxelenak, Galileo aurreko gizona genuela, jakintza berria sortu baino lehenagokoa, alegia. Errenazimendu-atariko eskolastikaren sintesiaz gerotzikako orori, begiak itxi zizkion. Alegia, jakituria errebelatuak lehentasuna zuen gorputz ontologiko batean bateratuak zeuden arrazoi eta errebelazioa bidebanatzen hasiz, Aro Modernoa inauguratu zuen garaia aurrekoa dugu Orixen.

Bere oinarri literarioa —epikoa baino bukolikoagoa— klasi-koengan eta Espainiako mistikoengan zuen. Bere ereduak igarotako garai horietan *zuenaren ahoan* bakarrik aurki daiteke, Orixek Europako literatura modernoari buruz duen ikuspegia:

“Azkenik, literatura orrek oiturak andeatzen ditu. Ele-eder dalako ori, eunetatik larogei ta emeretzi, gordinkeri, likiskeri, lizunkeri, urdekeri besterik ez da. Naigabe ematen dit esateak adiskide batzuegatik, baña bakar batzuk asi dire lizunkeriari atek zabaltzen.

Ardi bakar batek barruti debekatura iauzi egin ezkeru, artalde osoa aren atzetik doa. Ikusi dezala ontan lenengo idazleak zer erantzunbehar daukan oitura garbien aurrean. Orain arte aski garbi geunden ustelkeri ortatik, bañan onez aurrera bildur izateko da³⁰.

Artikulu hau 1954ean argitaratua izanik³¹, non geratzen zaizkigu Lizardi eta Lauaxetaren ahaleginak? Gerrateak eraman zituen berarekin. Gerraosteko belaunaldiak, Lizardik egina eta amaitua utzi zuen bideari jarraipena eman nahi izan zion. Behar bada, maisuak zabaldu zuen bidea, berak amaieraraino eraman zuela ohartu gabe. Halere gerraondoko belaunaldiaren meritua —I. Sarasolak zioenez³²— Kinka Larrian zegoen euskal literaturaren zuzia ondorengoei heleraztean datza.

Lauaxetaren ahaleginak, ordea, egiazko euskal poesia moderno batek nahitaezko zuen sekularizazio-ildotik, hondarretan galduriko bide bat dirudi.

Gerraurreko ingurugiroaz ohartzeko bagara, Lauaxetaren poesigintza, ortodoxoegia zen korrante nagusitik nabarmenki aldeniduz, 1950etik aurrera gauzatuko zen zinezko etenduraren aitzindari isolatu bailitzan, agertzen zaigu. Itzulezinezko sekularizazio-bidean, ez gaitu harritzen Lauaxetaren poesien inguruan heterodoxiaren susmoa zabaltzeak.

Laburpen gisa

Lore-Jokoetatik gerrate-aurretxora egin dugun bidean, ez dugu aurkitu modernitatearen izpiriturik. Hots, Mendebaldeko gizasemeak, kristautasunaren eredu hilezkorra ahitu ondoren, arrotza zitzaion mundu baten partaide delarik izan duen esperientzia animikoa. Hausturaren emaitza jakinik, badaki bere geroa ez dela, Lizardiren kasuan bezala, kontraesan guztien itzaltzea litzatekeen hilezkortasun kristaua, heriotza baino. Gizonaren psikologia irauliz, badakar iharrausi honek mundua ikusteko eta bizitzeko, pentsatzeko eta gozatzeko modu berezia.

Urrun ditugu, batasunaren nahiz identitatearen muina dugun Orixe mistikoa eta kontraesan oro zokoratuz Arkadia baten gunean paraturiko baserritarra, Europako gizartea astindu eta antzaldatu zuen iraultzatik. Urrun, baita ere, Lizardik, Jaungoikoak itxuraturiko izadiarekin eten ezin zuelarik, kontraesanik gabe bete

zuen hilezkortasun kristauerako bidea. "Arrats-Beran"eko Lauaxeta ohartu zen gizon historikoaren geroa heriotza zela eta unean-uneke irtenbide bat eman nahi dio zalantza erlijiosoak zabalduriko larrialdiari.

Halere, Lauaxetari handiegia geratzen zaio poesia modernoaren zimentarria eta —modernitatearen kasuan suposatuko lukeen bezala— garai berri baten mamidura izatearen zama. Hau horrela ez balitz, zein hasiera xume eta indargea, jarraipenari begiraturaz, bederen. Zail egiten zaigu, beraz, onartzea —J. Kortazar-ek nahi duen bezala— Europako haustura, tradizioaren edo, beste modu batera esanez, poesia modernoaren euskal bertsioa, Lauaxeta eta Lizardi direlako baieztapena. Honela dio J. Kortazar-ek O. Paz-i³³ jarraitzen diolarik:

"Dicho en breves palabras sostiene que el Romanticismo —versión literaria del Idealismo— alemán es la cuna de tal poesía moderna y que esa ideología se expande por Europa con diversos nombres. Al llegar a Francia se llama Simbolismo, en España Modernismo. Y nosotros deberemos añadir que en Euskal Herria tal movimiento adquiere el nombre de Pizkundera, o el de Olerkarien mogimentua"³⁴.

Euskal poesia modernoaren izpiritua eta egiazko mundu-ikuspegi modernoak, hizkuntza barneratu eta zeharraldatu oro baino sakonago, 1950eko hamarkadan jadetsi zuen euskal literaturak. Gehiago ikusten dugu Lauaxeta bi korronte-giroen erdian, gerraurreko giro ortodoxotik aldendua eta 1950eko hamarkadako korronte-girorako fruitu goiztar bezala.

Euskal poesia moderna

Europako gizarte modernoaren muina —bere ideia eta kontraesanak barne— bereganatuko zuen belaunaldia 1950eko hamarkadako izango da. Europako hausturaren tradizioarekin bat egirik, hala ilustrazioak buruturiko erlijioaren kritika, nola bere filosofiak sorturiko arrazoizko gizartearen kritikak, euskal mundu tradizionalaren "corpus"arekin eten egingo du. Hau dela eta, Mendebaldeko azken berrehun urteetako korronte literario nagusien bizkarrezurrari itsatsi zitzaion euskal literatura. Etendura hau, ikuspegi nagusi baten inguruan laburbildu dugu: hastapenetara itzulia.

Hizkuntzari dagokionean, Krutwig-ek zabalduriko bide heterodoxoari jarriakiz, Trentoz geroztik ukatua izan zen XVI. mendeko beste heterodoxo —Leizarraga, erraldoi bakartierra— ospetsuaren jarraitzaile bihurtuko dira.

Hau da, Krutwig, Mirande eta G. Aresti konsziente dira aipatu bidearen hautaketak suposatzen dituen inplikazio guztiez: XVI. mendetik XX. mende-erdirarterainoko "Fedearekin pentsa"³⁵ euskal tradizio guztiaren ukazioa.

Bi ardatz nagusiotan gauzatuko da XVI. mendez geroztikako tradizioaren ukazio hau:

1. Erliijoaren ukazioa. Kristauen Jaungoikoaz ernegatu egiten dute. Jaungoikoaren heriotzaren ondorioz Miranderen Euskal Herria jaungoiko paganoz jantzita datorkigu. "Maldan-Behera"-ko Arestiren kasuan ere ukazio bera:

"Fede, karitate, esperantza kentzen
ausartu nintzen nire nekearen ordez"³⁶.

Honen ondorioz Jaungoiko zaharraren heriotza iragartzen da, "hamiltegi batean azkar eroria"³⁷.

2. Gorago aipatu dugu XIX. eta XX. mendeetako guduek kontzientzia historiko baten garapenean izan zuten eragina. Gertaera historiko honen bitartez iragazten joan zaizkigu modernitatearen emaitzak, eta orobat, harenganako arbuioa. Are bortitzagoa izango da gizarte burgesaren eraikuntzaz —demokrazia barne— 1950eko belaunaldiak egiten duen kritika. Gizarte burges honi egotziko zaio gerrate ondorengo mundu itxuragabetuaren errua.

Bi puntuon ondorioa izango da hamarkada honetan buruturiko "Maldan-Behera" poeman post-erromantizismoaren bortizkeria idealistak hartzen duen lekua.

"Hiru gorputzekin egin nuen arbola
sikuari, gero, eman nion odola,
bihotzetik ugari atera nuena.
Arrainen hegalak ziren bere sustarrak,
arrano zurien lumak ziren adarrak,
eta bere tronkua sugeen buztana.

Haritz bedeinkatua
adoratu nuen"³⁸.

Nazionalismoaren sintesi eraberritu baten sinbolo nagusia Gernikako Arbola zaharberritua dugu. Post-erromantizismoaren eragineko heroi idealista baten borondate sakratuaren mamidura.

Gabriel Arestiren kasuan kanpo-errealitateaz uko egin arren, barne-errealitatean aurkituko du hari aurre eta eraso egiteko indarra. Bere barne-idealismoa geroaren hazia izango da. Jon Mirandek, ordea, bere ukazioaren biktima gertatuko da. Kanpo-errealitatea nahiz barnekoa ukatzen zituela, bizitzaren angustiak ironiaren irtenbidea hertsu ziolarik, J. Miranderen poesia zera da: gizonaren beraren ukazioa.

Sinbolismotik eta post-sinbolismotik iragazitako post-erromantizismoaren ingurugiro honetan sorturiko Mirandek eta Arestiren —lehen poesiak eta “Maldan-Behera” poema luzea— poemagintzaren saioek ahalbidetu zuten 1960ko hamarkadan euskal kultura osoak —bereziki poesigintzan: poeta sozialen andana, Mikel Lasa, Ibon Sarasola...— izan zuen gorakada.

Fenomeno honekin batera, 1950eko hamarkadan burutu zen aldizkarien arteko gerra. Gerraurreko kultur bide tradizionalaren —“Euzko Gogoa”— eta bere ikusmirak hiriburuan jarriak dituenaren —“Egan”— arteko sakoneko istiluak, literaturak aipatu “Fedearekin pentsa” lemapean zegoen tradizioarekin izandakoak berak ditugu. Euskararen normalizazio-bide, Alfabetatze-ahalegin, etabar bidea zabaltzeko, Orixeren mamua —tradizio zaharren mezularia eta ondorengoen aita edipikoa— sakrifikatu behar izan zen. Ez da Mirandek eta Arestik 1950eko hamarkadan poesia-aren bidez gauzatu zutena —Jaungoikoaren heriotza— baizik izango, zertxobait geroago (1967) Rikardo Arregik aldarrikatu zuena: “Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu”³⁹

I.A.

¹ SARASOLA, Ibon (1978): “Lizardiren poemagintzaren alde formalen estudio baterako”, in: *Homenaje a Julio Baroja*. Madrid: Centro de Investigaciones Sociológicas, 957. or.

² SARASOLA, Ibon (1976): “Hitzaurrea” in: *Kriseilu*, 20. or.

³ Egun inork ez ditu ukatuko poeten arteko harremanok, kasu batzuetan adiskideen arteko harreman estuak; bestetan berriz euskal idazleen murriztasuna zela medio bestela izan ezin zitekeelako.

⁴ JUARISTI, Jon (1987): *Literatura vasca*, Madrid: Taurus. 13. or.

- ⁵ MICHELENA, Luis (1960): *Historia de la Literatura Vasca*, Madrid: Minotauro.
- ⁶ PAZ, Octavio (1974): *Los hijos del Limo*, Barcelona: Seix Barral.
- ⁷ Aro modernoa aipatzen dudanean, zentzu generikoan darabilt. Badakigu Aro Modernoa Errenazimendurekin hasten zaigula (XV. mendea). Hemen, Aro Modernoak, Errenazimenduan hasitako bidearen erabateko mamidura esan nahi du. Zehatzago esanda, Aro Modernoa, gurea dugun Aro Garaikidea litzateke; Frantziako Iraultzaren ondoan sorturiko gizarte-munduarena. Halere, Modernitatez ari garelarik, ez deritzot desegokia.
- ⁸ Ikus G. Arestiren "Maldan-Behera", in: *Gabriel Arestiren Literatur Lanak-1*, 123. or. "Gorbeia baino gorago // askozaz goragoa. // Arginek egin digure, // harmore bat haltua. // Izena jarri diote, // apaizek itsasoa". Harmorez eginiko ideologia: apaizek ehundutako armiarma-sarea.
- ⁹ Ikus Ibon Sarasolaren (1971): *Euskal Literaturaren Historia*, Kriseilu, 54. eta 55. or.: "Klerikalismoak ez zezakeen begi xarrez ikus sortzen ari zen mogimendu berria —S. Aranaren nazionalismoaz ari da—, haren helburuak betetzera zetorrela baitzirudien. Are gehiago, hasierako ideia multzo haren gauzatze konkretuan parte inportant bat izan zuen. Ideologia klerikalaren kutsua ideologia berriaren teoriar eta praktikan nabarmentzen da, haren defentsa aktitudetan (lehenago aipatu den hesian), karakter hertsia eta kontserbatzailean, euskaldun fededunen nazionalismo ezer baino lehen katolikoan. Alde honetatik euskal idazle guztien homogeneitatea izugarri zen".
- ¹⁰ Orixek eta Lauaxetak erakusten dituzten kontziliaezinezko planteamenduak.
- ¹¹ Ikus X. Lizardiren "Eusko Bidaztiarena" poema in: *Olerkiak, Xabier Lizardi*, (1983) Donostia: Erein, 177. or.: "Baiña nik, izkuntza larrekoa, // nai aunat ere noranaikoa: // Yakite-egoek igoa; // soña zaar, berri gogo; // azal orizta, muin betirakoa".
- ¹² *Ibidem*, 177. or.
- ¹³ Ikus, X. Lizardiren "Biotz-Begietan" in: *Olerkiak, Xabier Lizardi* (1983). Donostia: Erein, 195. or.: "Leena zegoen orainaz // ele gozokia. Bitzuok // mintzo beraz ziarduten. // Ene Asaben lokarri zaarra, // Yauhari zor, etzan eten".
- ¹⁴ *Ibidem*, 195-196. or.
- ¹⁵ *Ibidem*, 195. or.
- ¹⁶ MICHELENA, Luis (1960): *Historia de la Literatura Vasca*, Madrid: Minotauro.
- ¹⁷ Neureganatzen ditut XX. mendeko —mendea ere aurreratuxea— autore batek ez duela erregistro modernoan poetizatzen esateak dakarzikizun oztopoak eta planteiatzen dizkidan eragozpenak. Kontziente naiz, baita ere, azken berrehun urteotan Mendebaldeko gizartea nahiz kultura oro astindu duen erabateko iraultzaren —gizarte moderno eta honen seme dugun erromantizismoaren— eraginari ezin diola uko egin egungo irakurleak. Alegia, aipatu korronte moderno medio, baldintzatuak gaudela literaturaren irakurketa bera egiterakoan.
- Halere planteiatzen zaidan problemarik larriena, euskal literaturaren edozein historilariri sortzen zaiona da: Periodizazio literarioaren arazoa. Alegia, nola erabili euskal literaturaz aritzerakoan Europako tradizio literarioan esanahi konkretu eta historiko batez jantziriko zenbait termino, beren edukin edo pisua hustu gabe. Neure egiten dut René Welleck-ek *Problemas y conceptos de Histo-*

ria *Literia* liburuan dioskuna: "...un período no es un modelo ni una clase, sino un tramo temporal definido por un sistema de normas encajado en el proceso histórico, inamovible de su ubicación temporal".

Dena den, euskal literaturak, modernitateari dagokionean, dakarren desfasea eta berankortasunaz ohartuz, nire azterketa, malguagoa baino ez dut egin nahi izan.

Hauxe besterik ez dut egin Lizardiren azterketan, moderno eta pre-modernoariz erizpide zabalak hartu ditudanean. Alegia, Europako Tradizio literarioaren ispilu aurrean gure euskal literatura ezarritik, tradizio europar horren izpiritua —edukinak eta formak, mundu-ikuspegia edo, oro har, modernitatearen implikazio guztiak— bereganatzeko euskal literaturak egin dituen aurrerapauso eta ahaleginen historia. Finean, T.S. Eliot-ek bere *Tradition and individual talent* saiakeran zioen bezala, Mendebaldekoa dugu gure tradizio bakarra eta zenbat eta gertuago egon tradizio honetatik, orduan eta azalera agertuko dira eraginak, baina, era berean, munduaren ikuspegi aberatsago eta sakonagoa izango da.

Euskal literaturarako bakarrik balioko ez duen periodizazio literario baten atzetik ez baldin bagabiltza, edozein planteiamendu seriok oinarrian izan beharko lukeen puntua da hemen aurkeztua.

- 18 LIZARDI, Xabier; "Biotz-Begietan", in: *Olerkiak, Xabier Lizardi (1983)*. Donostia: Erein, 159. or.
- 19 Ibidem
- 20 Ibidem, 161. or.
- 21 Ibidem, 165. or.
- 22 Ibidem, 171. or.
- 23 Ikus, "Egia Ikus Dezagun, Ama!" artikulua, X. Lizardiren (1972) *Itz-Lauz*. Donostia: Edili.
- 24 LAUAXETA, "Arrats-Beran", in: (1985) *Olerkiak*, Donostia: Erein. 124. or.
- 25 Ibidem, 175. or.
- 26 LAUAXETA, "Arrats-Beran", in: (1985) *Olerkiak*, Donostia: Erein. 124. or.
- 27 KORTAZAR, Jon (1986): *Teoría y Práctica poética de Lauaxeta*, Bilbao: Desclée de Brower, (Derio. Col. Magisterio).
- 28 MOGEL: "Liburu barri bat: Arrats beran". Ekin, n.º 162 (1935). "...Idatzi onek erlijio-arauz akats aundiak daukoz eta erlijio-arauz akats ta utsegiñak dituan gauzarik ezin "euskaldun" izan nai daunari atsegin izan; ezin ezetara be aise emon" (Goian aipatu Kortazar-en liburutik jaso).
- 29 ORIXE; "Bide-Barriak", *Euzkadi*, 29/11/31.
- 30 ORIXE; "Euskerari nola eutsi", *Euzko Gogoa*, 1954.
- 31 Orixek bertan erakusten duen ikuspegiaren mamidurarik garbiena bere *Euskaldunak* poema litzateke.
- 32 Ikus I. Sarasolak (1976): Gabriel Arestiren *Obra Guztiak-i* idatziriko hitzau-rra. Donostia: Kriseilu. 28. or.
- 33 PAZ, Octavio (1984): *Los hijos del Limo*. Barcelona: Seix Barral.

- ³⁴ KORTAZAR, Jon (1986): *Teoría y Práctica Poética de Lauaxeta*, Bilbao: Desclée de Brower.
- ³⁵ Ikus, Gabriel Aresti (1960): "Poesia eta Euskal Poesia", *Egan*: "Inork eztu oraindik asmatu, baina nik helburu asmatu behar banuke ezagutzen ditugun euskaltzaleentzako, hau izan litzake: "Fedarekin pentsa". Bertsolariak izango dira Arestirentzat, "Fedarekin Pentsa" armiarma-sare honen kutsaduratik aske egon diren bakarrak. Ez litzateke astakeria bat esatea, Arestik haiengan ikusten zuela literatura idatziaren tradizioari falta zaion autentizitatea.
- ³⁶ Ikus, G. Arestiren "Maldan-Behera", in: *Gabriel Arestiren Literatur Lanak-1*, 150. or.
- ³⁷ Ibidem, 152. or.
- ³⁸ Ibidem, 94. or.
- ³⁹ *Jakin*, 10.

Inperialismoa eta armagintza

Joseba Tobar-Arbulu

Ekonomi zientzia, jende guztiak dakikeenez, ez da ari sistema naturalen garapenaz, sistema sozialen garapena zuzentzen duten legeez eta joerez baizik. Sistema sozialak, sistema fisiko edo kimiko bat ez bezala, eragile sozialen menpeko dira, berauen balorazioek sistema sozialetan bertan eragin handia daukatelarik. Honek ez du esan nahi zientzia sozialak, ekonomi zientzia barne, zientifikoki ezin azter daitezkeenik. Ez eta teoria eta hipotesi sozialak espekulazio hutsak direnik ere —literatur kritika den modukoa—. Aitzitik, teoria ekonomikoak egiaztatu egin behar dira datuekin. Teoria eta esperientzia ados egon behar, haxe bait da metodo zientifikoaren erregela nagusia.

Sistema neoklasikoaren arabera, merkatua konpetentziaduna da, hau da, enpresa txiki askoduna. Merkatuan erosle eta saltzaile asko egonik, inork ez dauka botererik prezioak kontrolatzeko. Konkurrentzia dagoenean, prezio-ekarpena inbertsonal bihurtzen da, edozein partehartzailearen boteretik kanpo. Honela, oreka bat lortzen da, non jende guztiak enplegua izango lukeen. Merkatua tresna erregulatzailea besterik ez da.

Keynes-en ekarpena

1930.urteetan Depresio Handiaren garaian ikusi eta onartu zen lehen aipatutako oreka, langabeziaren kopuru batekin egon zitekeela. Hauxe izan zen Keynes-en emaria. Keynes-en ustez, gizabana-koek eta enpresek aurrera lezakete eta ez gasta. Orduan oreka egon zitekeen ez prezioak jaitsiz —Keynes merkatu konkurrentziadunarekin ados zegoen—, produkzioa beheratuz baizik, hots, langabezia sortuz. Berak, erosteko eskasaldi bat egon zitekeela mantendu zuen.

Zer egin zitekeen orduan? Enplegu osoaren mailan edozein aurrezki-demasia egokitzeko, gobernua berak mailegatu eta gastatu beharko luke. Hauxe izan zen erremedio keynesiarra, politika fiskal izenarekin ezagutzen dena. Politika fiskalak gobernuaren aurrekontua erabiltzea esan nahi du. Gobernuak jendea bankuetatik mailegatzea ezin eragin dionean, horrela dirua gastatu eta eskaria eta ekonomia zuzpertzeko, gobernu bera ari da dirua mailegatzeko eta gastatzen. Honek zera segurtatzen du, dirua mailegatu eta gastatu egiten dela. Alderantziz, inflazioa kontrolatzeko, zera pentsatu zen, zerga gogorragoek jendea aldentu egingo zutela bere dirua gastatzetik eta gastu publikoak gutitzeak gobernu eskaria gehitzetik gordeko zuela. Honela, bada, gobernuak aurrekontua erabili dute eskari osoa edo erantsia erregulatzeko eta langabeziari (edo eta, kasuon arabera, inflazioari) aurre egiteko.

Hori izan da, eta da, teologia ekonomikoak irakasten duena.

Keynesianismo militarra

John Maynard Keynes-i jarraituz, 1930.az geroztik onartua zen gobernuak ekonomian parte hartu behar zuela, zergek estali ez zituzten gastu *zibilen* gehitzeaz eskaria erantsi edo osoaren hutsunea betetzeko. Horrela, ezaguna ez bada ere, Hitler-ek, 1933ean Keynes-ek proposaturiko bidea urratu zuen, lan zibiletan inbertsioak eginez. Geroago, bere asmo inperialak betetzearren, gastu militarretan ahalegindu zen. Gastu militar ikaragarri horiek, Alemaniako langabezia amaitu egin zuten, nahiz eta inflazio handia sorterraziz lortu, zeren eta gastuok ez bait ziren ez inongo eta ez inolako merkatu-mekanismoren pean egon. (Diogun, hauxe bera

izan zela langabeziari aurre egiteko erremedio keynesiarraren hondamendia. Lehendabizi, inflazioa gerra-denborako ondorio berezi bat zela pentsatu zen. Gerlan erabilitako politika ekonomikoak, politika fiskala hain zuzen ere, bake-denboran ere erabil zitezkeela uste zen. Gaur egun, hala ere, langabezia eta inflazioa herri garatu eta industrialdu guztietan ezagutzen da. Beraz langabeziarekin eta inflazioarekin aritzeko eta beraiei aurre egiteko, Keynes-ek emandako arauak ez dute gehiegi balio.)

Bitartean Bigarren Mundu-Gerra ezagutu zen. Hitler-en inperioaren kontra jotzeko, beste herriek ere gastu militarrek gehitu egin zituzten. Gastu militarrek izugarriak izan ziren. Gastu horiek Keynes-ek emandako neurriak erabiliz sortu ziren. Harrez gero, keynesianismo militarraz hitz egin daiteke, egoera berri honi izena edo emateko.

Sistema ekonomikoaren garapena

Ekonomi zientzia neoklasikoak sistema ekonomikoaz ematen zuten adierazpenak, ez zituen arazo berri batzuk esplikatu, zeren ekonomia, konplexuagoa bilakatu bait zen. Lehengo ekonomia konkurrentziadun hura, monopolio- eta oligopoliodun bihurtu zen. Neoklasikoek monopolio eta oligopolioaren kasuak merkatuaren akastzat, salbuespentzat hartu bazituzten ere, oligopolioek ekarritako aldaketa ikertu beharra zegoen.

Monopolio eta oligopolioen garapenarekin, enpresa erraldoi gutxi batzuek zenbait produktu hornitzen dute. Korporazioek, handi eta boteretsu izanik, ahalmena daukate beren produktu-prezioetan edozein gastu sartzeko. Berauek, amankomuneko edo taldeko interesak defendatzen dituzte. Beraz, egoera berri honek, merkatuaren funtzionamenduari oinarritzko aldaketa ekarri dio. Izan ere, herri industrialdu guztietan, korporazio handiez ondasun eta zerbitzuen %50a hornitzen dute gutxi gorabehera. Beraz sistema ekonomikoa bi zatitan banatzen dela esan daiteke. Azpisistema batean, korporazio handi gutxi batzuk daude, bestean enpresa txiki anitz. Ekonomiaren parte handi batean, erdian hain zuzen ere, merkatuaren erregulazio inpersonalak, leku utzi dio korporazioen botere erregulazaitelari. Esate baterako, Estatu Batuetan produkzio pribatu guztiaren erdia bi mila bat korporazioen pean dago eta beste erdia hamar-hamabi milioi enpresa txikiren menpean.)

Beraz, Bigarren Mundu-Gerraren ondotik, ekonomiaren parte handi bat, korporazio ekonomiko handien pean egon da. Korporazio handi horiek gobernuaren zenbait departamentutan eragina daukate korporazioek berek behar eta nahi dutena lortzeko. Harez gero, beraz, gobernuaren politika ekonomikoaren parte handi bat korporazioen beharrezan ispilu besterik ez da izan. Gastu publikoak gero eta handiago bilakatu dira, gastu horien parte handi bat helburu militarretarako zuzenduak diralarik. Hau da gastu *publi-koen* parte handi bat, garapen militarren pean ezarri da, garapen militar horren atzean korporazio handiak daudelarik.

Bigarren Mundu-Gerratik sortutako egoera berria

Bigarren Mundu-Gerratik Estatu Batuak atera ziren munduko botere ekonomiko eta militar dominatzaile eta nagusizat. Europarrek ezin desafia zezaketen botere amerikar hori, are gutxiago alemaniarrek edo japoniarrek. Estatu Batuen nagusitasuna Bretton Woods-eko akordioetan formalizatu zen, non mundu kapitalistaren ekonomiarako arauak ezarri ziren: dolarra errege bilakatu zen, New York-eko Wall Street Mundu-zentrugune finantziarra bihurtu zen, une hartararte City of London delakoak eduki zuen lekua hartuz, Nazioarteko Moneta-Fondoa (International Monetary Fund ingelesez) eta Banku Mundiala White House edo Etxe Zuritik guztiz hurbil, zentzu ekonomikoan noski, zeudelarik.

1950. urteetako azken urteetarako, Estatu Batuetako gobernuak eta korporazio handiek nagusitu zuten merkatal sistema mundu kapitalistan zehar. Aldaketa hau ez zen etorri ezerezetik, Bigarren Mundu-Gerrak berak sortu zuen egitura-aldaketatik baizik. Une hartako Estatu Batuetako ekonomia, kapitalista izanik ere, ez zen, beraren egiturari zegokionez, Lehen Mundu-Gerratik Bigarren Mundu-Gerrarako epean ezagutu zen kapitalismoa bera. Gerra-ondoko sistema korporatibo hau, egoera berrizat hartu behar da. Sistemak barneko koherentzia bat zeukan, Depresio Handira eraman zuen kapitalismo zaharrak ez zeukana, edo honela aurkeztu nahi izan zen behintzat Bretton Woods-en.

Korporazio handia eta inperialismo berria

Enpresa industrialen kontzentrazioa, aspaldiko kontua da. Kontu berria zera da, korporazio berriak lehenagokoak berak ote diren, aldaketaren bat egon ote den eta, baiezkotan, zein neurritan eta zein helburutan.

Korporazioak hornikuntz iturrietara —dela petrolioia zein burdin edo beste edozein lehengai— ailegatu eta beraiek menperatu behar ditu. Horrela kostuak eta hornikuntza, biak, korporazioen esku gelditzen dira. Arazoa beraz, ez datza mozkin handiagoa irabaztean, mozkin segurragoa eta inolako arriskurik gabekoa lortzean baizik. Korporazioa, tamaina handia lortzen duenaren arabera, merkatu-mekanisмотik libratu egiten da. Berak prezioak ezartzeko, bere hornikuntza lortzeko eta produzitzen duena kontsumatzaileei saltzeko, eduki badauka boterea.

Lehenik ezagutu ziren enpresa internazionalak —banku-eragiketak, nazioarteko merkatalgoa finantziatzeko enpresak, zein lehengai-enpresak edo merkatal enpresak berak— eta gaur egungo korporazio internazional modernoak, ezberdinak dira. Lehengo enpresa multinazionalak herri aberats eta pobreen artean aritu ziren batez ere. Gaur egun, aldiz, nazioarteko korporazioak, nahiz eta ez era eksklusiboan, herri garatuen artean aritzen dira batez ere. Korporazio modernoak, saldu behar dituen produktuak ekoizten bait ditu.

Eman dezagun, adibide gisa, korporazio amerikarrei dagokien zenbait zifra:

Estatu Batuak: Kanpoko inbertsio zuzenaren tamaina eta banaketa

Guztira (milioika dolarretan)	1929	1950	1980
Merkatuko banaketa (%)	\$7.528	\$117.888	\$213.468
Kanadan	27	30	21
Europar	18	14	45
Latinamerikan	47	41	18
Asia. Afrika. Ekialde Hurbilean	8	15	16

Goiko koadroan ikus daitekeenez, badago, urteetan zehar egindako Hirugarren Mundutik Lehen Mundurako desplazamendu bat. Hala eta guztiz ere, gauzak ez dira hain sinpleak, zeren mozkinen dagokienean, beheko koadroan ikus daitekeenez, korporazio internazionalak bait dira Hirugarren Mundua zurrupatzen. (Hori dela eta, ez dut ulertzen zero hazkundearen profetak aldarrikatzen ari diren, lehen munduaren abantailak gorde nahian, herri ez-garatuak izugarritzko ezberdintasun hilkor batetan uztea ez bada).

**Inbertsio zuzenak, irabazi osoak (1970-1980)
Barneratuak eta berrinbertituak (lurrez, milioika dolar.)**

	A	B	C	D	E
Guztira	44.009	122.705	97.283	219.988	56
Herri garatuetan	35.399	63.482	71.850	135.332	47
Herri ez-garatuetan	7.992	55.988	23.338	79.326	71
Besteetan	618	3.235	2.095	5.330	61

A: Inbertsio zuzenen isurtze garbia. B: Estatu Batuetara itzulitako mozkinak. C: Irabazi berrinbertituak. D: Irabazi guztiak. E: Estatu Batuetara itzulitako irabazien eta irabazi guztien arteko erlazioa (%).

Koadroan ikus daitekeenez, mozkin handiena lortzen den lurraldeetan ez dago inbertsiorik handiena. (Beraz, Marxen kontrako datua berau). Hala ere, nazio askotako korporazioek, mozkin ederrak ateratzen dituzte Hirugarren Munduko herrialdeetatik. Izan ere, inbertitutako dolar bakoitzeko, 7 dolar baino gehiago itzuli bait ziren Estatu Batuetara hamarkada horretan. (Hirugarren Munduan banku multinazionalak duten eragina beste parada batearako uzten dugu.)

Enpresa handienaren gidabulegokrazia

Inperialismo ekonomikoa, merkatuaren beharrari lotu ohi zaio. Horrela Marxek, kapitalismoa etengabeko salmentak hedatuz ikusi zuen, mundu koloniala helburu horren lehen eskenatokia

izanez. Hala ere, badago ezberdintasun franko Marxek aztertu eta esan zuenetik gaur egun ekonomiak ezagutzen duen egoerara, korporazio handiak, sindikatu handiak eta gobernua bera kausa direla. Marxentzat, enpresa handiaren garapenak kapitalista txikien kontzentrazioa, adierazi nahi zuen, arrazoia, ustiapena eta mozkina izanik —ekonomilari neoklasikoek daukaten eritzia bera, bestalde. Gaur egungo korporazioen garapenaren motibaziorik garrantzitsuenak, haatik, abantaila bulegokratikoak lortzean datza— enpresa erraldoi horien gidabulegokrazientzako boterea alegia.

Zenbait ikertzailek frogatu duenez, korporazio handietan boterea ohizko kapitalistengandik barneko gidabulegokraziara pasatzen da, hots, enpresa erraldoiak bera kudeatzeko behar duen bulegokraziara. Lehen aipatutako kontzentrazio-prozesu horretan, ohizko kapitalisten boterea gutxitu egin da, gidabulegokraziarengana pasatzen da.

Korporazioentzako, tamaina eta hazkundera oso garrantzitsuak dira, zeren eta beraiek gidabulegokraziari ematen bait diote muga gabeko babesa beren helburuak lortzeko. Zenbat eta handiagoa hazkundera, hainbat eta handiagoak irabaziak, eta ez zentzu ekonomikoan bakarrik.

Bigarren Mundu-Gerraz geroztik, nazionalismo ekonomikotik alde egite bat egon da. Horrela, GATT (General Agreement on Tariffs and Trade) edo Arantzel eta Merkataritzari Buruzko Akordio orokorra, ECC (European Economic Community) edo Europako Ekonomi Elkartea, EFTA (European Free Trade Association) edo Europako Truke-Librearen Elkartea sortu dira, eta nazioarteko tarifak desagertzeko ahaleginak egin dira. Saiok, lurralde horietako korporazioen beharrak isladatzen dituzte, ez inolako edo inongo enpresa txikiarenak. (Are gutxiago lurralde horietako herri txikien subirotasunak).

Ohizko nazioarteko merkatalgoan, tarifek, herri baten merkatu-sistema babestu zuten beste herriek zeuzkaten abantailetatik. Inork ez zeukan kanpotiko hornikuntzaren eta berak saltzeko prezioen kontrolirik; tarifa egoki bat izan zen bide bakarra, barneko merkatu-prezioan kanpotiko hornikuntzak ondorio edo eragin txarrik izan ez zezan.

Orain, berriz, enpresa multinazionalaren garapenaz edozein herritara sartzen den kanpoko korporazioak ez ditu prezioak txikitzen. Horrek, bere burua sartzen deneko oreka oligopolistiko babestailea apurtuko luke. Beraren gastuak, sartzen ari den merka-

tuarenak baino txikiagoak baldin badira, bertako enpresek sartzen den korporazioaren nazioan produzi dezakete edo nolabait molda daitezke bertan produzitzeko. Kondizio hauetan, tarifak ez dira gehiago beharrezkoak izango. Oztopo bat bait liren dira korporazioentzako. Halaz ere, nazionalismo ekonomiko berri batek dirau oraindik Estatu Batu, Alemania eta Japoniaren artean gure Mendebalde honetan. (Honek zera adierazten du, kapitalismo moderno, ez dela aurkeztu zen bezain koherentea. Honetaz zerbait gehiago esango dugu geroxeago. Derragun, bide batez, Marxek berak ikusi zuen mundua ikertzeko eta aldarrikatzeko zuen kurria ez dela gaur egun ikusten beraren zenbait jarraitzaileengan, ezen hauek, ortodoxia hilkor bati ezkritikoki lotuak egonik, gaurko egoera ekonomikoa XIX. mendekoa balitz bezala aztertzen bait dute.)

Gainera goiko koadroan ikusi ahal izan dugunez, nazioaniztetako korporazioa atzerrira joaten da, produzitzeko eskulan merkea dagoelako. Honek Singapoore, Taiwan eta Hong Kong-eko garapen industrial modernoaren zerbait adierazten du. Alokairu gutxiagoko kostuekin batera erregulazio gutxiago —poluzio eta kutsadurarengatik— eta zerbitzu publiko eta gizarte-segurantzarako ezarpen gutxiago egoten dira. Halaz ere, garapen multinazionalaren bultzada nagusia, ez da kontsideratu behar eskulan merke baten bila soilik denik. Alokairu urriagoa faktore erabakikorra balitz, Indian egongo litzateke orain produkzio guztia. Merkea den eskulana, trebatu gabekoa da halaber, eta korporazio handiek, gidabulegokraziek zuzenduta, beren produktuak produzitzeko eta saltzeko lanindar trebatua behar dute. (Askotan, hain zuzen ere, Hegoaldea, hots, hirugarren Munduko herrialdeak erabiltzen dira *hardware* delakoa produzitzeko eta Iparraldea, hau da, herri gartuak *software* delakoa ekoizteko).

Nazioaniztetako korporazioak eta beraien beharrak dira, herri garatuen arteko politika ekonomikoarekiko giltza, lehen koadroetan ikusi den bezala. Halaber, beraiek adierazten dituzte herri ez-garatuen protestak, zeren enpresa multinazionalak internazionaltzen bait dute edozein ekonomia modernotan bi sistemen garapen eta errenta desberdinetarako joera. Korporazio multinazionalak herri garatuetan artean aritzen diren bitartean, herri ez-garatuak merkatu-ereduari egokitzen segitzen dute oraindik. Beraz nazioaniztetako korporazio-sistemak egun garatua dagoen eta ez dagoenaren ezberdintasuna handitzen dute. Honela egiturazko desoreka gertatzen da mundu-mailan, non Hirugarren Munduko herriak gero eta atzeratuago dauden (Ikus esaterako, Leontief-ek

mundu-ekonomiari buruz egindako azterketa eta abarrek 1977an: *The Future of World Economy. A United Nations Study*. New York: Oxford University Press.

Nazioaniztetako korporazio modernoarekin, kapitala, teknologia eta lanindar koalifikatua eramaten dira erakundearen barnean. Ahalmen hori muga nazionaletan zehar hedatzen da. Gauza bera gertatzen da kontsumitzaileak bereganatzearekin eta Estatu-tik behar den laguntza lortzearekin. Horrelako botereak ez dagozkie enpresa txikiei eta beraiek funtzionatzen duten merkatu-sistemari.

Armagintzaren ekonomia

Marx-ek aldarrikatu bazuen ere, kapitalismoak ez du porrot egin. Korporazio handiek izugarritzko boterea daukate oraindik. Baina Bigarren Mundu-Gerratik sortu zen egoera berezi hark, beste aldaketa bat ezagutu du, bai Hirugarren Munduan egon diren iraultzak direla kausa, bai lehen munduan bertan egon diren aldaketak direla bide ere. Estatu Batuek ezagutu zuten hazkunde ekonomikoa, gaur egun izugarritzko defizit publikoan eta merkatal defizitean oinarritzen da. Berauek ondorioak dituzte mundu-ekonomian eta ez moneta-trukean bakarrik, baita finantz sisteman bertan ere; azken Wall Street-eko krakadak lekuko.

Gaingiroki bada ere, esan dezagun zerbait armagintzaz eta armagintzaren ekonomiaz, zeren hortxe bait dago egoera berriaren gako. Ikusiko denez, keynesianismo berri hartatik gaurko egoerara, urrats batzuk baino ez dira eman.

Eisenhower presidenteak, militarra bera, gobernua utzi baino lehentxoago, 1961ean hain zuzen, *establishment* edo nagusiteria militar izugarri baten eta arma-industria handi baten bateratzea gauza berri bat zela ekonomia amerikarrean aldarrikatu zuen. Era berean adierazi zuen, konplexu militar-industrial horrekin, guztiz boteretsua eta eraginkorra izanik, kontu handiarekin ibili behar zela handik aurrera. Beraz, kontua ez zen, eta ez da noski, batere txantxetakoa. Izan ere, Estatu Batuetan defentsa-departamentuak, gobernuaren beste departamentu guztiek batera baino jende gehiago enplegatzen du eta ondasun eta zerbitzuak erosteko diru gehiago gastatzen du. Gastu horiek edozein parlamentutatik kanpo

egon dira (eta daude), zeren gastuok, segurtasun nazionalari lotuak bait dira. Eta jakina denez, segurtasun nazionala eta defentsa nazionala dira inon ere ukitu ezin daitezkeen puntuak. Biok puntu sakratu bilakatu dira edonon.

Defentsa nazional baten alde egotea, gaur egun, abertzaletasunaren aldeko adierazgarria da. Jende gutxi jartzen du hori zalan-tzan. Eta defentsa nazional horrek, botere militarren bitartez, gidabulegokrazia berezia sortzen du. Botereak, zientzilari, injine-ru, teknikari eta zenbait langile bereganatzen ditu. Bai eta parla-mentua ere. Era honetan, defentsa-industriak, gobernuan ere sartu egiten dira, Estatu Batuetan kasurik aipagarriena, Pentagonoa delarik.

Botere militar horrek zenbait ezaugarri dauzka. Hala nola:

(a) etsai militar baten beharra: horren mehatxua bide eta arrazoi direla, norberaren boterea handitzen da;

(b) gastu militar izugarriak, mehatxu horren kausaz justifikatzen direnak;

(c) barneko egitura guztiz diziplinatua; eta

(d) informazio-kontrola; etsaiarekiko sekretu militarrek gorde-beharrak, norberaren publikoarekiko ere informazioa debekatu egiten du; horrela armagintzari buruzko edozein eztabaida ere, erreserbatuak gelditzen da.

Ondorioz, hiritarra bazterturik gelditzen da. Gainera, berau baztertze hori onartzera behartuta dago, bai teknologia modernoaren konplexitatearen aldetik —adituen eskutan norberaren arazoak utzirik—, bai eta gobernu eta parlamentuaren aldetik ere. Argudioak adituen artean erabaki behar dira. Beraz, botere militarra ez da mundu zibilean eztabaidatu izan, ez eta kritikatu ere.

Armen diseinua, produkzioa, zaharkitzea eta berriztapena dira armagintzaren gastuetarako zikloa osatzen duten osagaiak. Superbotere bakoitzak gero eta ahalbide suntsitzaila handiagoko armak garatzen ditu. Bi superbotereen konkurrentzia teknologikoak ere, bere eragina dauka armen lehiaketan. Norberaren armen zaharkitzea aurrikusiz, kontrako armen zaharkitzea ekarriko duten armak asmatzen eta garatzen saiatzen da norbera. Aditu-multzo batek dihardu zeregin honetan, injineruak eta zientzilariak barne. (Esate baterako, 1970. hamarkadako azken urteetan milioi erdi bat zientzilari eta injineru aritu ziren.) Dinamika teknologiko hori, jakitun

horien interes ekonomiko, bulegokratiko eta zientifikoek mantentzen dute. Honela, Estatu Batuak aipatzeko, Pentagonoak berak lortu nahi duena Kongresuari jakinerazten dio. (Botere burokratiko horren kontra eta horren garapenaz mintzatu zen Eisenhower presidente eta militarra.)

Botere horretatik datozen gastu ikaragarri guztiak, politika fiskala dela bide, "defentsa nazionala" eta "segurtasun nazionala" ondasun publikotzat harturik, aurrekontu nazionalean sartzen dira, zenbait lekutan, Estatu Batuetan kasu, izugarritzko defizita sortaraziz.

Ekonomiarekiko oinarri keynesiar hori, armen gastu sendoa dakarrelarik ere, ongi ikusia izan da azken urteotan Iparamerikan eta bienbitartean, pobreentzako zerbitzu sozialen gastuak gaizki ikusiak izan dira.

Zenbait ekonomilari inozok, gastu militarrek, ekonomia moderno baten zutabetzat onartzen ditu. Batzuk, helburu zibilen gastuak —osasun-zerbitzuak, etxagintza, jende-garraioak, kontsumo pribatu hobe eta handiagora daraman zerga gutxitzea— antzeko zutabeak direla onartzen dute. Batetik besterako iragapena, gauza erraza izango dela dio zenbait ekonomilarik.

Beste ekonomilariarentzat, aldiz, Paul Samuelson Nobel sariduna kasu (1976. *Economics*. New York: McGraw-Hill, 820-821 orr.), gastu militarrek ez daukate aparteko garrantzirik, zeren gorenko politika nazional bat dela kausa beraiek derigorrezko ez balira, orduan ondorio ekonomiko bera lortuko bait litzateke produktu militarrek erabilera zibiletarako bilakatuz edo eginkizun pribatueterako erabiliz.

Baina litekeen bilakaera hori ez da hain sinplea. Lehen, gastu militarrek sektore publikoa nola handitu duten ikusi dugu. Gainera, konplexu militar-industrialaren atzean, egitura sendoa eta bortitza dago; eskolak, parkeak eta eritetxeak eraikitzeke ez dagoena. Bonba-hegazkin baten atzean korporazio militar eta industrialak dago. Bera sendoa eta baliabideduna da beraren interesak defendatzeko. Etxagintza edo eta osasuna hobetzeko ez dago antzeko botererik, ez eta bi superbotereen arteko antzeko konkurrentzia teknologikorik. Nolabait esateko, hutsune bat baino ez dago gure mendebaldeko gizarteetan. (Jakina denez, inongo merkatu-mekanismok —ez klasikok ez eta neoklasikok ere— ez ditu etxe-, garraio- edo eta osasun-zerbitzuak ongi eta merke hornitzen.)

Armagintzarako korporazioek beren gidabulegokraziak sortu dituzte, izan ere, boterea bait dute beraiek produzitutako merkanztzien prezioak kontrolatzeko. Preziook merkatu-mekanisмотik kanpo daude. Hori ez da gertatzen lehen aipatutako zerbitzu zibiletan, zeren ez bait dago halako boteretik daukan antzeko korporaziorik arlo hauetan. Eta eginkizuna enpresa txikien menpe gertzen da, edo eta gobernuaren zeregin ekonomikoaren menpe.

Beste aldetik, Samuelson-en baieztapen horrek, bi superbote erraldoien, hots, Estatu Batuen eta Sobiet Batasunaren artean dagoen segada edo artea enoratzen du. Eta segada bera mantentzen eta gordetzen duten botere ekonomikoak enorazten ditu, halaber. Ameriketarrentzat sobietarren esistentziak berak justifikatzen ditu defentsa-gastuak. Era berean, Nikita Khrushchev-en idazkietan (1970, *Khrushchev Remembers*. Boston, MA: Little Brown) irakur daitekeenez, Sobietar Batasunean inperialismo amerikarrak justifikatzen ditu armatarako gastuak. Biak, Estatu Batuak eta Sobiet Batasuna segada batean daude.

Zerbitzu armatuek bizi egin nahi dute, bai eta dirua egin ere. Arma-enpresek bizi egin nahi dute, bai eta dirua pilatu ere; horretarako, armak produzitu behar. Egun inork ez du sinesten bi superbote erraldoien artean gatazka armaturik zuzenki egongo denik; biok dakite (eta guztiok dakigu) gatazka horretatik inor ez litzatekeela salbu aterako ezer kontatzeko. Beraz, armagintz teologiak zera sinesterazi nahi digu, armen konkurrentzia, armen lehiaketa, gatazka hura gerta ez dadin derrigorrezko dela. (Halaz guztiz ere, argi dago bi sistemen superbizipena arma-lehiaketaren prozesu hilkorra kontrolatzean datzala).

Arma-lehiaketak —munduan zehar, 1982an, minutuko milioi bat dolar zen— bizimodua suntsitzen du, kontsumotik eta enpresen berriztapenetik kapitala aldenduz. Gainera, behe-rago ikusiko denez, teknologia militar modernoak ez du hainbesteko aplikaziorik teknologia zibilean.

1970.eko hamarkadan, Estatu Batuek Barne-Produktu Osoaren ehuneko 5etik 8ra bitartean gastatu zuten helburu militarretan. Alemaniak 3tik 4era, eta Japoniak ehuneko bat baino gutxiago. Honela aurreratutako kapitala inbertsio zibiletan sartu zen, zeinak orain hain arrakastuki Estatu Batuetako industriari mehatxu egiten dion. (Baina ekonomiaren "osasuna", Barne-Produktu Osoaren (BPO) indizeaz neurtzen bada, beste kontu bat da).

Estatu Batuak eta Sobietar Batasuna dira arma-esportatzailerik handienak. Armak, garatu gabeko herriek eta nazioek erosten dituzte batez ere. Beraz, herri garatu gabeetan, gastu horiek, bizitza standarra altxa dezaketen gastu zibilen kontra daude. Horrela herri garatuetakoa eta garatu gabeetako leizea, handituz doa.

Gainera aurrekontu militarrek ez dira ekonomiaren orekatzailerle. Defizit publikoaren parte handi bat izanik, ondorioz, inflazio handia dakarte — korporazioek gastu handiak prezio handiez merkatu-konkurrentziarik gabe estaliz. Edo inflazioari aurre egiteko, interes-tasa handiez baliatuz, langabezia eta atzerapen ekonomikoa ekartzen dituzte, edo eta, gaur egun ezagutzen dugun egoera, hots, biak, bai inflazioa eta baita langabezia ere.

Gastu militarretiko aurrekontu-defizitak, beraz, inflazioa ekartzen du, edo, inflazioari aurre egiteko interes-tasa handiak eta guztiz atzerakoiak direla bide, atzerapen ekonomikoa. Hauetxek izan dira oraintsu arte ezagututako ziklo ekonomikoak, alegia inflazioa eta segituan, berari kontra egiteko, atzerapen ekonomikoa. Baina gaurko egoera berrian biak ezagutzen dira batera, bai inflazioa eta baita atzerapena eta langabezia ere, zeren eta ohizko politikek — politika fiskalak eta moneta-politikak — inflazioa balaztzen duten izugarritzko langabezia sortaraziz.

Armagintza, sekretu militarrek, inflazioa eta nazionaltzea

Armagintzan ari diren enpresa horien nazionaltzea edo sozialtzea lehen urratsa izango litzateke sekretu militarrek ez gordetze-ko, halako erreserba mota ez edukitzeko, eta dauden ikerketen emaitzak publikoak izateko. Horrela behintzat, ez litzateke egongo, sekretuak direla kausa, bestearen armak zaharkitzea lortzeko inongo norgehiagokarik. Beraz, sekreturik ezak eta argitasunak, lehen ondorio batera garamatzate, armagintzako enpresak nazionaltzera.

Inflazioa geldierazteko moneta-politikak funtzionatzen ez duelako, eskari erantsia edo osoa neurri fiskalen bidez kontrolatzea pentsatu zen.

Teologia ekonomikoak zer dio? Hara. Langabezia baldin bada-ngo, zergak murrizten dira; honek jendea, gastatzeko errenta pribaa-

tu gehiagorekin uzten du, eta ondoriozko eskariak, lanpostu gehiago behar izatea esan nahi du. Edo zergak gehitu gabe gastu publikoak gehitzen dira, eta honela gobernuak ondorio berberarekin eskaria osatzen du. Are gehiago, gobernuak enplegatzen duen jendeak gastatu egiten du eta horrela eginez eskaria ugaltzen du —ondorio biderkatzailea deitzen dena berau—.

Arazoa inflazioa bada, teologiaren arabera alderantzizko politika ezartzen da. Zergak altxatzen dira, eta honek gastu pribatuak murrizten ditu. (Hori edozein moneta-politika baino hobea da, zeren eta zergak kontsumoaren gainean izanik, ekoizkortasuna edo produktibitatea gehitzeko ez bait dira kaltegarri. Eta inbertsioak —interes-indize baxuak direla bide— ekoizkortasuna gehi dezake.) Gastu publikoak murrizten dira eta honek, gobernuak ondasun eta zerbitzu-eskarirako gutxiago laguntzen duela esan nahi du, eskari erantsia gutxitzen duelarik.

Baina, inflazioaren kasuan bagaude, predikatutakoa ez da hain erraz lortuko. Ez bakarrik kontsumo-masen gizarte honetan zergak altxatzea berez zail delako, edo eta gastu publikoak gutxitzea hain erraz ez delako —zeren eta horiek pobreentzako babesa esan nahi bait dute—, baizik eta gaurko egoera ekonomikoa testuliburuetan agertzen dena ez delako. Gaur egun indar boteretsuak ari bait dira ekonomian lehiatzen. Hauetariko bat, indar militarrek dira. (Lehen esan dugunez, gastu militarra gobernu-gastuaren parte handi bat da).

Aurrekontu-defizita, zeretik dator, hazkuntza barik zergak gutxiztetik eta gastu publikoak gastu militarrek batez ere, handiztetik. Murrizt al daiteke gastu militarrik?

Gastu militarrek, korporazio sendoek eta burokrazia boteretsuek defendatzen dituzte. Beraz, politika fiskala erabiltzekotan, beraiek ez dute inoiz pentsatzen murrizteko arazo direnik. Murrizte bat izatekotan edo egitekotan, gastu zibiletan egin behar, baina inoiz ez sakratuak diren defentsa-gastutan. Gehikuntza bai, baina inoiz ez murrizketarik.

Konplexu militar-industrialak, korporazio ekonomiko handien eta gobernuaren arteko sinbiosia esan nahi du. (Esaterako, Estatu Batuetako aireindarrak eduki nahi lituzkeen arma-sistemak —hegazkinak, misilak, gidaketa-aparailuak— arma-enpresa handiei ezaguterazten dizkiete. Plazer berberaz arma-enpresek aireindarrak nahi dituen armak diseinatu eta produzitu egiten dituzte. Ia

erlazio perfektua. Gainera, Pentagonoaren eta arma-enpresa horien zuzendaritzaren edo gidaburokraziaren artean etengabeko jende-trukaketa dago.

Arma-enpresa handi horiek nazionaltzeko, lehen aipatu dugunaz gainera, egon badago beste arrazoi garrantzitsu bat. Beraiek gobernutik lortzen dute beren negozioa, gobernuak emandako kapital publikoaz aritzen bait dira zabalkiro. Beraien mozkinak bakarrik daude sektore pribatuan. Publiko bihurturik baleude, ez lirateke gehiago enpresa pribatu baten fikzio pean ariko, eta arakapen publikotik puntu gehienetan libre izango lirateke. Egoera guztia behintzat ikuskor izango litzateke eta enpresa pribatu horien presio-taldeak mugatuta egongo lirateke.

Beharrezkoa da defentsa-helburuko gastuak jendeak zuzenki eta erabat kontrolatzea, zeren onartezina bait da mozkin pribatuen aginduek kontratu inflazionista horietara eramatea, gastu ikaragarri horietara, erabilera gabeko teknologia horretara eta bizitzarako gero eta arriskutsuago den egoera horretara.

Gastu militarretan bidegabekeriak gutxitzeko, produkzio militar guztiak, jendearen kontrol pean egon behar du. Gainera, mozkinak ez lirateke lortu behar produkzio militar zuzenaren bidez. Zeren, jende gutxi onartzen bait du edozein zerbitzu publikoren-gatik mozkinak lortu behar direlakoa. Produkzio militarren gaineko kontrol publikoaren logika gauza bera da. Arazoa guztiz garrantzitsua denez, nazioarteko politika berezi bat eskatzen du. Hala nola armen egiaztapena eta kontrola. Bai eta armen murrizketa ere eta dagoen iparralde/hegoalde arteko ezberdintasun izugarri hau apurtuko lukeen beste nazioarteko ordenu ekonomiko berri bat ere.

Beste aldetik defentsa-gastuek ekonomia modernoaren botere produktiboarekiko laguntza izan barik, kontrako efektua daukate. Alemaniak eta Japoniak, Estatu Batuak baino aurreratuago daude beraien produkzio zibiletan, bien hala biek ere azken urteotan makineria eta teknologia zaharra berriztatu dituztelako, ameriketarrek kapitala helburu militarretarako erabili duten bitartean. (Lehen esan dugunez, arma-gastuak axolagabekoak dira efizientziarekiko. Zeren, beraien parte handi bat ez bait dago merkatu-konkurrentzi mailan eta gatuak gainestaldiak bait dira. Armen kontua, beste aldetik, ez da txantxetakoa; Estatu Batuetan, kasu, aurrekontu federalaren erdia).

Armagintza: mundu-arriskurik handiena

Gastu militarra, botere ekonomiko eta korporatiboaren modu bat baino ez dela ikusi dugu. Lehentxoago esan dugun bezala, Dwight D. Eisenhower izan zen konplexu militar-industrial konzeptua sortu zuena eta botere horretaz adi egoteko aldarrikatu zuen lehena.

Bi superbotereen arma-lehiaketa eta lasterketa, kritikoa da eta potentzialki suntsitzaila. Behin kontrastaketa ideologikotzat hartu edo ikusi zena, gaur egun tranpa eskalatzailatzat ikusi behar da. Ez hori bakarrik, zeren gainera, gastu militarrek, kontsumo zibilarren kontra bait daude.

Beraz, beharrezkoa da gurpilzoro hori nolabait apurtzea. Nahiz eta botere militarrek eta korporazioak elkarre sinbiotikoan bizi eta lan egin, ez dira ahalguztidun. Herri-boterea mobilizatu beharra dago arma-industriak geldierazteko, beharrian zibilak betetzeko, eta hortik ateratako kapitalak herri pobreetan produkzioa gehitzeko ere.

Geure beharrianak betetzeko zientzia eta teknologia behar ditugu. Gu ez gara berorien kontrakoak. Baina biak, zientzia eta teknologia, ez daude prozesu sozialetik kanpo. Zientzia sozialak, ekonomi zientzia barne, are gutxiago. Ekonomi zientzia definitzean, merkatuaren indar inpersonalez aritzen bada, orduan zientzi mota hori zaharkiturik dagoela esan behar da. Izan ere indar inpersonalen orde, gaur egun, korporazioak, sindikatu handiak eta gobernua bera —eragile ekonomiko bezala— agertzen bait dira. Are gehiago, ikusi dugunez, sinbiosi ia perfektua dago korporazio batzuren eta gobernuaren zenbait departamenturen artean. Guztiau aztertu behar da inflazioaren kausak arakatzeko eta bera kontrolatzeko neurriak hartzerakoan. (Hori egiteko, dena den, beste saio bat behar genuke; gaurko honetan hartu behar diren zenbait neurri beharrezko ikusi eta ukitu ditugu soil-soilik. Egoera berri honi irtenbide bat emateko, ikus *Larrun 6* zenbakian, *Langa-bezia eta inflazioaren kontrako zenbait neurri beharrezko*.)

Arma-lehiaketak mantentzen duen azken argudioa zera da, sistema ekonomiko, sozial eta politikoa defendatzen duelako bi superbotereenganako sinesmena hain zuzen ere. Onartu behar dugu halere, arma-lasterketa ez dela, inola ere ez, inongo eta ezelako salbatzaile. Arma-lehiaketa barik, armen kontrola behar da eta ez

bi superbote horiengan, bakarrik baizik eta baita beste herriengan ere. Kontrolak egon behar dute arma nuklearren produkzio eta garapenaren gainean, beraiek murrizteko eta azken batetan deusezteko. Hauxe da gaur egungo herri guztietako kezkarik larriena. Militarrek nola kontrola daitezkeen da egungo benetako arazoa.

Gaur egun munduak ezagutzen duen arriskurik handiena, bote militarretik dator. Berorrek mehatxatzen du ez bakarrik prozesu zibilen garapena jendearen beharrezan bete gabe utzita, baizik eta baita gizonaren munduko existentzia bera ere. Militarrek kontrolpean egon behar dute nonnahi. Jendeak parte hartu behar du eginkizun horretan. Beraz, enpresa militarren nazionaltzea dugu lehen eginkizuna. Ez bakarria, zeren arriskua ez bait da desagertzeko beraiek nazionaltzearekin. Teknologia bikoitza izanik, onerako eta txarrerako erabil daiteke. Beraz enpresa militarren nazionaltzea berez ez da aski. (Kasurik aipagarriena Hitler litzateke). Hurrengo urratsa armagintzaren beraren kontrola izan liteke. Baita berori gutxitzea ere.

Beraz, ez dugu ulertzen zergatik, Europak, edo hobeki esanda Europako Ekonomi Elkartek (EEE), zenbaiten ustez, egun bere burua zertarako armatu behar duen. Armagintza hori, EEEko enpresa militar erraldoiek hori berori nahi dutelako bakarrik uler daiteke. Edo eta Estatu Batuetako teknologia militarreko enpresak —zenbaitzu “teknologia berriak” barnean dauzkatenak— hori saldu nahi dutelako. Gure ustez, armagintza berri hori ere geldierazi egin behar da. Armen negozioa moztu egin behar da. Mozketa honek, ez du ekarriko ekonomian atzerapen edo krisialdirik. Aitzitik, hortik ateratako kapitala, beste zenbait arazo sozialetan inberti liteke. Ez dezala inongo inozok esan, honela lanpostu gehiago sortuko dela. Ez eta bi superbote erraldoiei kontra egiteko pesteren bat behar dugula —txinarrek behin aldarrikatu zuten bezala—. Nahikoa kapital-botatze badugu armagintzan gaur, beste kapital-isurtze bat izan gabe ere.

Armagintza eta Hirugarren Mundua

Leontief eta Duchin-en arabera (1983, *Military Spending*. New York: Oxford University Press), munduan zehar produkzitutako ondasun eta zerbitzu guztietatik, %6 erabilera militarretara zuzen-

tzen da. Zenbait ekonomilarik, ikerketa militarretatik datozen emaitzek ekonomia zibilarri pentsatzen dute on egin diezaioketela. Baina bi autore horiek esaten dutenez, gauza bera esan daiteke beste ikerkuntza zibil batzuk egingo balira aterako liratekeen emaitzez.

Leontief eta Duchin-ek ekonomia militarretik zibilerako iragapen-arazoa ikertu dute, zeren ez baita posible bapatean helburu militarrei zuzendutako baliabideak libreki eta supituki helburu zibiletara zuzentzea. Gaur dauden gastu militarrek gutxitzeek ekonomiaren beste sektoreetan murrizte bat ekar ez dezaten, botilalepoak gerta ez daitezen, zenbait eskenatoki estudiatu dute input-output taulak erabiliz.

Honela, 2000.urterarte, gaurko salerosketa militarretako joera gutxitzen bada, munduko ekonomian ondorio eragingarri positiboa izango du horrek, bereziki oinarrizko kontsumo-ondasunak produkzitzen dituzten sektoreetan lanpostuak sortuz. Gainera herri garatu gabeetan agertzen da, batez ere, produkzio eta kontsumoaren hobekuntza hori. Izan ere, "gastu militarrek handitzen direnean, kontsumo-ondasunak eta zerbitzuak dira gehien gutxitzen direnak" (Leontief eta Duchin 1983, 6.kapitulua).

Une honetan produktu militarren produkzioa, herri garatuei dagokie. Leontief eta Duchin-en ustez (1983, lehen kapituluan), "nazioarteko merkatalgoa dela eta, herri garatu oso gutxi batzuk produkzitutako ondasun militarrek, munduan zehar hedatzen dira. Merkatalgo horren ondorio zuzena nazioarteko erosteko ahalmenaren birbanaketa da, zeinak gutxien garaturik dauden lurraldeei, negatiboki eragiten dien". Autoreon ustez, herri garatu gabeetan, nahiz eta laguntza ekonomikoa izan eta beraien gastu militarrek murriztu, herri garatuen eta garatu gabeen arteko leizea "ia ez litzateke murriztuko." Leize hura gutxitzeko herri garatu gabeetan egitura sozialen aldaketa beharko litzatekeela diote autoreok.

Beraz, zera esan daiteke, alegia, arma-lehiaketak, arriskurik handiena izatetik kanpo, herri garatuen eta garatu gabeen artean dagoen izugarrizko ezberdintasuna handitu egiten duela objektiboki.

J. T.-A.

Sindikalismoaren egungo arazoak

Andoni Kaiero Uria

Sarrera historikoa

Industrialtzeak ezarri zien egoerari, lehen erantzun gisa, zenbait hamarkadatan unean uneko ekintzak mugimendu lokal eze-gonkor moduan eginez pasa ondoren, Britainia Haundiko ofizio-ko langilerik kualifikatuenek antolatu zituzten lehenengo sindikatuak joan zen mendearen erdi aldera; ekonomia industrial britainiarra jadanik halako egonkortasun- eta heldutasun-maila batera iritsia zenean alegia. Lehenengo sindikatuen ezaugarria, lortu nahi zuten helburuarekiko antolamendu disziplinatua eta pragmatikoak izatea izan zen; lana kolektiboki harik eta baldintzarik onenetan saltzea, greba, bere legeztapena lortu ondoren, adieraz-pidetzat erabiliz. Horrek esplikatzen du noski, Webb senar-emazteek, sindikalismoaren lehenengo teorikoek, sindikatuak lan-car-tel-ak bezala definitzea, hau da, lana elkarturik baldintza onenetan saltzeko antolamendua¹. Areago oraindik, mende-hasieran sindikatu britainiarrek alderdi laborista sortu zutenean ere, Parla-men-tuan bere iharduera librearen aurkako legeak onestea eragozteaz aparteko zereginik ez zioten izendatu.

Ofizio edo lanbidekako antolakuntza izan zen lehenik industrialdu ziren herrialdeetako sindikatuek hasi zutena, pragmatismoa beren ihardueraren ezaugarri izanik, nahiz eta azkeneko hau, era desberdinean gertatu herrialde desberdinen arabera. Edozein modutan ere, langilearen defentsa ekonomikoa, sindikalismoaren ezaugarri naturaletako bat bezala geldituko da, aurrerago, jarrera pragmatiko honen eta gizartean orokorki klase-antolamendu bezala jokatzera eramaten duenaren artean, tentsioa sortuz. Leninek, 1905ean, bere "Zer egin" idazlanean langile-klasearen estrategia eztabaidatzean, sindikatuek beren aldetik, "tradeunionismorako" joera naturala dutela konstatatzen abiatzen zen hots, erreibindikazio ekonomikoetan gelditzeko, beren ustiapenaren funtsa antzeman eta beren misio historikoaren kontzientzia hartzera iritsi gabe. Horregatik aldarrikatzen zuen alderdiko elite intelektuala sindikatua zen masa-antolamenduan sartzea. Geroago, Stalinek, zehaztu egin zuen ideia hori, "sindikatua alderdiaren uhal eragile" izeneko antolakuntz formula ezagunaren bidez.

Makineri modernoa hedatzean eta industrian serieko ekoizpena zabaltzean planteiatu zitzaion sindikalismoari lehenengo erronka garrantzitsua, ezen ofizioko langileak, beren laneko autonomia galduz joan bait ziren. Sindikalismoak orduan, berregituratu egin behar izan zuen. Kualifikazio gabeko langile-masari harrera egiteko eta printzipio industrialaren arabera antolatzeko hau da, industri mota bereko langileak sindikatu edo federazioetan taldekatuz, beren kualifikazioa edo lanbidea zena zelarik ere. Antolamendua hau onartzea, gaur egun oraindik ere nagusi dena, traumatikoa izan zen Estatu Batuetan, ezen ohizko A.F.L. Konfederazioko sindikatuak aldetari aurka egitean, C.I.O. Konfederazio lehiakidea sortu bait zen 1935ean harik eta 1956an bien bateratzea gertatu zen arte. Britainia Handian aldiz, trantsizioa geldi-geldi eta traumarik gabe egin zen.

Eraldaketa honekin hasten da, Serge Mallet-en eritziz, sindikalismoaren burokratizate- eta politizate-prozesualdia². Baina politizateari dagokionean, Europako sindikatu kontinentaletan gertatu zen nagusiki. Industrialtzean egindako sarrera berankorra zela eta langile-klaseak zuen ahuleriarengatik eta errepresioaren gogortasunarengatik, langile-klasea, iraultza-aldi sonatuen protagonista izan zen Frantzia eta anarkismoak, bere bertsio pudhomdarrarekin busti zuen sindikalismoa. Gauza beretsua gertatu zen Italian eta Espainian ere. Hiru herrialde horietan, industrialtze eskasa, langile-klasearen ahulezia eta botere absolutista elkartu ziren eta

honek esplikatzen du oposizio-sindikalismoa praktikatu izana, anarkismoaren eragin indartsuarekin eta neurri txikiagoan marxista, bigarren mundu-gerraterarte. Alemanian, sindikalismoa botere edo errepresioarekin aroen arabera elkarbizitzak esplikatzen ditu, gutxiengoaren egintza iraultzaileak.

Sindikatuak II. Mundu-Gerratearen ondoren

Europa Kontinentaleko herrialdeetako sindikalismoen egungo ezaugarriak ordea, bigarren mundu-gerratearen ondorengo berantolaketatik datoz, ezen herrialde guztietan gertatu bait zen demokraziaren etena faxismoaren ezarpenarengatik (Alemania, Italia) edo okupazioarengatik (Frantzia, Austria). Britainia Handiko, Suediako, eta Estatu Batuetako sindikalismoak, garrantzitsuenak aipatzearen, ez ziren gerra handiak erasanak gertatu.

Alemania Federalean, D.G.B. 1947-49an eratu zen, batasun-, neutraltasun ideologiko eta independentzi printzipiopean, hamaazpi sindikatu edo federaziotan sindikatoek konfederazioan autonomia handia mantenduz.

Alemanian, de facto dago batasun sindikala, ezen bederatzita milioi terdi afiliatutatik (soldatapeko populazioaren %43a) ia zortzi milioi D.G.B.koak bait dira, sindikalismo katolikoaren presentzia (C.G.D.k 245.000 afiliatu) testimonial hutsa izanik. Hala ere, sindikalismo alemaniarraren izaera nagusiki industrial delako bide, —sindikatuak batez ere enpresa industrialetako langileak antolatu eta babesten bait dituzte— era independentean beste funtzionario-sindikatu bat eratu da (D.B.B., 820.000 afiliaturekin) eta enplegatuen beste bat (D.A.G., 480.000 afiliaturekin). Beste horrenbeste gertatzen da Suedian ere, han ere sindikatuak izaera berbera nabari dute eta.

Austrian, sindikalismoak, alemaniakoaren bideak jarraitu zituen, baina berorrenan, herrialde hartako antolamendu politikoa-
rangan orokorki gertatu zen bezalaxe, okupazio alemaniarraren esperientziak eragin bortitza izan zuen, kanpoko mehatxuaren aurrean herrialdearen batasunerantz gidatuz. O.G.B.n korrante desberdinak bizi dira elkarrekin —eskuineko alderdi herrikoia ere presente bait dago—, eta herritik bertatik erakundeturik ezarritako

lan-harremanen sistema austriarra neokorporatibista akabatuaren eredu bezala agertzen da.

Frantzia eta Italian, faxismoaren aurkako borroka amankomunaren ahaleginetik ondorioztatutako batasun-giroa egon zen eta geroago herrialdeen berreraikuntzan ere berdin, gerra oste hurbi-lean. Baina, nazioarteko "gerla hotz" egoerak, zatiketak ezarri zituen, sindikatu historikoetatik (C.G.T. Frantzia eta C.G.I.L. Italian), orain komunistek menperatuak direnak hain zuzen ere, norabide sozialistako sindikatuak eratuz. Sindikatu Kristauak berrerratu egin ziren eta gehigarri gisa, C.F.T.C. sindikatutik, C.F.D.T. berezi zen Frantzia 1964ean, autogestiozko norabidearekin.

Italian, 1969ko udazken beroaren ondorioz, batasuneranzko urratsak eman ziren, baina krisi ekonomikoak berriz ere diferentziak sustatu ditu. Frantzia, norabide ideologikoak zirela bide apartatutako sindikatuaz gainera, bi sindikatu sektorial sortu ziren etena gertatu zen unean: C.G.C. koadro-sindikatu 1944ean eta F.E.N. irakaskuntza publikoko sindikatu 1948an.

Egiaztatuta dago noski, batasun sindikalak afiliazioa sustatzen duela eta zatiketak berriz sindikatze-tasen beherakada. Elementu honekin batera, H. Clegg-ek, "negoziatio kolektiboaren sakontasuna" seinalatzen du (hitzarmenek hartzen dituzten langile-kopuruak eta beraien edukinen aberastasuna) sindikazioaren beste faktore erabakitzaile bat bezala³. Frantziak, bi faktoreak biltzen ditu, ezen negoziatio kolektiboaren txirotasuna da herrialde horretako lan-harremanen beste xehetasunetako bat eta ondorioz Europako sindikazio-tasarik txikiena eskaintzen du (%12 eta 16 artekoa 1985ean, Lan-Ministraritzaren estimazioen arabera) Espainiarekin batera. Horregatik bada, Frantziak, Europako sindikalismorik ahulena dauka, Espainiarekin batera noski. Sindikalismo italiarrak ordea, sindikazio-tasa handia dauka (%45,5 1983an), Alemania eta Britainia Handikoaren antzekoa, sindikalismo batua dagoen herrialdeetako hain zuzen ere. Hau, zerak esplikatzeko, alegia, herrialde honetan aniztasun sindikala baldin badago ere, sindikatuek ia beti batuta edo elkartuta iharduteak eta negoziatioa maila guztietan eraginkorki praktikatzeko. Edozein modutan ere, Italian ere sindikazioa igo egin da batasun-aldietan eta jaitsi diferentziak nabarmentzean.

Kontrol-sindikalismoa eta herri europarretan duen orientazioa

Mendebaldeko sindikatuen ihardunak, gaur egun, "kontrolko sindikalismo-era" onartzen du, maila eta moduzko diferentziak gorabehera. Ia bigarren mundu-gerraterarte, kontinente europarreko herrialdeetan, sindikatuak, hein handi batean beren ahuleziarengatik, ez dira gizartean aitortuak gertatu, eta beraz kexu eta matxinada bidez eragina lortzea beste biderik ez zaie gelditu. Sindikatuak orduan, oposizioko sindikalismoa praktikatu dute, non iharduera praktikoa eta gizartearen errefusaketaren arteko tentsioa, errefusaketaren alde ebatziz, lorpen zehatzak iristeko aurkitzen zituzten zailtasunak zirela bide eta beste ondorio bat berriz, ameskeriazko gizartearen idelizazioa izan zen.

Egungo gizarteetan ordea, sindikatu handiek, antolatu eta gizarte-aitormena eskuratu ahal izan dute, era horretan enpleguaren geroz eta kontrolgintza handiagoa eramanez, horretarako tresna bezala, negoziazio kolektiboa erabiliz. Gizarte hauetan, sindikatuak autonomiarantzko joera garbia dutela dirudi, edo eta A. Touraine eta B. Mottez tipologiaren autoreek deskribatzen duten bezala, beren "politizazio apolitikoa", hots, "gizarte-arazoaren osagai politiko eta ekonomikoen sentimendu hazkorra, indar politikoaren eta doktrina ideologikoen jokotik at mantentzeko borondateari"⁴.

Hala ere ordea, kontrolko sindikalismo-mota ideal honek, forma desberdinak hartu ditu herrialde desberdinetan, lekuan lekuko usuario politiko, egitura ekonomiko eta nagusi diren baloresistemen arabera.

Sindikalismo britainiarren ideologia, idealismo sozialista eta pragmatismoaren arteko nahasketa bezala definitu izan da, baina pragmatismoa nagusituta, ezen Alderdi Laboristarekin duen harremana gorabehera, negoziazio kolektiboan duen konfidantza bait da sindikalismo britainiarren ezaugarri den datua⁵. Bestalde, negoziazio kolektiboa enplegua erregulatzeko metodo bezala erabiltzea, sindikatu eta ugazaba-elkarteen autonomiarekin eta estatuaren abstentzionismoarekin, enpresarigoak ere egungo krisia arte ontzat hartu du, lan-harremanetarako sistema britainiarrean usuariozko ezaugarri bilakatuz. Negoziazio gatazkatsu honetan izandako konfidantzarangatik, sindikatu britainiarrek errefusatu egin dituzte enpresen kudeaketan eskuhartzeko proposamenak.

Sindikatu alemaniarrek, 1963az geroztik esplizitoki, abandonatu egin dute ekonomiaren sozializazioa helburu legez hartzea eta beren agintzak, demokrazia ekonomikoa lortzerat zuzendu dituzte, hori lortzeko, alderdi sozialdemokratarekin dituzten harremanak baloratzen dituzte, negoziazio kolektiboaren tresna erabiltzen dute eta parekide kogestio edo elkarkudeaketaren hedadura eskatu dute herrialde hartako enpresa handi guztietarako. 1966ko Kongresu Konfederalean, sindikatu frantziar eta italiarrekiko desberdintzat jotzen zuten beren orientazioa, zeintzuk "langileen esku-bideen berdintasunagatik borroka, klase-borrokaren eremura dararamaten, aurrez aurreko gatazka eta kapitalismoaren ezabaketa bilatuz", baina baita "merkatal" sindikatu amerikarrenengatik ere, hauek "indarrean dagoen egitura sozio-ekonomikoa onartu egiten bait dute, lanaren prezioa igotzen saiaturaz"⁶. Enpresetako kogestio edo elkarkudeaketa edo elkarrerabakitzea Alemania Federaleko lan-harremanen desberdintasun-arloetako bat da, baina berori sartzea ezin daiteke berezi, herrialde hartan nazismoaren porrotaren ondoren sortutako egoeratik, izan ere, hura lagundu bait zuen ugazaberia handiak eta J. Schregle-k dioen bezala, baloreen eskala nazionaletik ere ezin berezi, non "ordenak eta agintaritzak nahiz egokitzapen eta barneraketa edo integrazioak, leku goitua betetzen duten"⁷. Azkenaldian, sindikalismo alemaniarraren barruko gutxiengo baten korrante batek, sindikatuen orientazioa kritikatzeko du, langile-klase industrialean hobekien kokatutako estratokoak bakarrik antolatu eta ordezkatzeko akusatuz, ekonomiaren aurrerapenaz baliatu dela eta; horrek esplikaturako lukeela dio bere lan-harremanen sitemak duen harmonia⁸.

Sindikatuak beren independentzia gorde arren, alderdi sozialdemokraten jarduna, sindikatu germaniar eta ipartarren nondik norakoa esplikatzeko faktore erabakitzailea izan dela uste dut. Bigarren mundu-gerrateaz geroztik Alemania Federalean eta agian lehenagotik ere bai Britainia Handian eta Suedian, alderdi hauek, bai gobernutik edo eta baita oposiziotik ere beren gizarte-eragina dela bide, gizarte-berdinketako ihardun garrantzitsuak egin dituzte "Welfare state" delakoa hedatuz eta honek, zentzu formalean, despolitizatu egin du iharduera sindikala. Suediak, ugazaberia irekiarekin eta alderdi sozialdemokratak denbora luzean boterea edukit duelarik, sindikatu, ugazaberia eta gobernuaren arteko elkarte-eredu akabatu eta negoziazioan oinarritua eskaintzen du.

Frantzia ordea, negoziazioan oinarritutako lan-harremanak gutxien garatuta dauden herrialde europarra da. Sindikatuen min-

tzakiderik gogozkoena gobernua da eta ez ugazaberi antolamenduak, nola batzuk hala besteek ere, "presio politikozko" iharduna praktikatuz. Anarkosindikalismoaren eragina eta sindikatuen ahulezia aipatu ohi dira esplikaziotzat, baina F. Sellier-ek garrantzi handiagoa damaio ugazaberiaren elkarreak berandu garatzeari eta sindikatuak onartzeko berorien ukoari⁹. Gobernu sozialistak hartu dituen legezko neurriek (Aurox Legeak, 1982) ez dirudi egoera aldatu dutenik, beraz, Frantzia, gizarte-eztanda gerta daiteke edozein unetan, jendearen deskontentamendua metatzen doan heinean.

Italian, Frantzia bezalaxe, sindikalismoaren ideologizazio-maila handia da eta bi herrialdeetan ere harreman estua dago indarririk gehieneko sindikatuaren eta alderdi komunistaren artean, baina Italiak, alderdi komunista eboluziotua du, ez ordea Frantziak. Italian, sindikatuak presio egiten diete botere publikoei baina akordiotara iristen dira eta negoziazioa maila guztietan praktikatzen da, enpresatik hasi eta estatuko adarren mailataraino alegia.

Sindikalisaren gaur egungo arazoak

Aurreko orrialdeak, ondorengo honetatik abiatzen dira, alegia, sindikatuak ezin litezkeela aztertu, aldi berean, beroriek diharduten lan-harremanen sistemak aztertu gabe eta besteren artean, herrialde desberdinetako sindikalismo eta lan-harremanak, historia, egitura politiko-ekonomikoa eta balore partikular batzuz eratuak izan direla erakusten dutela.

Beraz, sindikalismoaren egungo arazoak tratatzerakoan, ezin daitezke ahantz diferentziak, erronka berriei ekiteko sindikatu batzuk beste batzuk baino hobeto kokatuta egoteagatik besterik ez bada ere. Hala ere, badaude elementu komunak ere eta ekonomia nahiz laneko aldaketek adibidez, neurri desberdinetan izan arren, mendebaldeko herrialde guztiak afektatzen dituzte eta horrek, egungo sindikalismoaren erronkei osotasunean ekiteko aukera ematen du.

Nolanahi ere, gaia ez da berria, izan ere, Frantzia eta Britainia Haundian¹⁰ tratatu bait zen hirurogeigarren hamarkadan, baina azken urteotan, krisi ekonomikoarekin, protagonismoa hartu du, nahiz eta planteiamendu batzuk interesatuak direla esan beharra

egon, mendebaldean azken urteotan nagusi den pentsamolde neokontserbadoreak aidatuak izan diren heinean. Beste orokorrago batzuk, ezkerren krisiarekin erlaziotuta daude.

Sindikalismoa eta krisi ekonomikoa

Zein zentzu eta neurritan afektatu du egungo krisi ekonomikoak sindikalismoa? Lehenik, krisiarekin, sindikalismoa defentsiban dago, ezkerre orokorki dagoen bezalaxe; alderantziz, krisiak indartu egin ditu eskuin neokontserbadorearen posizioak eta hori mendebaldeko estatu gehienek gobernu kontserbadoreak edukitzeak egiaztatzen du. Ideia neoliberalen zabalkundea, nabaria da giro intelektual eta sozialean: postmodernitatea konpromezuaren orde, bizitza pribatua ekintzaren orde; bikaintasuna berdintasunaren orde; metaketa pribatua gizarte-gastuaren orde. Ugazaberi antolamenduak egun, beren baliabideen zati handia, eritzi publikoan eragina izateko inbertitzen ari dira¹¹. Britainia Haundian, botere sindikala zulatzeke erabili da egoera, gobernuak sindikalismoaren barneko gaietan eskua sartuz nahiz eta estatu hartan horretan gutxi ohitua egon. Hala ere, André Malraux-k adierazten zuen eran, bizitza pribaturanzko grina uneak eta konpromezu edo ekintza uneak, bata bestearen atzetik datoz historian. Kontinente-ko sindikalismoari dagokionez, sindikatuek, izen ona izan zuten gizarte gerra handiaren ondorengo urteetan, faxismoen aurkako borrokan izandako partaidetzarengatik; gero ordea, berrogeita-margarreneko hamarkadan, berreraikuntza-garaietan, murriztu egin zen beren eragina etenak gertatzearekin batera, baina hirurogeigarreneko hamarkadan, oparotasun ekonomikoarekin izen ona eta boterea berreskuratu zituzten berriro; azkenik ordea, koartelertara erretiratu dira oraingo krisiarekin¹². Ikuspegi honen arabera, ahultze hau, arazo sakonagorik ez bada, pasakorra izan liteke.

Sindikatzeta-sasak, zertxobait jaitsi egin dira krisi ekonomikoarekin, herrialde europar gehienetan. Hala ere jaitsiera hau, sindikazioan eragina duten eta lehen seinatu ditugun bi faktore erengon krisiak eragindako ondorio kaltegarriari zor zaie ziurraski (sindikalgintzaren batasun/zatiketa eta negoziazio kolektiboaren santon-tasuna). Krisiak sustatu egin ditu zatiketak. Italian, hirurogeigarren hamarkadan batasun-bidean emandako urratsak eten egin dira, krisiari eta inflazioari aurre egiteko gobernuak egindako proposamenen aurrean sindikatuek onartutako jarrera desberdinegarri. Krisiak orokorki, langile-talde batzuren joera korporati-

bistak indartu ditu. Negoziazio kolektiboan, gobernu/ugazaberia elkarketak, soldaten eros-ahalmenaren murriztapena ezarri du 1980tik 1985erako inflazio handiko urteetan. Sindikatuek ezin izan diote aurre egin politika honi eta erreibindikazioak beste gai batzutara lerratu dituzte, hala nola lanaldiaren arlora. 1986tik aurrera, soldatek inflazio-tasak gainditu egin dituzte inflazioa gaintutia izan den herrialdeetan. Krisi ekonomikoak ordea, ez ditu aldatu lan-harremanetako moduak. Enpresan eskuhartzeko erak eta negoziazio-mailak mantendu egin dira. J.D. Reynaud-ek dioen bezala, berria, osotasuneko politika-gaiek hartu duten lehentasuna da, gobernuek lan-harremanetan eskua sartuz¹³. Italian, eta ez arazorik gabe, izan da sindikatuen gobernu-politikarekiko elkartzasun bat, baina E.E.E.ko gainerako estatuetan ez da kontzertaziorik izan eta Gobernuen soldata-politika negoziazio kolektibo normalen arloetan, ezarri da Gobernuak berak sektore publikoko negoziazioetan ildoa markatuz eta gero, atzetik ugazaberiak sektore pribatuan bide hori jarraituz. Britainia Handian ere, politika neoliberala urrunen eraman den lekuan, ez dira aldatu ohizko negoziazio-mailak eta soldaten batezbestekoak ez du galdu eros-ahalmenik. Hala ere ordea, Gobernuak sustatutako enpresetako harremanen norbanakoitze-praktikak, soldata-arloa zabaltzea ekarri du, diferentziak handituz. Zifra ofizialen arabera, 1979tik 1985era, ordaintzen mailarik goituenetan kokatuta daudenen benetako soldatek, %23ko gorakadak izan zituzten, mailarik apalenetakoek aldiz %3,5ekoak baino izan ez dituztenean.

Krisi ekonomikoak, beren neurriengatik berriak diren bi elementu ekarri ditu lan-harremanetara: langabezi-tasa altuak eta behinbehineko lanaren hedadura, denboraldiko lan edo lanaldi partzialeko lan moduan. Sindikalismoak, bigarren mundu-gerrateaz geroztik, enplegu osoko egoeran eta lanpostu finkoaren aurrealdintzadun kasuan ihardun duen bitartean, bi elementu hauek, egungo arazo dira eta egiturazko ere izan daitezke beren iraupen (langabezia) eta hedaturaren (behinbehineko lana) arabera.

Desenpleguaren egungo neurriak, krisi ekonomikoan du bere sustraia, baina demografiarekin eta giza-lana ordezkatzen duten teknologia berrien sarrerarekin ere badu zerikusirik. Lehenengo bi aldagaiak, etorkizunean langabezia gutxitzeaz mintzo dira, baina lanean teknologia berriak sartzeak, gizarteko lana etengabe murriztea dakar gizarte garatuetan. Langabezi arazoaren aurrean, sindikatuen estrategia, puntu honetan Sindikatuen Konfederazio Eu-

roparrak batuta (IV. Kongresuko Ebazpena. La Haya 1982), enplegua dutenen lanaldiaren murrizketa galera ekonomikorik gabe erreibindikatzekoa izan da. Erreibindikazio honek, emaitza desberdinak lortu ditu estatu deberdinetan eta kasu batzuetan, Alemanian bezala, jarrera korporatibistak erne erazi ditu talde batzuringan.

Behinbehineko lanari dagokionez, sindikatuen jarrera, beroreen hedaturari aurrez aurre aurka egitekoa izan da. Hala ere ordea, enpresalgoaren interesetatik harago, behinbehineko lanak, neurri batean bederen, ekonomiako eta teknologiako aldatetekin erlaziotuta dagoela dirudi.

Sindikalismoa eta langile-klasearen aldakuntzak

Sindikalismoa ordea, gaur egun, bere barnean edo eta diharduen kontestuko aldatetek eragina gertatzen da eta horietakoren batek, krisialdia dela eta nabarmendu bada ere, krisialdi ekonomikoak duen kojunturazko iraupena baino irispen handiagoa izan dezake.

Begibistakoa iduri duenez, sindikatuetakoa izateko soldatapeko izatea aurrebaldintza nagusia dela kontutan hartzetik abiatzen bagara, "gorbatadun" langileen ugalmena jaso beharrean gaude eta aldi berean buzodun langileen murrizketa langile-klasearen barnean. Zerbitzu-sektorean enplegatutako soldatadun populazioa, jadanik industrian enplegatua baino handiagoa da garatutako estatu guztietan, baina enpresa industrialetan beretan ere, administrari eta koadro deituriko langileen portzentaia, hazten ari da zuzeneko egintzan diharduten langileekiko. Bestalde, zerbitzuetako langileak, sektore publikoan enplegatutakoek batipat, geroz eta gehiago ari dira sindikatzen. Ondorengo koadroak, langile-maila desberdinen sindikatze-mailari dagozkion bost estatu garatutako egoerari buruzko datuak dakartza.¹⁴

Langile-estratoen sindikatze-tasa bost estatuetan

	Osoko tasa	Sektore pribatuko langileak	Sektore pribatuko enplegatuek	Sektore publikoko langileak
Frantzia (1973)	25	25	15	75
Suedia (1972)	87	95	71	95
Britainia Handia (1973)...	50	50	27	85
Alemania Federala (1972) .	37	42	19	93
Estatu Batuak (1973)	28	53	9	28

Datuetan ikusten den bezala, sindikatzeko-maila handienak, sektore pribatuko langileen artean daude, hauek izan bait dira sindikalismoaren euskarri eta oraindik ere hala dira, azkeneko hamarkadetan sindikalismoan sartu diren sektore publikoko langileekin batera. Azkeneko honen ondorioz, Italia eta Britainia Handiko sindikalismoetan, sektore publikoko langileak antolatzen dituzten federazioek, konfederazioko bigarren sindikatua osatzen dute beren afiliatu-kopuruarekin. Estatu Batuetan, funtzionario publikoen sindikatua (AFSCME), AFL-CIO-ko afiliatuetan lehenengoa da une honetan, nahiz eta langile-mota horren artean sindikatzeko-tasa handia ez izan, zeren eta herrialde hartan, funtzio publikoa erizpide pribatuekin kudeatua bait da¹⁵. Alemania Federalean eta Suedian, non sindikalismoak izaera industrial indartsua duen, funtzionario eta enplegatuen sindikatu independenteak eratu dira, lehen jadanik esana dugunez.

Baina sindikalismoak, ez ditu aipatutako aldaketengatik antolakuntzako eraldaketak bakarrik jasaten, baizik eta baita ziurraski bere norabidekoak ere. Usariozko sindikalismoa, industri zentruetako enpresa handietako industri langileen elkartasun-sentimenduarengan moldatu da. Bere balio-izarbelan, aurkakoa identifikatzeak (enpresariak, burgeseria handia), eta langile-auzoetako habitataren inguruan sortutako kultura propioa, garrantzi handia izan dute. Gaur ordea, norabide horrekiko aurreritziak ezabatzen ari dira. Alde batetik, sindikalismoaren bezerodiaren osagaiak ugaritu egin dira, ekoizpen-unitate handiak porrotean daude eta kokaleku industrial nahiz langileen habitatek ere, barreriaketatart jotzen dute. Langile-kultura bereziak, bere berezko balioekin, habitataren barreriaketa-erengatik eta mass mediek ezartzen duten berdintasun-erengatik, ezabatzeraz jotzen du. Lehen aipatutako Luton-en inkestako emaitzen arabera, ugaritasuneko langileek, London-en inguru-erako hiri esperimenterako bateko biztanle izanik eta bertan langileak klase ertaineko lanbidedunekin bizirik, ohizko langileak baino ere proportzio handiagoan sindikatzen dira, baina beren afiliazioak eta sindikalizazio-erengatik beren ardurak ez diete elkartasun klasiko-erengatik erantzuten, baldin eta, famili eta aisi bizitza pribaturako tresna edo bitarteko bezala jasoak ez badira. Botu politikoak ere, tresna- edo bitarteko-zentzu berbera da langile hauentzat: agintzen eta egiten duenarengatik ematen zaio botua alderdi bati eta ez ordezkatzeko edo irudikatzen duenarengatik¹⁶. Ziurraski ez da oso zuzena izango inkesta honen esperientzia mugatutik portaera orokorrak ateratzea, baina ez da haatik arraroa, nagusi diren gizarte-balioek soldatapekoen zati bat harrapa-

tzea. Prozesua, edozein modutan ere, era desberdinean geldia da eta aldaketek, herrialde desberdinetako sindikalismoak afektatzen dituzte.

Sindikatuak eta alderdi sozial-demokratak: harremanak

Sindikatuak soka bereko alderdi politikoei buruz duten joera, autonomiaranzkoa da, edo eta "politizazio apolitikoranzkoa", lehen ere esana denez; baina honek ez du kentzen herrialde germaniar eta anglosaxoniarrak bereziki, alderdi laborista edo sozialdemokratekin xede-banaketa praktikatu izana, alderdiari, ongizate-estatuaren (Welfare state) hedakuntzagatik efektu berdintzaileen bidez, demokrazia ekonomikoan sakontzea egokitu zaiolarik eta sindikatuari berriz lan-harremanetan ihardutea. J. Habermas-en eritziz, ongizate-estatuak, dakartzkion onurak direla bide, mendealdeko demokrazietako langile-klaseak menpekotasun-partaidetza legitimatzea lortu du, non hiritarra, botuemaile-funtzio soilera murriztua den.¹⁷

Eredu honek eraren batean behintzat, herrialde latindarretan ere funtzionatu du, sindikaturik nagusienak, alderdi komunistarekin harremanak izanez. Italaian, P.C.I.-k, duela askotxotik, alderdi sozialdemokrata bezala iharduten du, nahiz eta gobernura iritsi ahal izateko eragozpenarekin izan. Frantzia, bestalde, aldaketetatik at izategatik, geroz eta murriztagoa den ohizko langileria baztertzeko ari dira bai P.C.F. eta bai C.G.T. sindikatuak.

Hala ere ordea, zenbait arrazoi direla bide, eredu hau une onetan berrikusten ari dela dirudi. Ikuspegi neoliberalaren arabera, krisi ekonomikoak, ongizate-estatuaren mugak erakutsi ditu eta ondorioz, sozialdemokrazi politikaren oinarriak eztabaidan jarri ditu¹⁸. Garapenaren eremu berrietara igo nahi duten herrialdeek, ezin diote alde batetik gizarte-ongizateari hainbeste baliabide eskaini eta bestetik berriz hiritarren jarrera ere, estatu paternalista baten ahalguztiduntasuna eta kargak jasatearen aurkakoa da, irakurketa neokontserbatzailearen arabera. Ideologia neoliberalaren momentuko arrakasta konstataturike ere ordea, herrialde europarrerako hiritarren gehiengoak nekez uko egingo diela uste dut, gizarte-ongizate politika baten onura eta etika-printzipioei. Gainera, oharterazi beharra dago, alderdi sozial-demokratak ez direla politika hau praktikatzen duten bakarrak, ezen Europako alderdi kontserbadoreek ere berena egin bait dute, sentiberatasun dezberdinarekin bada ere.

Baina eredu sozialdemokrata, ongizate-estatuaren ustezko krisiarengatik baino gehiago, mendealdeko demokrazia formaletako botere eta alderdi politikoetako eraldekengatik dagoela berriusketaldian iruditzen zait. Botereak hazkorki hartzen du izaera teknokratikoa eta programazio-administrazioan izan daitezkeen aldaketa ahalak, geroz eta txikiagoak dira, baldin eta orientazio hura onartzen bada.

Finkatutako alderdi politikoak, klase-bitartekari izatea uzten ari dira hiritarren orokortasun-botua eskatzeko eta boterea administratzeko ekipoak aurkezteko funtziora mugatzen dira, edozein kasutan ere, gizarte-taldeen eskariei erantzuteko orduan sentiberatasun desberdina baino ez eskaintzeko, baina beti ere muga hertsien barruan noski. Bestalde, langileen jarrera berriak ere, kontutan hartu behar dira; izan ere, geroz eta gehiago portatzen bait dira politikoki hiritar bezala eta bestalde gizarte-mugimendu berriak ere sortu egin dira.

Eraldaketa honen kontestuan, krisi ekonomikoaren aldiari alderdi kontserbadoreak boterean mantentzeak, gobernura iristeko estrategia berriak planteiatzera eraman ditu alderdi ezkertiar europarrak eta honek zalantzan jartzen du sindikalismoarekin mantendu duten lehenasuneko harremana. Bide honek, gatazkak sortu ditu Britainia Handian sindikatuen eta alderdi laboristaren artean eta halaber alderdi sozialdemokrataren eta sindikatuen artean Alemania Federalean. P.C.I.-k berriki egindako proposamenek, ezkerren estrategia berria oratu nahi dute langile-klasean, gizarte-mugimendu berriei irekiz, baina ikusi egin beharko da bi aldeetako baseak proiektu amankomun batean bil daitezkeen. Suedian bakar-bakarrik, bere egoera sozio-ekonomiko bereziarengatik, sindikatu/alderdi sozialdemokrata arteko harreman klasikoa mantentzen da, ezen Austrian bertan ere, eredu korporatibista zalantzan jartzen dela bait dirugi. Frantzian eta Espainian ere, harremanak ez dire baketsuak. Guzti horrek, sindikatu eta alderdi sozialdemokraten arteko harreman klasikoak mantentzeko dauden zailtasunak azaltzen ditu.

Aurreko planteiamenduaren muinean, gizarte garatuetan edo eta etorkizuneko postindustrialetan langile-klasearen eta bere antolamenduen protagonismoaren arazoa dago. Ikuspegi neokonserbadorearen arabera, sindikatuak, gizartean antolatzen diren korporazioen artean bat gehiago lirateke. Solchaga ministrariak argiro azaldu zuen, sindikatuak, lanbide-elkargo batek baino kontsiderazio handiagorik ez zutela merezi esan zuenean. Galbraith

bezalako liberal batentzat, sindikatuak, gizarte garatuak menperatzen dituen "teknogituraren" zati dira¹⁹. Guzti horien pentsamoldean, langile-klasea desagertu egin da gizarteko aktore pribilegiatu legez. Marxista ortodoxoentzat, eta geroz eta urriagoak dira hauek ezen ia S.E.S.B.-en ere ez bait dira ugariak, funtsean ezertxo ere ez da aldatu, eta gainera langile-klaseak gizartea aldatzeko misio historikoa edukitzen jarraitzen du.

Jarrera hauen aurrean, gutxienez ere iradokigarriagoa iruditzen zait Alain Touraine-k egiten duen gizarte postindustrialaren analisia. Autore honen arabera, langile-klasea, kontestazio- eta aldateta-mugimendu nagusia izan da gizarte industrialen metaketa-aldian. Berorietan, gainbalioa izan da kapitalaren metaketa-iturria eta gizarte-kontraesanen gunea, alienazioaren adierazpide garrantzitsuen bezala. Alderantziz, gizarte postindustrialean, oinarritzko kontraesana, kultur alienaziora lekualdatzen da, hots, askatasunaren edukinen eremura. Botere teknokratikoaren menperakuntza, gizarte-programazioaren bidez egikaritzen da, hiritarrak menpekotasunezko partaidetza moduan menperatuta edukiz. Menpekotasun honen inguruan, gizarte-mugimendu berriak sortzen dira, erneberriak oraindik, askatasunaren izenean gizarte-zuzendaritza haren suposapenak berak kontestatzen dituztenak alegia. Honek, langile-klasea eta sindikalismoa desagertu egingo direla esan nahi al du? Autorearentzat, soldatapekoak dauden artean sindikalismoa izango da, baina sindikatuak, hala den heinean, ez ditu kontestatzen kazkuntza ekonomikoaren aurrikuspenak, ez eta bere egintza beste menpekotasun-modu batzuk gainditzen funtsatu ere. Soil-soilik, hazkuntz irabazien banaketa-modua erreibindikatzera mugatzen da²⁰.

Sindikalismoaren alde europarra

Europako Merkatu Komunaren eraketak, oraingoz behintzat ez du Elkarte osatzen duten estatuetako sindikalismoetan era zuzenean eraginik izan eta partaide diren Estatuaren sistema politikoengan ere eragin eskasa izan du. Sindikalismoa eta lan-harremannen sistemak, sistema politikoaren zati direnak, estatukoak izaten jarraitzen dute beren berezitasunekin eta oraindik denbora luzean hala jarraituko dute ziurraski. Gertatzen dena zera da, alegia, elkarketak, asmo ekonomikoarekin sortua izan bazen ere, arazoak eta konponbideak berdindu egin dituela.

Hirurogeitamargarren hamarkadaren aurretik, gizarte-neurria ez zen garrantzitsua izan Elkartean eta migratzaileen babes-ekin-tzara mugatu zen. Horren froga baino ez da, enpresariak eta sindikatuek Elkartean antolamendu iraunkorrik hirurogeitamargarren hamarkadararte ez sortu izana, nahiz eta Batzorde Ekonomiko eta Sozialak funtzionatu eta berehala bide teknikoari atxeki. Hamarkada honen hasieran, Elkarteko Industriariaren Batasuna (UNICE) sortu zen, osoko enpresari-antolamendu gisa, sektorekako beste enpresari-antolamendu batzurekin batera, 1973an, Sindikatuen Konfederazio Europarra sortu zen eta E.E.E.koak ez diren herrialdeetako sindikatuak biltzen baditu ere, bere iharduna esparru horretan zentratua du. S.K.E.-ean, Elkarteko estatuetako Konfederazio sindikal ia denak antolamendu iraunkor batean ordezkatuta daude.

Hirurogeitamar garreneko hamarkadan eta areago oraingo lau-rogeigarrenekoan, partaide diren estatuetako desenplegu-tasa altuen aurrean sortutako kezka dela bide, gizarte-arloko neurriek garantzi handiagoa bereganatu dute, nahiz eta estatuentzako araudi edo derrigorrezko betebeharrak ez pasa izan, migratzaileen babesari eta laneko higie eta segurtasunari dagokienean salbu. Hala ere ordea, Batzordearen ekimenak izan dira eta baliabide propioak dituzten Elkarteko organismoen (Gizarte-Fondo Europarra) zuzeneko iharduna ugaltu egin da, enplegurako prestakuntzan bereziki. Gizarte-alderdiak Batzorde aholkuemailetan eskuhartzen hasi dira eta horien artean Enplegu-Batzorde Iraunkorrak, aparteko pisua hartu du. Era berean, enplegu eta lanarekin zerikusia duten elkarteko antolamenduen zuzendaritzan ere (G.F.E.), CEDEFOP, etab.)²¹.

Estatuetako sindikatuek beraz, S.K.E.-ren bidez eskuhartzen dute elkarteko politikan, nahiz eta horrek, alde aurretik behintzat, beren estatuetako antolamendu eta norabideetan ez afektatu. Era honetako ordezkaritza izatera pasa dira beraz, enpresari-antolamenduekin batera, bai Elkarteko administrazio-organismoen zuzendaritza-kontseiluetan eta baita politika amankomunerako Batzorde aholkuemailetan ere, baina, lan-arloko ekimenak, nekez pasa dira inoiz ebazpen edo gomendio-mailatik. Elkarre-esparruko negoziatorik ez dagoenez eta estatuentzako elkarrearen arauak indargabeak direnez, herrialde desberdinetako lan-harremanen sistemak oso gutxi afektatuak gertatu dira elkarrearen ihardunaz. Hala ere ordea, azpimarratu beharra dago zeharkako eragin bat, estatu gaindiko koordinazioaren ondorio dena eta estatuetako sindi-

katu eta enpresari-antolamenduen ihardunen nondik norakoan eraginik izan duena. Zentzu honetan, nabarmendu egin da S.K.E.-aren Kongresuetako ebazpenen eragina, krisialdi ekonomikoan zehar sindikatu europarrek negoziazio kolektiboetan erreibindikatutako edukinetan, bereziki, lanaldiari eta behinbehineko lanaren hedaduraren aurkako jarrerari dagozkionetan.

Batze-bulkada berria, Akta Bakar Europarrarena alegia, motibazio ekonomiko batetan oinarrituta dago, nola Estatu Batuekin eta Japoniarekin lehiatzean. Sindikatuek, ordea, gizarte-politikaren garapena eragiten dute eta "gizarte-esparru europarraren" aldarrikapena, erantzun laburregia izango da gurari horrentzako. Sindikatuek, gizarte-politikaren kontzertazio europarrean esku-hartzea proposatzen dute eta horretarako, enpresari-antolamenduak, U.N.I.C.E.-n beren antolamendua indartzeko asmoa hartu dute. Obligaziozko gizarte-politika hitzarmenduaren zabalkuntza gertatuz gero, sindikalismoaren neurri europarra, indartu egingo litzateke eta horrek, partaide diren estatu-erakunde sindikatuen egungo autonomiarengan nahiz lan-harremanengan eragina izango luke. Hala ere ordea, esperientziak, estatuen subiranotasuna afektatzen duen orok Europako Ekonomi Elkartean zailtasun handiak aurkitzen dituela erakusten du.

Espainiako sindikalismoaren arazoak

Sindikalismo guztiei planteiatzen zaizkien arazoez gainera, espainiarrak beste berezi batzuri ere aurre egin behar izan die. Arazo horiek, antolamendu demokratikoak berrogei urtetan debekatuta egon ondoren berriki berrantolatuak izatetik datoz. Horregatik eta trantsizio politikoaren inguruabar bereziengatik, afiliazio eta baliabide ahuleko sindikatuak dira, kidetasunezko alderdi politikoe-kiko menpekotasun handiegia dutenak eta bortizki zentralizatuak, ezen ez bait dira sortu oinarrizko antolamendu autonomoen federazioz beste estatu batzutan bezala, baizik eta Konfederazioak bostere izugarria hartu du beraiengan beren sorkuntzako une beretik. Gainera, hamahiru urteko demokrazialdiaren ondoren, sindikalismo espainiarraren orientazioa oraindik definitu gabe dagoela baieztatu daiteke, artifizialki sortu den lan-harremanen ereduak porrot eginberri duelako.

CCOO-k, halako hedadura-maila bat lortu zuen frankismoaren hazkuntza ekonomikoko azkenaldian, enpresetako ordezkari-tza-erakundeak erabiliz. UGT-k aldiz, kanpoan eraginduna izan arren, barruan ia ez zuen presentziarik izan langile artean. Ondorioz, Franco hil zenean, CCOO, ongi finkatutako antolamendu bezala azaldu zen UGT-ren ahuleziaren aurrean. Bestalde, berrikuntza sindikal eta laboralak, beti ere trantsizio-garaiko politikez geroztikoak izan ziren eta sindikalgintza "sozialismo/komunismo lehiaren" arlo bilakatu zen²², non P.C.E.-k CCOO-ren ezarpen handiagoa erabili zuen alderdia indartzeko eta UGT-k berriz PSOE-k hauteskunde politikoetan lortutako indarra, sindikatua-ren sendokuntza lortzeko.

CCOO-k, trantsizioko lehen urteetan, enpresetako hauteskundeetatik abiatuta Konfederazio bateratu bat (Sindikatuartekoa) eratzea eragin zuen, baina aniztasun sindikalaren tesia onartu zen. Hasiara-hasieratik, botereak, UGT-ren zabalkuntza erraztu zuen propaganda eta buruzagi sindikal europarren bulkada nabariaren bidez. Hala ere ordea, CCOO-k, UGT-k baino onarpen hobea jaso zuen, langileen aldetik 1978an eta 1980an enpresetan egin ziren hauteskundeetan. 1980 eta 1982an, UGT-k, alderdi sozialistarekin zuen harremana erabili zuen, hauteskunde politikoetan PSOE-ri botua eman arren, auteskunde sindikaletan CCOO-ri emandako langileen botuak bereganatzeko. 1982ko hauteskunde sindikaletan, UGT-k, lehen sindikatua izatea lortu zuen, datu ofizialen arabera.

1980tik aurrera, UGT, Gobernuaren eta CEOE-ren laguntzaz baliatu da, aldi berean, elkarlan eta baretasunezko politika eginez. Hau, INI Fundazioak egindako ikerketa batean oinarritu zen eta beraren arabera, langile espainiarrek, jarrera bareak azaltzen zituzten krisi ekonomikoaren aurrean²³. Horrela, 1979ko udan, UGT-k Konfederazioarteko Oinarrizko Akordioa sinatu zuen CEOE-rekin eta beraren bidez ugazaberi antolakuntzaren babesa nahiz negoziazio kolektiboak zentralizatzeko Langileen Estatutuaren lege-babesa segurtatu zituen. Hurrengo urtean, bi antolamenduek Konfederazioarteko Akordio Markoa (AMI) sinatu zuten eta beronen bidez, lanbidearteko akordio eta gizarte-akordioen aldia estrenatu zen harik eta 1986an Akordio Ekonomiko Sozialaren (AES) indarreangotasuna amaitu zen arte. 1985eko Askatasun Sindikalaren Lege Organikoa berriz, kontzertazio eta erakunde-par-taidetzan oinarritutako lan-harremanen ereduari lege-euskarria osatzera etorri zen eta sozialista batzuk berorren bidez, "Hego-

aldeko Suedia" bihurtu nahi zuten Espainia²⁴. Lege honek, ordezkartzadun sindikatuen eskubideak hedatu egiten ditu, Langileen Estatutuan jadanik ezarritako mailaren arabera, negoziazio kolektiboan nahiz erakundeetako partaidetzan maila guztietan eskuhartzeko pribilegioa emanez. Hala ere ordea, ordezkartzadun sindikatu-izaera ez da ematen afiliazio-kopuruz, enpresetan aldika egiten diren hauteskunde erdipolitikoetan sindikatuek izandako botuen arabera baizik. Sindikatuek, afiliazio-falta dela eta, duten baliabide gabezia, oraingoan, estatuaren subentzior edo frankismoan zehar metatutako ondarearen konturako kitapenak eginez estali da, nahiz eta negoziazio-kanon bat kobratzen ere saiatu diren, arrakastarik lortu ez badute ere.

Kontzertazioaren praktikak, CCOO eta gainerako sindikatuak, enpresan eta normalean probintzi arlokoak diren sektoreetako hitzarmentan ihardutera baztertu ditu. Arlo hauetan, nekez gaintu ahal izan dira akordioetan ezarritako soldata-mugak. Hau, UGT-k kontzertazioan izan duen presentziarengatik baino gehiago izan da krisi ekonomikoarengatik eta ugazaberiaren trinkotasunarengatik; beraz, negoziazio kolektiboaren edukin txiroztea gertatu da.

Ereduak, bere artifizialtasuna erakutsi du eta buztinezko erraldoiak bezala egin du porrot egoera ekonomikoa hobetu den unean, horrela, UGT/PSOE harremanen etena eta Abenduaren 14eko greba orokorra, krisiaren adierazpiderik oihartzuntsuenak izanik. Detonanteak, UGT-k 1986an enpresetako hauteskundeetan eta 1987an funtzio publikoetan lortutako emaitza, txarrak izan zirela uste dut, beharbada datu ofizialek azaldu zutena baino ezkorragoak izaki. Emaitz honek ordura arte ekonomia espainiarra "modernotzeko" PSOE-ren gobernuak praktikaturako politika ekonomiko neoliberalari bere burua elkartzeari buruz azterketa egitera eramanez zuten sindikatua. Emaitzek, bestalde, langileen jarrerara barea, kojunturala edo krisi ekonomikoak ezarria izan zela egiaztatzen zetozena ziruditen. Benetan zail gertatzen da, desberdintasunak oso nabarmenak diren eta "ongizate-estatu" oso gutxi garatua den estatu batean jarrera hori ulertzea. Gobernuak ez zukeen UGT-ren beharrik izango inflazioa gaintzeko bere politika ezartzeko, ezen horretarako, nahikoa zuen krisi egoera eta sendoki trinkotutako ugazaberiaren laguntza, estatu europar gehienetan egiaztatzen den bezala; baina Alderdi Sozialistaren erreakzio bortitzak badu esplikazioarik, baldin eta UGT-ren urrutzeak Gobernuaren politika ekonomikoa langileen aurrean deslegitimatua egiten duela kontutan hartzen bada.

Aurreko argudio horrek begibistan jartzen ditu sindikalismo espainiarraren ezaugarri diren bi arazo eta hasieran adierazten nuen ez, zera dira: alderdi politikokoekiko menpekotasuna eta une honetara izandako beren orientazio-krisia, azkeneko hau, praktikatutako lan-harreman ereduaren porrotaren ondorio noski. Egun UGT/PSOE-ren arteko harremanen etena gorabehera, etorkizunak bakarrik esan ahal izango digu, menpekotasun hura behinbetiko eten den ala ez. Lan-harremanen ereduaren porrotak, orientazio berri bat planteiatzen dio UGT-ri, baina baita CCOO-ri ere, kontestu berri batekin topo egin du eta. Presio politikoa praktika, bi sindikatuek emandako erantzuna izan da oraingoz eta negoziazio kolektiboa, zailtasun berriak aurkitzen ari da. Besteren artean, negoziazio kolektiboak izango duen arrakastak erabakiko du etorkizunean Espainiako lan-harremanen eredu sistema frantziar edo italiarraren kidekoa suertatuko den, ezen ezinezkoa baita dirudi, desberdintasun handiak dauden estatu batean, ereduak presio politikoa bere barne ez izatea. Baina aurreko azterketak, estatuko sindikalismoak aurrez aurre duen arazorik larriena ere esplikatzen du: afiliazio-eskasia, aldi berean, ahuleziaren eta iharduera independente baterako baliabide propiorik ezaren iturri dena.

Estatuko afiliazio sindikalaren tasa, ziurraski ere Europako ba-huenetakoa da, langileen %15etik 20rako afiliazioarekin eta Frantziakoarekin bakarrik konpara daiteke. Hala ere ordea, badirudi langile espainiarrek, trantsizioaren lehen uneetan afiliazioaren aldeko jarrera izan zutela, garai hartako inkestek adierazten zuten²⁵. Bestalde, ez dirudi langileek sindikalismoa errefusatzan dutenik, enpresetan egin diren hauteskundeetan behintzat, hautagai sindikalei etengabeko bulkada eman diete eta. Hala ere, sindikatuen zatiketak eta politizazioaren ondoriozko enfrentamenduak nahiz langileen benetako interesetatik beren iharduna urruntzeak, ez afiliatzeraren eraman ditu langileak. Hego Euskadin 1982an egin genuen inkesta batean, langilegoaren gehiengo handiak, sindikatuek, frankismo ondoren beraiengandik itxaro zutenari ez ziotela erantzun adierazten zuten eta beren interesengandik urrundu eta burokratizatu izana leporatzen zieten. Afiliazio-ezaren esplikazio hau, enpresetan hauteskundeak egitean oinarritua baino arrazoi-tsuagoa iruditzen zait. Hala ere, afiliatu gabeko sindikatuak edo eta afiliatu gutxidunak, nekez izan daitezke independente edo eta saiatuta ere, nekez funtsa dezakete beren iharduna negoziazio kolektiboan.

Euskadiko sindikatu abertzaleen erronkak

Batzurentzat Euskal nazioetasunaren nortasun-seinale amorrarrietakoa dena, bertako sindikatuak izatea da, hots, Konfederazioko antolamendua Hego Euskadiko lurraldean agortuta gelditzea, gero bertatik nazioarteko harremanak izateko. Hauek, ELA-STV-ren kasuan, indartsuak dira, izan ere, bi nazioarteko antolamenduetako partaide baita da (C.M.T. eta C.I.S.L.) eta baita Sindikatuen Konfederazio Europarrekoa ere (S.K.E.). ELA-STV eta LAB-ek, langilegoaren gehiengo hartzen dute (%43 1986ko hauteskundeetan, lau lurraldeetan) eta baita afiliatuen gehiengo ere (%47 Autonomi Elkartearen 1982an)²⁶, eta estatu-arloko sindikatuak geldi dauden bitartean, sindikatu abertzaleek gorantz jo dute beren botuetan hauteskunder hazteko. ELA-STV da lehen sindikatua Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurraldeetan. Sindikatu abertzaleen ezarpena, txikiagoa da Nafarroan, baina biek lortu dute ordezkartzadun sindikatu izatea lurralde horretan ere. Sindikatze-maila, estatuan baino nabarmenki handiagoa da Euskadin (langile afiliatuen %30aren ingurukoa 1982an) baina hala ere sindikalismo europarretako kotak iritsi gabe.

Sindikatu abertzaleak dena den, bere ihardunean, politikaren harat-honatetan eta estatuko lan-harremanetan murgilduta daude, LAB-ek errebindikazio nazionala eta langilego-praktika era erradikal independentzizale eta iraultzailean batuz eta ELA-STV-k aldiz autonomi eran eta kontrolako sindikalgitzan.

LAB-ek KAS multzoan sartutako mugimendu soziopolitiko bezala definitzen du bere burua eta euskal langilegoaren %10aren babesa jasotzen du gutxi gorabehera, gehien batean gazteena. Hala ere ordea, negoziazio kolektiboan ere eskuhartzen du, beraz, lan-harremanak negoziazioan oinarritzen diren heinean, are eta tentsio handiagoa izango du bere baitan.

ELA-STV gehiengoaren sindikatua, 1976ko Berriraketa-Kongresuaz geroztik, alderdi politikoekiko independentziarat eta langileei batipat negoziazio kolektiboaren praktika bidez zerbitzuak prestatzeko iharduna funtsatzerat bideratu zen. Lehenengo lortzeko, kargu sindikal eta politikoen arteko bateraezintasuna sartu zuen estatutuetan eta bigarreneako berriz, kuota altua ezarri eta antolamendu zentralizatu eta liberatuz hornituaz zuzkitu zuen bere burua. Hain zuzen ere, zehazki sindikala den ihardunari eta afiliazioari ematen dizkion garrantziarengatik, ELA-STV, langi-

leak enpresetan antolatzeko formula gisa, sail sindikalei enpresa-batzorde bateratuak aurretik lehentasuna ematearen aldeko izan da. ELA-STV bestalde, beste sindikatuak baino hobeto ezarrita dago funtzio publiko autonomoan, zerbitzueta langileetan eta enpresetako tekniko eta administrariaren kolektiboetan, hauteskunde sindikalen azterketak egiaztatzen duenez, baina horregatik, betidaniko ohizko eskulangileen artean ere lehenengo sindikatua izatea utzi gabe. Enpresa txikietan duen ezarpena ere, beste sindikatuenak baino handiagoa da²⁷.

Hala ere, ELA-STV-rentzako arazoak, kontestu politikotik eta bere iharduera sindikalaren erizpena garatu beharrean derrigorturik aurkitzen den esparrutik datoz. Sindikatuak, lan-harremanen marko autonomoa eragiten du Euskadira eta oinarritzat negoziazio kolektiboa hartzen. Gobernu autonomoek lan-gaietan eskurantz legegilerik ez dutenez gero, egikaritzailerik eta sustatzaile izan arren, negoziazio kolektiboa azaltzen da noski gai honen garapen autonomorako ihardun-arlorik aukerako bezala. Baina bide hau, garapen-maila desberdinak lor ditzakeelarik ere, estatuko, Autonomi Elkartereko eta Nafarroako lan-harremanen norabidearen eta beste sindikatu eta enpresari-antolamenduen nahiz gobernu autonomoen baitan dago. Estatuko lan-harremanei dagokienean, lehen adierazi ditut saiatutako ereduaren krisia eta egungo noraezko egoera. Negoziazio kolektibo autonomorako kasurik okerrena, kontzertaziora itzultzea edo eta sektore edo adarkako estatuko hitzarmenetara litzateke, egun estatu-mailan gehiengoa duten bi sindikatuak sinatzaile direla eta Langileen Estatutuko 83. artikuluan eskainitako ahalbidea erabiliz, alegia, akordio edo hitzarmenetan, maila apalagotarako negoziatuetatik gaitik baztertuz.

Partaide edo aktore direnen jarrerari dagokionez, gainerako sindikatuekin hasteko, LAB-ek ez du funtsatzen bere iharduna negoziazio kolektiboan; UGT orain arte, marko autonomoaren aurkako azaldu da, klase- eta merkatu-batasun estatala alegatuz; eta CCOO-ren jarrera berriz, aldakorra izan da, aurrean ere egin litekeelarik, alegia, bere etorkizuneko jarrera, estatu-arloan izango duen estrategiaren arabera izango dela. Autonomi Elkartereko enpresari-antolamenduen marko autonomo baten alde aukera egiteari dagokionez berriz, oraingoz ez dago batera garbi horrelakorik nahi dutenik, agian barnean dauden jarrera desberdinetatik. Azkenik, gobernu autonomoen iharduera laburbildu ahal izateko, Nafarroako Foru-Gobernuak, Kontseilu Ekonomiko eta Soziala sortu zuela esan behar osagai hirukoitzek osatua (gobernu, enpre-

sari eta sindikatu) erakundeetan eskuhartzeko bidean, nahiz eta orain krisian egon eta negoziazio kolektibo propioari inolako sustapen-ihardunik ez diola eskaini Autonomi Elkarteke lehenengo gobernuek, negoziazioan oinarritutako lan-harreman autonomoen alde apostu egin zuten Lan-Harremanetarako Kontseilua sortuz bi aldeen topaleku eta sustapen-tresna izateko; hala ere, azken urteotan, Kontseilua eraginik gabea da zenbait arrazoirengatik eta egungo Koalizio-Gobernuak, gaia abandonatu egin du, ziurraski ere gobernuko bi bazkideen diferentziengatik²⁸.

Ondorio bidez

Erlatiboki baino ezin daiteke hitz egin sindikalismoaren arazoek, mendebaldeko herrialde garatu edo europarretan ere. Sindikatuak eta herrialdeetako lan-harremanak, zehatzak eta bereziak dira noski, historia partikularrak irudikatu izan diren heinean. Baina, teknologian eta ekonomian egun egin diren aldaketek, gizarte guzti horiek afektatzen dituzte, bakoitza neurri desberdinean bada ere. Era berean konstata daiteke, jatorriz langileen alderdi izanek, kideko arazoak planteiatzen dituztela Europan bederen. Eraldaketa hauek, sindikatuak beren antolakuntza eta norabidean afektatzen dituzten heinean, arazo komun edo kidekoek hitz egin daitek.

Guztiarekin ere, lantxo honetan, sindikalismoa definitu duten bilakaera historikoa eta kontestuak nahiz diharduen kontestua azpimarratzeko interesa izan dut. Sindikalismoak, etengabeko eraldaketak jasan ditu, aldatzen ari den industri gizarteko antolamendu den legez eta ez dirudi egungo moldaketek trauma berezirik ekarriko diotenik, baldin eta historia azterten bada behintzat. Kontestu politikoak lan-harremanetan izandako eragina, bereziki garrantzitsua izan da estatu espainiarrean, non, sindikalismoaren-tzat, trantsizioa guztiz ez dela amaitu bait dirudi.

Euskaratzailea: Andoni Sarriegi

A.K.U.

- WEBB, S. (1902): *Industrial Democracy*. London: Longmans.
- ² MALLET, S. (1963): *La nouvelle classe ouvrière*. Paris: Ed. du Seuil.
- ³ CLEGG, H. (1985): *El sindicalismo es un sistema de negociación colectiva*. Madrid: Ministerio de Trabajo.
- ⁴ TOURAINE, A.; MOTTEZ, B. (1963): "Clase obrera y sociedad global", in: FRIEDMAN, G.; NAVILLE, P. (1963): *Tratado de Sociología del Trabajo*. México: E.C.E.
- ⁵ THOMPSON, A.; HUNTER, L. (1985): *El trabajo en el siglo XX*. J. Dunlop eta W. Galenson. Madrid: Ministerio de Trabajo.
- ⁶ OJEDA, A. (1981): *El control de las empresas en Italia. Un análisis contrastado con la participación germanica*. I.E.S. Madrid: Ministerio de Trabajo.
- ⁷ SCHREGLE, J. (1978): "La codeterminación en la República Federal de Alemania. Estudio comparativo", in: *Revista Internacional de Trabajo*. Vol. 97, núm. 1. Ginebra.
- ⁸ KÖLHER, H.D. (1988): "El D.G.B., sindicato del futuro o comunidad de intereses corporativos?", in: *Proyecto*. Noviembre.
- ⁹ SELIER, F. (1985): *El trabajo en el siglo XX*. Dunlop-Galenson. Madrid: Ministerio de Trabajo.
- ¹⁰ Frantzián eztabaida-moduan "langile-klase berriari" buruz (vide: ADAM, G. (1968): "Où en est le debat sur la nouvelle classe ouvrière? État et travaux", in: *Revue Française de Science Politique*, XVIII. bol. 52 zk. 1968); Britainia Haundian, T. Golthorpe-k eta zenbait soziologiarik "ugaritasuneko langileen" jarrereri buruz egindako inkestaren inguruan, 1968 eta 1969an argitaratutako hiru libururi bide emanez (*The affluent worker: industrial attitudes and behaviour*; *The affluent worker: political attitudes and behaviour* eta *The affluent worker in the class structure*. Cambridge University Press).
- ¹¹ WINDMULLER-GLADSTONE (1984): *Employer's Associations and Industrial Relations*. Oxford.
- ¹² Ikus eboluzio honek Italian izandako analisi bat: MARTINELLI, A.; TREU, T. (1984): *Employer's Associations in Italy* eta *Employer's Associations and Industrial Relations*. Oxford: Windmuller-Gladstone.
- ¹³ REYNAUD, J.D. (1981): *Problemas y perspectivas de la negociación colectiva en los países miembros de la Comunidad*. Madrid: I.E.S.
- ¹⁴ CLEGG, H. (1985): *El sindicalismo en un sistema de negociación colectiva*. Madrid: Ministerio de trabajo.
- ¹⁵ CLEGG, H. (1985): *El sindicalismo en un sistema de negociación colectiva*. Madrid: Ministerio de Trabajo.
- ¹⁶ GOLTHORPE, T. eta beste batzuk (1968): *The affluent worker: industrial attitudes and behaviour*. Cambridge: University press.
- ¹⁷ HABERMAS, J. (1983): "Un modelo de compromiso del estado social", in: *Theorema*. Vol. XIII, 1983-2-1.
- ¹⁸ DAHRENDORF, R. (1983): *Oportunidades vitales*. Madrid: Espasa-Calpe.
- ¹⁹ GALBRAITH, J.K. (1967): *El nuevo estado industrial*. Barcelona: Ariel.
- ²⁰ TOURAINE, A. (1969): *La sociedad postindustrial*. Barcelona: Ariel. TOURAINE, A. (1975): "Les nouveaux conflits sociaux", in: *Sociologie du Travail*. n.º 1, janvier-mars.

- 21 KAIERO, A. (1984): "La política social de las Comunidades Europeas", in: *Euskadi en la Comunidad Económica Europea*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. VI. kap.
- 22 MARAVALL, J.M. (1982): *La política de la transición 1975-1980*. Madrid: Taurus.
- 23 PEREZ DIAZ, V. (1980): *Clase obrera, orden social y conciencia de clase*. Madrid: Fundación del INI.
- 24 ZAMBRANA, J. (1989): "Democracia industrial y sindicalismo en España", in: Sistema. 88. zk. Urtarrilla.
- 25 PEREZ DIAZ, V. (1979): *Clase obrera, partidos y sindicatos*. Madrid: Fundación del INI.
- 26 KAIERO, A. (1984): "Sindikatuak Hego Euskal Herrian", in: *Jakin*, 33. Urria-abendua.
- 27 KAIERO, A. (1985): *Las elecciones sindicales en Euskadi: representación de los trabajadores en la empresa e implantación de los sindicatos*. Gasteiz: Gobierno Vasco.
- 28 Lan-Harremanen Marko Autonomoaren planteiamendu bat, II. Euskal Mundu-Biltzarrerako prestatutako nire lanean aurki daiteke (KAIERO, A. (1988): "La democracia industrial en Euskadi", in: *Cambio social actual y estructura de las empresas*: Bilbo: Ed. Deusto.

GAIK

...HAINBAT ABURU



Miranderen kritika Iraultza Frantsesari

Joxe Azurmendi

Zer zarete zuek lehenago: abertzaleak ala demokratikak? Galdera honekin hasiko gara.

Ondorengoan Miranderi jarraituko gatzaizkio haren Iraultza Frantsesaren kritikan. Halere gaur ez naiz ibiliko haren testu eta zita bila, emango dira zitak beste nonbait, ezpada haren pentsaera berrizkatzen ahaleginduko naiz, nolabait gaurko eran haren pentsamendua birpentsatzen.

Lehenengo Miranderen arazoak gaurko egunean jarriko ditugu (I); haren pentsamendu antidemokratiko eta antikristauaren iturriak ikusiko ditugu gero (II).

I.- Abertzaletasun ez kristau, ez demokratiko baten bila

Mirandek abertzaleei, abertzaleak baino lehen eta gehiago, demokratikak izatea, leporatzen zien: onenean ere orduan demokratikak izango zirela, ez abertzaleak.

Inoiz baino hobeto gaur ulertzen da kritika horren funtsa, kasuistika teoriko hutsa baino, berriro egun-eguneko arazo praktikoa dugu eta. Orain ez diogu erantzuna bilatuko, baina, hitzaldia hasteko, itaun horrekintxe konfrontatu nahi zaituztet entzule guztiok: zer sentitzen dituzue lehenago zeuen buruok, demokratik ala abertzaleak? Inoiz libre izan nahi badu, zer uste duzue izan beharko duela Euskal Herriak biotan lehenago eta gehiago?

Betiko listoak badakit jesusean asmatuko duela ihes egiteko soluzioa: bera "abertzale demokrata" da, ez du onartzen bataren ala bestearen alternatiba.

Guk gure aldetik baina, listoaren soluziorik ez dugu onartuko. Izan ere, "hori, esango diogu, ondo dago printzipio abstraktuen mailan erantzuteko, beharbada praktikan ere balio du gero, ihardupide indibidual pertsonalaren mailan: guri orain axola zaiguna, ordea, politika orokorra da, funtsezko jarrera, momentuan momentuko arazo konkretuetan zer aldetara jo, erabakitzen jakiteko".

Arazoa orduan, horrela ikusi nahi dugu planteatuta, hauxe da, konkretukiago galdetzeko: Algerian elkarrizketan ari omen dira ETA eta Gobernu espainola. Zein da gure jarrera: nahiago genuke Gobernu espainolak ETARI (hots, errebindikapen abertzaleei) zenbait kontzesio egitea, ahalik handienak egin eta hobe, ala kontzesiorik ez deus egitea, gehienez ere presoak nola etxeratu konpontzea (oso humanitariak gara denok), eta erakunde armatua lotsagarriro umilatuta uztea? Esaterako Lehendakari Jaurak adierazia da eta errepikatua, ETAK indargintzaz lortzea baino berak nahiago duela batere ez lortzea abertzaleatasunaren zenbait xede elemental: lau probintziak bategitea, adibidez, demokratikoki ez bada, hobe omen da batere ez lortu. Autodeterminazioa ere ez omen dago planteatzerik, ETA hor dagoen artean. Bestela demokraziak kalte gaitzak eramango omen lituzke. Horixe da galderaren sentidoa.

Abertzaleak ala/eta faxistak

Baina ez genuen Ardanzaren eta Alderdi autonomisten eritzi horiek jorratzea gaurko gure lana, Mirande hobeto ulertzeko bakarrik interesatzen zitzagun hemen auzi hori. Izan ere, nahikoa zabaldua dagoen kontua da, Mirande faxista izan omen zela

(ohitura da gure artean demokrata eta faxista kontrajartzea). Eta hori ulertu egin beharko da. Hasierako gure galderak, beraz, beste forma hori har dezake orain: faxista izatea ote da, demokrata baino lehen abertzale izatea?

Beharbada berriro planteatuta dabilkigun auzia da hori, azterketa bat ondo mereziko lukeena, baina Miranderen faxismoa ere ez da izango zuzenean gure gaia. Bestela, Nietzsche eta faxismoa, Spengler eta naziak, eta antzeko arazoak beharko genituzke harrotu. Ez dugu egingo. Halere Miranderen kritika Iraultza Frantsesari —gure gaia propio— ez da demokraziaren kritikaren parte bat baino. Eta demokraziaren kritika hori bere abertzaletasun arradikalaren ondorioa da. “Ni, zioen Mirandek, oroz lehen Euskaldun izaiki, heien [katolizismoaren eta Frantziaren] etsai naizela aldarrikatuko dut ausarki, pseudo-euskaltzaleak oro eta %50eko abertzale guztiak nardarazi behar ba ditut ere”¹. Honekin gaian barrendu gaituzue.

Frantziaren etsaia izateak, seguruenik erraz ulertzen da, zer ikusi behar duen Iraultzaren kritikarekin. Ez da Mirande ongi ulertzen, alabaina, katolizismoaren kritikak eta Iraultzarenak nola bategiten duten ulertu ez den bitartean. Are, nola kritika batbera diren katolizismoarena eta Frantziarena, demokraziarena, Iraultzarena. Horiek izango ditugu solasaldi honetako gure puntuak.

Kristautasunaren ukoa: euskal izpiritua

Biolentzia inmorala dela, ez dela, auzi guzti horiek, Mirandek ez zituen ezertarako aintzakotzat hartzen. Zergatik ez? Ez al dute merezi? Ez, ez dute merezi eta alfer-alferrikakoak dira. Milikeria juduak eta kristauak dira, demokratikoak. Baina zeinek aitortzen du oraindik politikan bere burua kristauak!

[1] Miranderen kristautasunaren kritikan orohar luzatu gabe, beronen Iraultzarekiko eta euskal politikarekiko loturaz bakarrik interesatuko gara gaur.

“Euskaldun fededun”, esaten da (tradizioa izan da, esatea). Euskaldunok geurenez demokratak omen gabela ere esan izan da: munduko demokraziarik zaharrena hor nonbait.

Ez kristaua eta ez demokrata da euskalduna jatorriz, esango du Mirandek. Egin egin dute hori. Eta horixe da euskaldunaren degenerazioa.

Euskaldunak bazuen antzinadanik bere izpiritua: euskaldun-tasunaren gogo basatia, bortitza, gogorra; zalduntasunezko arima goi, handizu, bihoztoia; bizitzaren sen argi, alai, antsikabea. "Egun, aldiz, erran-delako abertzale zenbaitek, Euskaldun zaharrak izan diren zaldun aidor, guduzaleen spiritu aristokratikoa erdeinatuz, haren lekhuaren beren gisako Euskaldun berri, bakhezale, hauzo on eta puska-onen spiritu demokratikoa *à la française* eredutzat iarten deraukute". Eliz-euskaldun demokrata, jatorrizko basa-euskaldun garbiaren lekuan.

Euskaldun zahar bere buruaren kontzientziadun burgoiaren eta abertzale moderno bere buruaz birkontzientziatu bakezalearen artean dagoena, mila urte Eliza da. Elizan esaten da egunero "bakea zuekin". Ez da esaten "askatasuna zuekin". Bakearen eta askatasunaren artean Elizak bakearen alde erabaki du konfliktua. Askatasuna, Elizan, bekatutik eta grinetatik da askatasuna. Gizakiaren berezko isurien eta ganu biziaren hildurari eta loturari deritzo Elizan askatasuna. Norbere buruaren sakrifizioari. Kolektiboki hartuta, herriari bagagozkio, anaitasun eta berdintasunezko izpiritu otzanari. Etsaia, ez da borrokatu eta porrokatu egin behar, maitatu egin behar da, haren alde otoitz egin behar da okerrik ez dakion gainera. "Alta, idazten du hortakoz Mirandek, politikaren alhorrean baino are kaltegarriago izan zaiku Elizaren eragina spirituaren alhorrean, geroko edozein berphizkunderen ithurri biziak urdindu zerauzkigulakotz. Euskaldun zaharren gogo basa, borthitz eta handia aphaudu, ahuldu, hobeki erran irendu zuen haren doktrinak; otso ginelarik, bildots egin gaitu"².

Demokraziaren ukoa: Frantziaren ukoa

Demokraziak (izpiritu demokratikoak) beste horrenbestetsu egiten du: gogoak maskaldu, erkindu. Izpiritu demokratikoa ez da borrokarako izpiritua. Demokrata izatea Frantziarekin josi ohi zen heinean (Francoren garaikoak dira kontuok), honela osteratzen zien Mirandek abertzale demokratei: "Frantzitarren ariora demokraziaren amets urdinekin lokhartzen den herriak zahartzen eta akhitzten ari dela emaiten du ikusterat"³.

[2] Honekin iraganak gaituzu katolizismoaren etsaigotik Frantziarenera. Frantzia, abertzaleek Francoren azpian imajinatzten zuten Frantzia hori, amets egiten zuten demokrazia alegia, ez da batere soluziorik euskaldunontzat. Hasteko, euskaldun abertzaleek, hala gogoratzen die Mirandek, gogotik lagundu zieten frantsesei alemanen aurka, eta orduan frantses demokratek atzera euskaldunei berdin laguntzeko hitza eman zuten: gero ez dira asko akordatu. Baina hori bidezkoa eta zuzena da. Norberak behar dio bere buruari begiratu. Zer espero dute oraindik abertzaleek demokrata horiengandik? Ironia ospinez idazten du Mirandek: "Frantzia Askatasunaren Erria baita —berak aski gora aldarrikatzen duanez— Euskadi ere lagunduko zuela askabi-dean, uste izan zuten Euskaldunak... Ustea ustel biurtu dala agiri da orain. Beren itxaropen edo iduripen batzuk orraztu eta garbitu bear lituzketela abertzaleak badirudi beraz, garbitze lan orren ondotik obeto ikus dadin Euskadi gaizkatzekotan (salbatzekotan) zer egin ditekén"⁴.

Frantziak euskaldunon askatasunari Espainiak bezain gutxi lagunduko dio (diktatura frankistak bezain gutxi alegia demokraziak): Izan ere, sistema politikoetako desberdintasunak gorabehera, "Frantzia eta Espainia dirala erririk zentralistenak oartzen gara"⁵. Espainiak suntsitu egin badu euskal autonomia, ez dago Frantziatik zer itxaron (demokraziatik). Abertzaleak, Francoren kontra, beren ametsekin demokrazian, apropos engainatu nahita dabilzan iluso batzuk baizik ez dira.

Horregatik, iparraldekoiei berak jartzen dien alternatiba ondo garbia da (hegoaldekoentzat berdin balio bait du, terminoak trukatuz): "Il serait bon que les Basques s'intéressent à la politique décident ce qu'ils veulent être exactement: ou bien Basques avant tout, ou bien Français; et, quelle que soit leur décision, qu'ils aient le courage d'en tirer les conséquences jusqu'au bout"⁶.

Ez da bakarrik, demokraziatik zer itxaronik ez dagoela ("demokraziak" deitu Estatuak ez digutela askapen bidean lagunduko). Ongi eta osoki ulertzeko, puntu honi bi argigarri erantsi behar zaio:

Euskal izpiritua ez dela demokrata ere

[a] berez euskalduna ez dela demokrata, historian euskaldun jatorra bezala ageri zaiguna. Beraz, euskaldunek egiaz beren

identitate zaharra eta jatorra birreskuratu nahi badute mugimendu abertzalearekin, ez dute demokratak izan behar. Jatorra izatea ez beste guztia litzateke hori. Aipamentxo bakar bat ekartze-ko, hona *Euskaldun gudu-zalduntza baten beharrkiaz* saioko zati hau: "Paradoxatan ari naizela dirudike, bainan Euskaldunak zinezko demokratak behin ere izan direnik uste ez dudala aitohrr dut - non ez bada azken garai huntan, atzerritikako era sozialak ekharri landerrieriak, atzerritarr ikastetxeak eta Romako Elizaren kristaudemokraziak deragieten influentza hirurkoitza dela zio"⁷. Jarraian adibide batzuk aipatzen dira historiatic bere eritzi honen sostengarri. Utzi egingo ditugu, ez luzatzeko.

Bigarren argigarria da [b], honela lehen Elizaz esandakoarekin lotzeko, demokraziak ere, guri arrotza izateaz gain⁸, euskaldunon dekadentzia eta hondamendia signifikatzen duela. Elizak zikiratu euskaldun otzanaren parean, demokratismoak endakaturiko hiritar langin, baketsu, mantso, gozo folklorikoa daukagu, tutulu txapeldun.

Handitasun izpiritu gabeko abertzaletasun kaskal bat

Horrela, abertzale kristau eta demokraten proiektu politiko guztia, salatzen du Mirandek, guztiz "errealista" da, hots, bulgare, zentzu utopiko, erromantikorik batere gabekoa, hau da, "panem et circenses" proiektua. Inolako gorarik ez du. Hegadarik. Anbiziorik. Dena kristauki apal eta grisa da. Sakristia kutsukoa: mus jokoa eta pilota, dantza eta folklorea ugari, hasteko. "Bañan erriaren ogia ez dago azturik, euskal politikariek agintzen baitigute, ongi guriñeztatuta gañera, biarko, gobernura eltzen direneko. Orduan ba ditukegu aurrerapen oikonomikoak, gizarteko zuzentza, bai eta erri baten zorionaren urrezko giltzak diren Auteskunde Aske ta Orokorrak..., ots, lurreko paradisu bat izango da Euskadi! Bitartean arrotzen menpean bizi gerala, Euskaldunak urrituz dijoazela, edonongo kanpotarrek hoielen leku arturik, euskera galtzen ari dela? Ez estu: gure egoera its horrek ez dezake iraun. Alabañan leenago aske [ginen], gure askatasuna lege-kontra kendu ziguten, ergo, legez itzuli beharko digute bein: hala eskatzen du errien arteko Zuzentzak. Eta ez da dudarik munduko demokratek orok lagunduko digutela askatasunerako bidean, ongi merezi baitugu ere: ez al gera betidanik, Arri-aroan asita XXgn mendeko demokraziaren printzipioen

araura bizi izan, ez al gera inoiz konkista-gudarik egin ez duen erri bakarra, euskal-politikari legezale, zintzo horiei siñetsi bear badiegu?”⁹.

Labur-labur: demokraten demokraziak eta kristauen kristautasunak, herri hau izorratuta daukate. Edo bestera esan: kristauki jokatzuz eta demokratikoki ihardunez, Euskadi ez dago askatzerik. “Adiskide maiteak, ba da ordu euskaltasun irriegangarri hori arbuaturik beste baliosago baten moldatzeari buruz abia gaitean. Nork ez dakus, nork ez du somatzen hori gure endaren inñakin edo karikatura bat baizik ez dela, eta eredutzat aurkeztu diguten Euskaldun gorputz sendo ta biotz ezitia gure beerapenaren igali ustela dela?”¹⁰.

Borroka beharra

Mirandek horri buruz kontraproposatu duena, guztiok bada-kizue, borroka izan da, indargintza odolezkoa baztertu gabe noski (moralak orain biolentzia ohi deritzona), borroka beti da eta indargintza. Horregatik (“jeiki, jeiki Ûskaldünak / ehaitera juai-teko”) jende franko eskandalizatu bait da Mirandekin.

Biolentzia zilegi al den demokrazian

[3] Aurretik problema bat planteatu nahi nizueke berriro: zuzena ala zuzengabekoa iruditzen zaizue biolentzia erabiltzea demokrazian helburu politiko batzuegatik? Eta ez diogu ihespedirik utziko hemen ere tornuko listoari, “hau ez da demokraziarik” eta, eskapa ez dakigun. Badela demokrazia, suposatu nahi dugu (kasurik txarreanean aparte utzi beharra edukiko duguna, demokrazia “gurea” al den, izango da). Hemengoa, ez dakit USA, Holanda edo orain hainbeste aipatzen den Albania horretakoa, beste edonongoa bezain demokrazia ona den hipotesian, galdegiten dugu: zilegi al da demokraziaren aurka ETArena bezalako indargintza, biolentzia bat?

Zehatz dezagun hobeto galderaren zentzua. Gaur egun demokrazia justifikazio eta desjustifikazio printzipio bezala erabiltzen da: “orain demokrazia badago, esaten da, bakoitzak nola pentsatzen duen esatea eta arrazoitzea badago, beraz, biolentzia erabiltzerik ez dago” (arrazoitzea versus indarra edo biolentzia

erabiltzea). "Gehiengoak honela erabaki du", esaten da, etab.: "biolentzia zuzengabekoa da hortaz" (inmoral eta ilegala, biak izatearen zentzuan).

Arrazoi moduok asko entzuten dira egunotan. Zuek zer deritozue? Eta berriz ere tranparik ez dugu onartuko: "bizitza sakratua da" bezalako eskapabiderik alegia ez dugu ametituko tesuinguru honetan: tesiaren zentzua sinplea da, "biolentzia erabiltzerik ez dago demokrazian" (bizitza, ordea, sakratua bada, edozein sistematan eta zirkunstantziatan izango da). Eta berdin: "Datozela Parlamentura!", eta norbaitek, "zertara joan? Instituzio horiek, Trutziosko edo Treviñoko arazotxoak ezin dituzte konpondu demokratikoki Burgosen eta Kantabriaren aurka, eta Euskadiko independentziarena konponduko dute Espainia osoaren aurka!", osteratzen badigu erdeinuz, izan dezake munduko arrazoi guztia, baina orain arazoaren sentidoa ez dela efikaziarena, eutsiko diogu, baina estriktoki morala. Efikazia ez zaigu axola (momentu honetan ez zaigu oraindik axola, metodikoki zuzen iharduteko: bestela, politikan efikazia axola ez zaiona, ez bait da tipo moralki fin bat, memela baizik). Izan ere, egungo demokratik bere papera ez du efikazagoa bezala jokatu nahi izaten, baina moralagoa bezala. Demokratarentzat (bere) demokrazia morala da. Haren edonolako etsaiak inmoralak dira. Paper hori jokatzen da behintzat. (Paper hori demokrazian beharrezko joko politiko maltzuraren parte bat bilakatuta egon ahal izatea bera, orain ez doakigun arazoa da). Hau da, Zesarraren emaztea onesta izatea, problema morala da. Baina jendaurrean onesta ematea, problema politikoa da. Demokraziari (politikari: ikus bedi Machiavelli arazo honetaz) ez zaio axola problema morala, itxurarena baino. Halere guk orain sentido moralean galdetzen dugu biolentziaren zilegitasunaz.

Demokrazia ez dela beste edozein sistema baino moralagoa

Ez dut ezagutzen Miranderen testurik, egia esateko, zuzenean problema honi buruz. Uste dut, gainera, egiago esateko, posible ere apenas litzatekeela gisa horretako testu bat haren pentsaeraren logikan. Baina, orainetik harantz, Mirande ulertu nahi badugu, geure arazo eta galderetatik daukagu hasi beharra; eta, beharbada gaur eguneko kezka horiek berak hobeto ulertzeko, izan dakiguke zimiko horiek bere denboran batere sentitu gabeko Mirande bat oso lagungarria. Zuzen ulertzen badut nik

haren jarrera, “zergatik izan beharko luke biolentziak demokraziaren aurka bidegabekoago”, imaginatzen dut kontragaldegingo ligukeela berak harri-harrituta, “monarkiaren kontra, tiraniaren kontra, beste edozein sistemaren kontra baino?”

Beraz, “orain demokrazia dago, biolentziak ez dauka izateko arrazoirik”, dioen tesiari, behin-behineko lan hipotesi gisa bederen, guk, Miranderen erizkerak ustez interpretatuz, antitesi hau kontrastatuko diogu: demokraziak bere morala du, eta demokraziak egia da ez daukala moralki zilegitzat (legitimotzat) biolentzia bere kontra, baina diktaturak ere ez zeukan, monarkiak ere ez zeukan eta sekula inork ez du eduki. Biolentzia erabili, sistema guztiek egin eta egiten dute, demokraziek apenas gutxiago diktaturek edo monarkiek baino: begira, oraintxe, Ertamerikara eta Namibia/Angolara, Iran/Irakera, Afganistanera eta Eritreara. (Ahal badute, jakina: bestela ez praxirik eta ez moralki egoten da. Ezina beti da santu zuria). Sistema guztiek daukate biolentzia legitimotzat ezezik birtutezkotzat edozein beste sistemaren aurka. Biolentzia *bere* kontra zilegizkotzat daukan sistemarik, berriz, ez dago. Biolentzia beti “besteen kontra” bakarrik izaten da legitimoa.

Zein sentido izan lezake, orduan, biolentziari bere legitimitateaz galdetzeak? Nondik egingo litzaioke galdera? Alegia, kristautasunetik edo, printzipioz galdegin liteke, hinduismotik hobeto agian, baina hemen ez gara biolentziaren legitimitate galdera erlijioso batetaz ari, hertsiki razional eta politikoaz baino (moral-politikoaz beharbada, baina laikoaz nolana ere), zentzurik ba ote duen horrek, eta zeintzu presuposturen gainean rigoroski.

Sistema bakoitzak izaten du bere legitimazio eta deslegitimazioen araudia, biolentziaren legitimazio eta deslegitimazioena barne. Araudi honek, ordea, sistemaren barruan eta sistemarekin koherentzian, sistemarentzat berarentzat hortakoz, balio du bakarrik, eta sistema onartu dela presuposatzen du. Sistematik kanpora denek balio erlatibo bera dute, hots, ezeinek ez du ezer balio. Plastikoki esateko: zaldun demokratiko bat absurdu bat litzateke historikoki nahiz moralki. Sant Jago-ren zaldi zuri beltzik bezain gutxi dago munduan liberazio mugimendu demokratiko, baketsu eta barkakorrik (apropos parentes artean utziko dugu orain Ghandi). “Moral” demokratikoak ez luke batere zentzurik aitonseme gizarte batean (homerikoan, adibidez): desohorezkoa eta lotsagarria izango litzateke. Eta zaldun gizarte

bateko moral-kodeak giza eskubideen aurkako krimen-kode bat irudituko luke demokrazia moderno batean.

Oso sinplea da: zertarako engainatu behar ditugu geure bu-ruak alfer-alferrik?

Demokrazia bera biolentziaren emaitza dela

Monarkiaren aurkako biolentzia, XVII. eta XVIII. mendeetako Frantzia esaterako, legegabekoa ezetik, sakrilegoa zen sistema teologiko-politiko haren kontzeptuetan. Baina sakrilegio hori zuzena eta legezkoa bihurtuz hasi da sistema demokratikoa, oraintxe hain zuzen berrehun urte duela. Revilla bahitu zutenean, horma batzuetan irakurri ahal izan genuen ez dakit zer bakeren aldeko mugimendu ez dakit zeinen batek idatzita: "el secuestro de Revilla no nos hace más libres". Nik ez dakit hori idatzi zuenak, hori egiaz neurtzeko metroa ere ba ote duen: nola dakien historian zerk eta nola egiten gaituen alegia askeago eta zerk ez. Badakiguna beste hauxe da: Europan sekula lehenago ez bezalako gerrak eta biolentziak ezagutuz ezagutu dela demokrazia modernoaren jaiotza. Orduan, "el secuestro de Revilla no nos hace más libres" idatzi duenari, demokrata baldin bada, beste galdera hauxe gehitu behar zaio: "¿Y cómo sí nos ha hecho más libres, según ustedes creen, cortarle su lindo cuello a la Marie Antoinette?". Demokrazia askatasuna baldin bada (biolentzia horregatixe deslegitimatzeraino), horrelaxe eta ez bestela bait dugu demokrazia hori lanean hasia: lepoak moztuz.

Beraz, sistema baten barruan egotea eta jokatzea onartu zutenek horixe onartu duten besteei (demokrazian, gure kasuan), "sistema honetan ez da zilegi biolentzia" argudiatzeak, arrazoi-keta bezala korrektua dirudi, edukin aldetik ia hutsala badirudi ere. Presupostu hori gabe, aldiz, "demokrazian ez da zilegi biolentzia", joko-arau demokratikoak onartu dituztenen protesta bat edo prediku bat bihurtzen da onartzen ez dituztenei. Demokraten dogma bat beharbada. Edo paranoia bat. Inondik ez arrazoi-keta bat.

Fede moderno demokratikoa

[4] Demokraziaren eta biolentziaren arazoa, Modernitatearen eta iraultzaren arazoa da. Askotan, orain, ahaztu nahiago izaten da hori, baina Iraultza modernitatearen ekarkina da eta *vice versa*.

Zergatik errepikatu ohi da, halere, arrazoi sendo bat balitz bezala: “demokrazian ez da zilegi biolentzia”? Bietako batean izan lezake sentidorik: ala badagoela, suposatzen delako, demokrazian aski fede jendearengan; ala predikatu egin beharra dagoelako, egon dadila nahi den fede hori egon dadin. Euskadin bigarrena izango da seguruena kasua: demokrazia honetan ez da erraz egotea fedea sobera, ahalegindu beharra dago egon dadin. Hori “demokraten” aldetik.

Besterik sinestarazi nahi izaten bazaigu ere, fedea ez da indarginen pribilegioa. Demokrazian badago fede bat, fede *magiko* bat. Eta demokrazia kontzeptuaren erabilerak askotan fede magiko horri erantzuten dio: Santutegi batean edo Elizan bezala, biolentzia ez da zilegi demokrazian. Sakrilegoa da (“bizitza sakratua da”, etab.). Edo alderantziz —kasu hemen!— sakrifizioan bezala, odola beharrezkoa da salbaziorako (askatasunerako). Kasu hemen, zeren eta, Mirande ulertzeko funtsezkoa izango bait da, beste ikuspegi batetik berdin-berdinak ager litezkeela ulertzea, iraultza egin ondoko demokrata (bakezalea) eta iraultza egin nahitako demokrata (borrokalari indargina). Bat Locke duzu eta bestea Rousseau.

Ikus dezagun guzti hau berriro eta bi partetan: A eta B.

[4:A] Nola arrazoitzen zuen Mirandek indargintzaren aldeko jarrera? Hori filosofia oso bat da. Ez da izaten arrazoiketara simple bat: biolentzia honegatik eta horregatik. Miranderen kasuan, bereziki, munduaren eta historiaren filosofia oso bat dago barnean. Orain ezin gara sartu horretan. Has gaitzen, bada, biolentziaren gogoeta zein situaziotan aurkitu ohi den edozein alderditatik ere, begiratzen, gure artean, ETaren aldeko eta aurkakoen artean. Miranderen beste kasu bat izan zen, horregatik ez da asko ulertzen.

Hasteko, biolentziaren [a] aldeko jarreran, beti, sinesmen bat eta arrazoiketara bat egoten da; eta [b] sinesmen bat eta arrazoiketara bat egoten da haren kontrako jarreran halaber. Hau esaten

dut, ez litzatekeelako batere inposiblea, oinarrizko sinesmenak funtsean berdinak izatea (eta moralak, hortaz), eta arrazoiketak izatea (kalkulu politikoak beraz) alde-banatakoak alderdi biotan.

Gauza garbia zera da: gauden egoeran, batek sinesten duela eta besteak ez duela sinesten gizarte "honetan". Biolentziaren alde dagoena, alde dago, sinestuta dagoelako, egungo egoerak ez gauzatu eta ez biderik ematen duela gauzatzeko, gizarteaz berak duen kontzeptua. Biolentziaren kontrarioa kontrarioaz dago sinestuta: honentzat, edo gauzaturik daude jadanik bere helburuak, edo eta emanik daude behintzat bideak eta baldintzak haiek gauzatzeko.

Goazen lehenengo biolentziaren etsai "demokrata"rekin: sisteman sinesten duena da, gutxienez haren posibilitateetan. Zein sentido du horren biolentziaren kondenak? Sistema batek, sisteman sinets dadila, behar du (ez derrigor arrazoiketaz, edo apenas behintzat). Sistemaren barruan, biolentziaren aurka predikatzea, sisteman sinesmena predikatzea da. Zenbat ahulagoa sinesmena (dudagarriagoa legitimitatea: nolatan da demokratikoa polizia hori? Edo Fraga? etab.), gogorrago predikatu beharko da. Honen berdina balio izaten du, praxian eta terreno politikoan, biolentziaren kondena hori Eliza katolikoak egin, Gobernuak, prentsa "independentek" ala Gortearen teologoen. Eta honekin ez da esaten, kondena guztiok politikoki berdina baloratzea dagoenik, are gutxiago moraliki; baina soil-soilik, kondena guztiek politikoki sistemaren alde jokatzeko dutela.

Fedeak eta arrazoiketak

Biolentziaren arazoa egungo egoeran guztiz konplikatzen duena, izaten da, ez bakarrik atzo biolentzia txalotzen (edo praktikatzen) zuten "demokratak" orain batera etortzea hura beti kondenatu izan duten "faxistekin", ezpada ezkutuan geratzen dela [a] zein fedetatik egiten diren haren gaitz eta onerizpenak, eta [b] zein arrazoiketara moduz arrazoituko litzatekeen, demokratikoa suposatu nahi dugun fede horretatik, razionalki, biolentzia konkretu baten on zein gaitzeritzi beharra. ("Gerra justua"ren baldintza razionalak). Biolentziari buruz kasik predikatu bakarrik egiten bait da ("biolentzia guztiak", "edonondik datorrela"...), ez arrazoitu. Izan ere, biolentzia bati razionalki gaitzeritzi ahal izateko posibilitatea, biolentzia hari berari beste kondizio

batzuetan onerizteko posibilitateak dago baldintzatuta, eta zehatz-mehatz honen sentido posibleak mugatzen duelarik haren sentido posible guztia, hain zuzen. Baina biolentzia "on" baten posibilitatea (zeina gabe biolentzia "gaizto"rik ez dagoen), federen baten gainean bakarrik pentsa daiteke. Hots: fedeak bakarrik bihur ditzake biolentziak onak ala gaiztoak.

Alegia, federen bat niretzat kontu honetan denek dute, biolentziaren kontrakoek nahiz aldekoek. Are, fedeak fidatzea, sistema edo soluzio politiko batzuen egokitasunean konfidatzea, sinestea, esanahi duen zentzuan, politikak, ekintzak, beti fede bati darraio eta fedean tinkatzen da. Kontua ez da, beraz, batzuk fededunak eta besteak ez, edo batzuk besteak baino fededunagoak izatea, baizik eta Modernian fedeak berak (ez erlijiosoak bederen) arrazoimenari eta kalkulari azpiratzea, bere oinarripen eta arrazoiketaren aproba pasatzea, esigitzen dugula. Eta razionalitate hori nolabait demokraziarekin identifikatzen dugula.

Fede bat, jarrera bi

Gauzak errazteko: biolentzia kondentatzen dutenen artean denetik ibiliko da zalantza gabe, baina eman dezagun [a] denak zinez demokratikak direla; eta eman dezagun, biolentziaren aldekoak denak [b] independentistak direla. Zer gertatzen da? Independentzi eskubidea, berez, kontzeptu modernu gisa, eskubide demokratiko bat da. Alegia, demokratismoa bezalaxe independentismoa, biak arrazoi modernoaren emaitzak dira. Orain berdin zaigu zernahi gehitzen diogula independentistari: sozialista dela, komunista dela, edozerista dela. Beti izango dira razionalismo modernua deituaren kumeak, razionalismoari obligatuak.

Hau da, gizartearen eta gizadiaren antolaketa "razional(ago)" batean sinestunak dira biak. Razionalismo modernuak fede horixe bait zuen: askatasun, berdintasun eta anaitasuneko gizarte bat razionalki eraikitzeko fedea. Horixe baino ez da izan demokrazia.

Demokrazia, ordea, bitarik da: [a] printzipio batzuk eta ideal bat (razionalismoarena): maila honetan, biolentziaren aldekoak eta aurkakoak, biek esan daiteke bategiten dutela, [b] gizartearen erakunde eta antolaera praktiko bat, bere baldinkizunekin (Frantziako Errepublika, Espainiako Erresuma, Sobieten Errepublika).

Biolentziaren efikazia arazoa eta legitimitate-arazoa

Biolentziaren aldekoak, biolentzia legitimatzeko [a] mailan eramaten du errazena bere diskurtsua, J. Lockeren arrazoiaren tankeran edo: "porque es razonable y justo que yo tenga derecho a destruir aquello que me amenaza con la destrucción". Adibidez: "demokrazia HAU ez da zinezko demokrazia, zeren eta..." Edo: "helburu hauxe du gure borrokak: tamalez indargintzaz bakarrik lor daiteke helburu hori", eta jeneralean helburua ona edo onargarri samarra izaten dela, ideal demokratikoen arabera, apenas egoten da eztabaidatzerik. Askoz zailagoa edukitzen du [b] mailan bere burua legitimatzea: jomuga horretarako erabiltzen den biolentzia baliozkoa eta efikaza ere badela erakustea, eta beraz biolentzia positiboki ona dela. (Zailtasun honi konotazio moralik eman nahi izatea, aldiz, ikaragarria da, eta, nik uste, "biolentziaren kritiko" batzuek inkontzientziaz bakarrik erabil dezakete: bai bait dirudi, biolentzia zenbat handiagoa eta efikazagoa, efikazagoa eta moralagoa, epaitu beharko litzatekeela, hots, legitimoagoa: hau da, egunean polizia espainol bat hiltzea baino ehun hiltzea moralagoa litzateke!).

Biolentziaren kontrarioak, alderantziz, errealismoaren eta praktikotasunaren mailan izan behar luke errazena arrazoitzea (Estatuaren aparatxu guztia bere eskuetan dauka): horretarako aski luke, metodo demokratiko eta bakezko lor daitezkeela helburu haiek, erakustea (helburuak berak ukatzen ez badira behintzat). Erabili ere, batzuetan erabiltzen da arrazoi modu hori. Baina kuriozosa zera gertatzen da hemen: ez dela nonbait askitzat ematen, biolentzia efikazia faltagatik edo, politikoki, kondentatzea; "demokratak" batez ere moralki sentitzen du biolentzia kondenatu beharra eta kondenatzeko amorrazioa. Zergatik? Bere efikazia baino, biolentziak batez ere bere legitimitatea disputatzen diola, sentitzen duelako ("horko gizarte hori ez da razionalki eraikitako gizartea: nik eraikiko dut hori"). Biolentzia moralki zilegi izan daitekeela pentsatzeko posibilitatea bera behar da, beraz, suntsitu, kontrara inork demokrazia inmorala kontsideratzeko posibilitatea nahi bada eliminatu.

Plastikoki esan: atzoko Marie Antoinette-ren borreroaren gaurko interesik larriena, ongi aseguratzeta da, orokor eta unibertsalki onar eta aitortu dadila itsu-itsu, esentzialki inmorala borroroa izatea bera dela. Ez dakiola inondik beste borrero bat berari agertu: ez dadila alegia inor borrarotarako legitimatuta sentitu.

Predikari-gerra bat: gerra gerrari

Justu horregatixe, Estatu demokratikoarentzat inportantziarik handienekoa bilakatzen da guztiz potentziaztea bere moraltasunaren propaganda eta bestearen inmoralkeriarena (eginkizun honetan, Jainkoaren graziazko monarkietan teologia batek bezala, zerbitzu ederrak eskainiko ditu filosofia batek). Ezin du bere burua legitimatu, bestearen legitimitatea posible den bitartean: hau da, bestea arras deslegitimatatu beharrean dago. Nola deslegitimatatu? Berdinez biolentzia eta irrazionalkeria, razionalitatea eta demokrazia. Eta hor gauzkazu hasierako puntuan berriro: predikatu beharra dago burdinez eta odolez sinetsmena, beharrezkoa da sinets dadila sistemaren razionalitatean, etab.

[4: B] Planteamolde guzti hauetatik Mirande kanpoan gertatzen da: hori da Miranderen partikularitatea euskal pentsamenduan.

Oinarri komun dogmatikoa

Izan ere, esandako guztiaren azpian beti funtzionatzen ari dena, dogmatikoki, aldeko nola kontrako biolentziaren planteamenduetan, presupostu demokratikoak dira, hots, judu-kristauak. Azken finean ideal demokratikoak alderdi biek onartzen bait dituzte idealtzat: ideal judu-kristauak.

Baina presupostu horiekin erdiestea gehenez ere posible dena, da, "kasu honetan biolentzia ezinbestekoa gertatzen zaigu, tamalez: sentitzen dugu". (ETAk erabiltzen duen tonua gutxi gorabehera horixe izaten da bere komunikatu batzuetan). Sekula ez: "edozein kasutan ere, naturala eta ederra da borroka; ona da herri sano batentzat".

Horregatik da zeharo desberdina funtsean, ETAn biolentziara eramango duen planteamendua eta Miranderena. (Luis M. Mujikak bere *Miranderen poesigintza*-n arrazoi guztiz errepikatzen duena da hori). Utz dezagun, bada, orain, biolentziaren aldeko demokrata, goazen aurrera kontrakoarekin.

Soma daitekeenez, Miranderen arrazoiketa azpian ere fede bat dago: zer den ona eta naturala gizakiarentzat nahiz herrientzat, zer izan behar duen historiak, etab. Eta berdin da demokra-

ten arrazoiketaren azpian, fedea dago: giza ontasun "naturallean", eskubide "naturaletan", etab. Are, bere burua hobeto aseguratzeko, sistemak, zentzu kritikoaren lekuan, fedea indartzen eta indartzen du, azkenean sistema osoa legitimatzen duena (teokrazia batean bezalaxe), fedea izateraino, ez arrazoiketa. Fedea demokrazian: demokrazia gizadiaren "sistema naturala" bezala ulertzen da. Orduan denak naturala dirudi demokrazian, gauzarik antinaturalenek ere: soldaduzkak, etab., edo Alderdi batek jartzea herri guztiaren Gobernu. Demokraziak orduan, grazia sakramentalak du bapatean lehengo polizia faxistak demokrazia bihurtzeko eta lehengo borrokari antifaxistak faxista.

Razionalitate irrazionala

Baina honekin paradoxa nahikoa bitxi batera heltzen gara: razionalismoari uko eginez, bizitzaren eta nahimenaren lehentasun aitortza irrazionalistatik abiatu den Mirande, askoz ere razionalagoa dela azken finean, abiatu razionalismotik egin duen, baina bere sistema osoa legitimatzeko lan guztia fedeari gomendatuz bukatzen duen demokrazia baino. (Bigarren partean hobeto konkretatuko dugu hau). Utz dezagun oraingoz Mirande. Ortega y Gasset-ek aspaldi ohartarazia da demokrazia mendebaldarraz: historikoki begiratuta, fede hori demokrazia modernuan, XVIII. mendeko ilustrazioan eta XIX. mendeko borroka liberaletan, razionalitatearen fedea zela barnagoan. Razionalitatean eta gizartearen eraketa arrazoizko batean sinesten zutelako, sinesten zuten demokrazian behialako iraultzaileek. Gaur, aldiz, demokraziaren uste onari eusten zion razionalismo klasikoak aspaldi porrot egin duenean, demokraziaren mito soilak jarraitu egiten du pietate publikoan eta propagandako liturgian, baina bere barne-kontraesanaren korapiloan harrapatuta geratzen da, Ortegak ohartarazten zuen eran in *El tema de nuestro tiempo*: "La fauna característica del presente es el naturalista que jura por el positivismo, sin haberse tomado jamás el trabajo de replantearse el tema que aquel formula; es el demócrata que no se ha puesto nunca en cuestión la verdad del dogma democrático. De donde resulta la burlesca contradicción de que la cultura europea actual, al tiempo que pretende ser la única racional, la única fundada en razones, no es ya vivida, sentida por su racionalidad, sino que se le adopta místicamente. El personaje de Pío Baroja, que cree en la democracia como se cree en la Virgen del Pilar, es, junto con

su precursor, el farmacéutico Homais, representante titular de la actualidad (...). El tradicionalista está de acuerdo consigo mismo. Cree en esas cosas místicas por motivos místicos. En todo momento puede aceptar el combate sin hallar dentro de sí vacilaciones ni reservas. En cambio, si alguien cree en el racionalismo como se cree en la Virgen del Pilar, quiere decirse que ha dejado, en su fondo orgánico, de creer en el racionalismo. Por inercia mental, por hábito, por superstición —en definitiva, por tradicionalismo—, sigue adhiriendo a las viejas tesis racionales, que exentas ya de la razón creadora, se han anquilosado, hieratizado, bizantinizado. Los racionalistas de la hora presente perciben de una manera más o menos confusa que ya no tienen razón...” (Bere buruari uko eginez, boluntarismoan itsu-itsu bukatzen duen razionalismo horretara, gerotxoago berriro itzuliko gara).

Kraskaturik arazoizkotasun propioaren barnean, zalantza-kor eta inseguru, demokrata horrek enpeinurik amorratuena erabiliko du “besteen” irrazionalkeria aldarrikatzen, bere barnekoaren estalki. Biolentzia, bistan da, irrazionala deklaratu du, biolento denak irrazionalak. Eta bost axola izango zaio, gutxi gorabehera gizadiaren historia guztia, bere historia propioa tartean, demokraziaren beraren jatorri historikoa, irrazionala deklaratzeko badu horrela. Ezkutatu nahi duen bere oinarrizko barne-kontraesanaren arabera, gure demokrata zintzoa zentroko estremista bat bilakatuko da eta moderazioaren fanatiko bat. “Mediokrata” bihurtzen da.

Labirinto moraletatik planteamendu historiko eta politiko baterantz

[5] Kasu! Biolentzia demokrazian inmorala eta zuzengabekoa dela, esaten duen tesiari, guk Miranderekin aurrez aurre ipini nahi genion antitesia, ez da “biolentzia bidezkoa da demokrazian”, baizik eta, beharbada, biolentziaren eta demokraziaren arteko arazoa ez dela batere moral arazorik, bestelako asuntoren bat baino (ikusí egin behar nolakoxea): alegia gizonaren historian, demokrazia sistema erlatiboki egoki bat besterik ez dela, beste sistema batzuen artean posibleetako bat, besteak baino ez moralagoa eta ez inmoralagoa berez. Abiapuntuko, beraz, demokraziak ez digu berak beste gabe ezer legitimatzen, ez deslegitimatzeko. Beste edozein sistema bezalaxe, bera izango dugu, kasuan-kasuan, aldian aldiko baldintzetan eta testuinguruan, legiti-matu beharrekoa.

Orduan perspektiba guztia aldatzen zaigu goitik beheraino gure gogoetan iharduteko, hau da, Miranderen logika ulertzeko. Orain bai, efikaziaren galderak burua zutitzen digu. Galdera jadanik ez da, biolentzia moralki zilegi ote den, ezpada, askatasun mugimendu batentzat bederen (abertzaletasunarentzat adibidez), biolentzia baliapide efikaza al den askatasuna lortzeko. Demokraziak ez du oinarri sakratu ukiezin baten balioa, gainerako dena haren arabera legitimatzeko eta deslegitimatzeke, ezpada bera dago kuestionaturik: esate baterako, zer balio du demokraziak independentzia lortzeko? (Independentzia nahi bada). Edo orokorkiago: nola baloratu gaurko demokrazia mendebaldarraren momentua historiaren kurtsuan? (Ez bait da ahaztu behar: Europak historia luzea du eta demokraziarena nahikoa llaburra da). Gizarte europarraren aitzinapen urratsa da, ala beherapenera eta dekadentziara jauzi bat, aldi berean dekadentziaren produktua bera ere?

Arazo hauek denak, berriro, ez zaizkigu (orain) berez interesatzen, baina Mirande bere errealismo guztiarekin ulertzeko. Eta Miranderen jarrera hauxe izan da: [a] *planteamendu teorikoan*: biolentzia eta demokrazia auzi moral horiek problema faltsuak eta soluzio gabeko problemak direla, zartagia kirtenetik daukanarentzat bakarrik interesanteak. Eta horien guztien iturburua, demokrazia sistema bezala gezurraren eta hipokresia kontsaktuaren sistema izatean dagoela, judu-kristautasun politikoan. *Planteamendu politikoan* beraz [b]: lehenengo, guk geuk, euskaldunok, ezingo dugu sekula askatasuna lortu demokratikoki. Bigarren, demokraziak ez digute sekula eman egingo gure askatasuna. Tesi bion oinarrian hirugarren bat dago, funtsean biok esplikatzeko dituen eta [a]ra garamatzana. Eta da, Europa guztiari eta historiari begira, demokrazia bera, sistema ideal bat izatetik oso urruti, europar kulturaren eta tradizioaren desgraziamendu hutsa eta muin-galera guztizkoa dela. Orduan, euskaldun aberzale baten kasuan behintzat, eta funtsean edozein europar "ez kristautu"renean, biolentzia demokraziaren kontra, ez bakarrik ez da ilegitimoa, baina kasik obligazio moral bat bihurtzen da. Hau da Mirandek Nietzsche eta Spenglerengandik orokorki daukana, bigarren partean astiroago ikustekoa.

¹ LARREA, J.M. (ed.) (1985): *Miranderen lan kritikoak*, 1985, 32 (aurrerantzean: lk eta or.).

² *Ib.*, 33

- ³ Ib., 32
- ⁴ Ib., 45
- ⁵ Ib., 47. Berton or. 104, PNVren politikaren kritika orokorra: "politique maladroite et incohérente, qui en fin de compte aura été funeste et pour le peuple et pour la langue basque". Eta demokrazia frantsesaren parodia, Ib. 119-120. Puntu guztiok hemen ez daukagu garatzerik, seinalatzera soil mugatuko gara.
- ⁶ Ib., 43
- ⁷ Ib., 20
- ⁸ Ikus lk 31: "Mark Legasse-k dioenez, anarkhistak gara... Nire ustez, haatik, atzerritarrek dute anarkhismu galgarri hunen hazia gure baithan erein, Euskalerrri elkhartu eta indaritsu baten bildur zirelakotz".
- ⁹ Ib., 62. Ikus baita ere berton or. 22-23
- ¹⁰ Ib., 62-63

Arestiren literatur hizkuntzaz

Mikel Hernandez Abaitua

Orain, asko, oso baikor gaude euskal literaturaren egoera itxaropentsuaz, baina ez genuke ahaztu behar baikortasun baldintzatua dela. Asko aurreratu da, seguraski, prosaren alorrean, baina, poesiarena ordea, abandonatzen ari garela dirudi, etxekalte bailitzan.

Orain, zenbaitzuk bereziki, oso baikor daude prosa-liburu batzu dexente saltzen direlako, inoiz baino narratiba gehiago idazten eta saltzen delako, baina zailena falta dugu: goi-mailako prosa kulto bat jende artean normaltzea. Ez genuke hori begien bistatik kendu behar, eta badakit jende askok ez duela kentzen. Honelakoetan, beharrezkoa izaten da lehendabizi abangoardia bat edukitzea. Zorionez, lan hori XVI. mendean hasi zen Leizarragarekin, nahiz eta tradizio horren probetxamenduak guk nahi genukeen baino aintzngibel gehiago izan duen. Baina inoiz ez da seguraski oraingoa baino, une hoberik izan, Leizarragarengandik hasi eta Axular, Etxeberri Sarakoa, Duvoisin, Orixe..., baina baita Fernando Amezketarra, Xenpelar, Txirrita eta abarren (nahiz eta prosa ez idatzi; hizkeraz ari naiz) aportazioak jasoko dituen prosa landu bat osatzeko.

Orain dela urte batzuk esan zuen Atxagak, elkarrizketa batean, gure aurrekoek euskara batuaren ipurlana egin zigutenari esker beste arlo batzutan aurrera genezakeela gure literatura. Egunen batean ikusiko da literatur prosa kultuaren alorrean Atxagari zenbat zor diogun. Edo beharbada ahaztu egingo gara, zeren denbora "borragoma itzela bait da". Esaterako, Ruper Ordorikak berak ere esana du Atxagaren zenbait espresioek nola txunditu zuen: zeinen berriak gertatzen ziren garai batean "ezpain nikotinatuak" eta honelakoak, baina orduan berri gertatzen ziren hainbeste gauza, normaldu xamarrak ditugu gaur egun; hain zuzen ere, gure prosan teorizatu gabe dagoen gauza asko, oso azkar eta zorionez normaldu da azken urteotan. Esan genezake, Atxagak, jendeak berehala bereganatu dituen erregistro berriak sortu dituela prosan. Dena edo ia dena ezabatu denborak, bai, eta esaterako, *Etiopia* publiko zabal batek irakurriko balu (*Obabakoak* bezainbeste irakurriko balitz, esan nahi dut), gauza asko galduko luke, jadanik perspektiba galdurik dudelako. Liburu horretan aurkitzen diren erregistroak, prosaren doinua, erritmoa, sintaxia, linguistikan "periodo" deitutakoa..., berehala izan ziren beste idazle batzuek berenganaturik. Nori berea ("oiloi oloa eta astoi lastoa" esan behar genuke, baina ez dirudi oso egokia, "asto" hitzak sortzen dituen anbiguitate ironikoengatik).

Beste literatura normalagoetan gertatzen diren elkarrekiko eraginak, gurean ere beste garai batzutan baino maizago gertatzen direla dirudi. Adibide bat jartzeagatik, Patxi Perurenaren *Emily* liburuan agertzen den "Emilyren biografi tanta batzuk" atalak dena zor dio, ene ustez, Atxagaren *Etiopia*-ko "Piolet poeta" ipuinari euskararen erregistro aldetik, doinu aldetik eta forma eta sintaxi aldetik. Perurenak hor erabiltzen duen prosa pentsaezinezkoa da Atxaga gabe. Liburuak beti mintzo dira beste liburuez. Era berean, Atxagak asko zor dio Arestiri, hizkera klasikoaren (idazle zaharrengandik jaso) eta hizkera popularren (bertsolariengandik eta herriko jendearengandik jaso) sintesia egitearen ideia, esaterako, gaurko euskara kulto baina funtzionala lortzekoa.

Hasieratik sumatu genuena¹, Arestiren literatur hizkuntzaren lorpena, ahozko eta idatzizko tradizioen sintesia egitea alegia, Arestik berak formulaturik aurkituko genuen geroago, haren *Zeruko Argia*-ko artikulu batean² (nik garai hartan, jakina, irakurri ez nuena, bost urte bakarrik bait nituen; Bilbon bizi nintzen

orduan baina ez nuen Aresti kalean sekula topatu, tamalez). Txantxak alde batera utzita esan dezagun, jende gehiena ados egongo dela (uste dut) Arestiren literatur hizkuntzan hiru etapa daudela esaten badut, hemen arduratzen gaituen arazoak den bezainbatean (ik. 2. oharra). Geroago bere euskara literarioa izango zenaz goiz xamar jabetu zela dirudi, zeren hori lortzeko aurreko etapak oso llaburrak izan bait ziren, hau da, tesi eta antitesi dei ditzakegunak.

Tesiaz den bezainbatean, oso euskara klasikoz egina dago, lapurtera klasikotik oso gertu, lapurtera klasikoa oinarri hartuta. Oso hizkera kulto eta iluna gertatzen da (ikus "Dance dans la prière", "Godalet dantza" etabar)³. Badakigu gauza bat dela idazte-data eta beste bat argitaratze-data, eta beraz, guk ditugun datuez ezin irmoegi fidatu. Arestiren poesiari eta haren prosari begiratu eta eboluzioak ez datoz bat argitaratze-datei bakarrik kasu eginez gero. Dena dela, hemen ez gaitu gehiegi arduratzen antitesiranzko aldaketa ze egunetan, ze hilabetetan gertatu zen zehazki aurkitzeak. Beraz, esan dezagun, antitesiaz den bezainbatean behintzat, haren poemagintzari begira oso euskara herrikoa aurkitzen dugula. Tesia eta antitesia etapa kronologiko ezberdinetan kokatzen zirela uste izan nuen hasieran, baina badi-rudi biak batera bizi izan zirela elkarrekin Arestigan. Dena dela, bi joera horiek egotea da garrantzikoena, lapurtera klasikorantz lerratzen dena lehenik eta euskara popularrago batetarantz (bizkaiera batez ere) lerratzen dena bigarren. Ene ustez, sintesia *Maldan behera*-tik aurrera aurkituko dugu eta Arestik ez du bere bizitza guztian inoiz lagako (deus ahazten ez badut behintzat). Lehen aipatutako artikuluan, horrela azaltzen du Arestik berak arazoa: "gure bi literatur-tradizio eskribitu eta hitzeginen sintesi bat egin behar dugu, eta euskaldun jentearen ezpainetan jarri" (ik. 2. oharra).

Seguraski inori ez diogu Arestiri bezainbeste zor gaurko euskara batua. Geroago teorikoki formulatuko zen euskara batu hori, bederatzi urte lehenago zeukan Arestik eginda. Eta Arestik berak eskatu zion Euskaltzaindiari beronen 50. urteurrenean euskara batua egiteko bileraren deialdia. Ez dakit noizbait eskertuko zaien Arestiri euskara literario kulto bat egiteko egin zuen esfortzu handia. Ez da harritzekoa Mitxelenak geroago proposatu zuen euskara batua eta Arestirena bat etortzea, zeren Arestik Mitxelenaren *Fonética Histórica Vasca* estudiatu zuen goitik behera (I. Sarasolak behin Euskal Telebistan esan zue-

nez), zein euskara literario erabili behar zuen ondo konfirmatzeko (jakiteko baino, ezen *Maldan behera* 59koa da eta *Fonética* 60koa, eta jakina Arestik bazituen ordurako klasikoen irakurketa eta azterketa nahikoa aurreraturik, ez ahaztu zenbat ordu eman zituen Euskaltzaindiaren egoitzan euskal klasikoen liburu osoak eskuz kopiatzen; ez ahaztu Arestiren hiztegia eta klasikoei buruzko artikuluak, geroago argitaratuak). Gauza jakina da zein sutsuki eskatzen zion euskara standar bat Euskaltzaindiari, baina bere nahia, ene ustez, ez zen maila linguistiko huts batean gelditzen. Hizkuntza kulto bat egin nahi zuen Arestik, hasiera batean oso goi mailakoa emango zuen hizkuntza, egun batean edozeinek edozer gauza idazteko modukoa izango zena. Gaur frantsesez edo gaztelaniaz (eta hizkuntza landu eta kulto guztietan) gertatzen den bezala, zeren uste dugun baino kultoago bait dira normalean erabiltzen ditugun gaztelania eta frantsesa, eta kultotasun horrekin familiartu garelako ez gara ordea, horretaz konturatzan, Arestik noski horrelako zerbait lortu nahi zuen euskararako, inork baino sutsuago. Eta hori, nahi genukeen baino polikiago bada ere, lortzen ari dela uste dut, euskaraz idazten eta ikasten ari garen euskaldun guztiei esker, Villasantegandik hasi eta EGA ikasten ari den azken pertsonaganaino, zeren helburua ez da lortuko, hiztun arruntak euskara kulto hori familiartatez erabiltzen ez badu. Euskara mota hori, nola edo hala, badaukagu (osatu beharra badago ere), baina jende gutxi darabil. Egitea da errazena (erraza ez izan arren), "euskaldun jentearen ezpainetan jartzea" da zailena.

Euskara hori lortzeko ez da nahikoa Euskaltzaindiaren lan teorikoa, linguistikaren arloan, gauzatzea. Goi-mailako euskara literario kultoa lortzeko, idazleen beharra nahitanahiezkkoa da, hauek ukitu estetiko bat eman diezaioten. Aditz laguntzailearen tratamendu estilistikoaz aritu nintzen beste leku batean⁴ eta guzti honetaz ari nintzen han ere. Beste hizkuntzetan ia edozein liburutan aurki dezakegun "normaldutako" dotoretasun minimozko hizkuntza alegia, prosa batez ere. Hizkuntza literario batean ez da nahikoa gramatikalki "zuzena" izatea, hizkuntza eufoniko eta atsegina ere lortu behar da. Zenbait idazleren prosa hartzen dugu eta esaten denaz gain hizkuntzak duen aire atsegina gustatzen zaigu. Alde horretatik hain zuzen ere, ez ditugu Aresti eta beste autore batzuk behar bezainbeste probetxatu. "Gramatika gramatikal" bat ez da nahikoa. Sintaxi gramatikal-estetikoa ere behar dugu eta euskaldunen artean hedatu. Alde horretatik begiratuta

ez da euskararentzat oso gauza egokia linguistez bakarrik osatutako Euskaltzaindia.

Sarrionandiaren hitz batzuk ekarri beharko ditugu hona orain:

“(…) Manuel Curros Enriquez kontziente zen eguneroko hizkuntza ez zela aski, landu behar zela lengoia intelektual eta literario baten xerka. Berbera zen euskararekiko, Gabriel Arestiren arduraren handienetarikoa bat”⁵.

Gauza nabaria da gaurko egunean idazten duten idazleetarik euskara intelektual eta literario bat lortzeko gehien saiatzen denetarikoa dela Sarrionandia. Jakina, ez genuke Mirande ahaztu behar, erreibindikatu behar diren autoreen artean, Sarrionandia eta Atxagagan hain eragin handia duena, Arestigan izan zuen bezala. Gaur egun, behiala Arestiren lagun izandako kritiko bat Miranderen garrantzia estali nahian edo dabil, haren ideologia-gatik, euskal prosa kulto eta intelektuala eraikitzeko duen garrantzia ahaztuz. Adibide asko aipa liteke gaurko idazleen artean. Villasanteren azken liburuan agertzen den euskara dotore eta landua aipa genezake. Bera ere mintzo da, liburu horretan, oraingo behar dugun prosa landuaz, arazoari kapitulu oso bat eskainiz: “Prosazko tradizio sendo bat osatu beharra”⁶. Egia esan, euskaraz lan egiten edo idazten ikasi nahi duen ororentzat ezinbestekoa dela iruditzen zait, liburu hau irakurtzea. Euskal Telebistan, itzulpengintzan, egunkarietan eta irratietan lanean hasi den jende berriarentzat eta denontzat ere oso garrantzizko liburua da, denok egiten ditugun oker guztiak zuzentzeko. Beldur naiz liburu hori gehien behar dutenak ez ote diren izango, prezeski, irakurriko ez dutenak. Areago oraindik, euskaraz idazten duten guztiak, gutun bat bada ere, irakurri behar lukete. Inoiz ez dut garbizaletasunaz eta gainerako auziez hain artoski idatzirik dagoen ezer irakurri.

Esan dezagun, bukatzeko, garbizaletasunaz eta Arestiren prosarekin zerikusirik baduen Sarrionandiak idatzitakoa: “Gabriel Arestirenean funtsezkoena euskara erromanizatuago eta intelektualago baten proposamena zen”⁷.

Arestiri ez diogu zor, harako hark esango lukeen bezala, “literatura oso bat” soilki, esfortzu linguistiko-literario itzela baizik, eta Arestiren garrantzi literarioa orain gaitzesten dutenei esan behar zaie, hori baino garrantzizkoagoa dela Arestiren hizkuntza literarioa bera idazten ikasi nahi duen ororentzat, nahiz eta Arestiren euskara erromanizatua batzuei batere gustatu ez.

Behin batean Jon Juaristik esan zuen Arestiren pertsonaiek Leizarraga eta Axular bailiran hitz egiten zutela. Agian ez da hemendik ehun urtetara haien hizkera hain harrigarria gertatuko.

Arestiren obra "osoak" zenbat eta gehiago irakurri, orduan eta konturatzenago gara españolizatzen hartutako gizon hark zenbat maitatu zuen euskara eta zein lan ikaragarria egin zuen (bai filologikoki, bai literarioki) euskararen alde eta Euskal Herriaren alde.

-
- ¹ Aspaldi arduratu ninduen arazo honek; ikus "Aresti gaur", in: *Oh! Euzkadi*, 15.zenb. 1983, eta "Nazim Hikmet eta Aresti", in: *Argia* 975.zenb., 32. eta 33. or., 1983.
 - ² "Pernando (Amezketarra) errespetatu behar", in: *Zeruko Argia*, 1964-IX-6, ikus Susa argitaletxeak argitaratutako obra guztietako hamargarren liburua, 192-193 or.
 - ³ ik. obra guztietan 1.liburuan lehen 150 orrialdeak (Susa-ko edizioan).
 - ⁴ "Euskal aditz laguntzailearen problematika estilistikoa. Arestiren prosaz oharrrak", in: *Jakin*, 48.zenb. Uztaila-Iraila, 1988.
 - ⁵ Arestiren obra osoak, 8. liburua, 286.or. Susa, Donostia, 1986.
 - ⁶ *Euskararen auziaz*, Lizarra, 1988.
 - ⁷ Ik. Arestiren obra osoetan, 8.liburua, 290.or. Susa, Donostia, 1986.

Elebitasunaren arazoa euskal narratiban

Mikel Hernandez Abaitua

Gure gizartea nagusiki erdalduna denez gero, oso zaila omen da gizarte hori jasoko lukeen, isladatuko lukeen, nobela bat euskara hutsez idaztea. Hori da azken bolada honetan leku askotan entzuten eta irakurtzen dudan baieztapena. Ideia hori, nik dakidala, neuk bota nuen lehen aldiz, oso ilunki, oso gaizki azalduta eta oso lardaskaturik, *Oh! Euzkadi* aldizkariko orrialdeetan¹. Berehala jaso nuen Joxe Azurmendiren erantzun argia arrazoirik ez nuela esanez².

Garai hartan, orain dela zortzi urte, jende gehienak esan zidan oker nengoela. Eta gaur egun, jende askok arrazoi ematen bide didan une honetan, iruditzen zait, ez neukala orduan uste izan nuen bezainbeste arrazoirik.

Pozgarria gertatzen da, duela zortzi urteko eremua gogoratu, orain kezka literarioak eztabaidatzeko beharra badagoela ikuste. Baina batzutan, gauza berriak esateko ahalmenik ez dagoela ematen du. Ez da nahikoa betiko ideiak behin eta berriro

errepikatzea. Nik uste dut problema narratibo hori egon bada-goela, baina apur bat tristatzen du inork ez duela soluziorik apor-tatzen ikusteak eta badirudi behin batek esandakoa errepikatзера kondenaturik dagoela jendea.

Nik uste dut, problema egon arren, soluzioa nahikoa sinplea dela. Arazo hori zeharo gaindigarria dela iruditzen zait; beraz, gaur egun garai batean ukatzen nuenarekin ez nago ados. Jakina, egoera ere aldatuta dago. Orain, gure gizartea ikaragarri erdal-dundua dagoelarik, ezer ez dela aurreratu, iruditzen zaigu baina niri kontrakoa iruditzen zait. Botoi bat sakatu eta orain dela hogeit urteko Euskal Herrira bueltatzeko ahalmena bagenu, nik uste dut konturatuko ginatkeela, euskararen paisaia apur bat aldatu dela Euskal Herriko zenbait lekutan. Gainera Euskal Te-lebistak asko lagundu du arazo horretan, egoera fiktizio gehiago euskaraz bizitzeko aukera eman digu, nahiz eta askotan bi-koizketak oso egokiak ez izan. Aldaketa minimo bat gertatu da gauza askotan. Lehen zenbait egoeratan inolaz ere esaten ez zi-ren neologismoak entzun daitezke orain leku askotan. Perspekti-ba galdu dugu, baina iruditzen zait, telebistak (eta beste bitarte-ko batzuk ere), asko lagundu duela zenbait hitz, zenbait hizkera normaltzen, eta garai batean hain artifizial gertatzen ziren hainbat eta hainbat gauza oso normal bihurtu dira gaur. Gaur egun errazago gertatzen dela iruditzen zait euskal gizartea islada-tuko lukeen nobela bat New Yorkera joan gabe idaztea. Gezurra badirudi ere, euskara prestatuago dago horretarako (nahiz eta betiko apokaliptikoek ezetz esango duten). Gainera, gaur egun, ez da pekatu mortala narratzaile orojakilea erabiltzea eta arazo honetan horrek ikaragarri laguntzen digu, zeren askoz errazago gertatzen bait da erdararen oztopoa horrekin gaintzea, konta-keta oso behaviorista bat erabiliz egitea baino. Ez naiz luzatuko erdararen oztopoa gaintzeko erabil daitezkeen baliabideez, ze-ren eta mugimendua, ibiliz demostratzen bait da.

Goazen orain, dagokigun arazoaz den bezainbatean, azken bolada honetan esan direnetarik batzuk ikustera:

“Esaten dute ea zergatik ez dagoen euskal burgesia ispilatzen duen nobelarik. Euskal burgesia erdaraz egiten duen gizartea delako. Beraz, euskaraz jartzea artifiziala da. Gure problema izugarria da, gure gizartea benetan erdal herria delako. (...) Dro-ga-mundua Bilbon kokatzen baduzu —eta hiri handitan kokatu behar da hor dagoelako mugimendua, ez dugu Elgoibarren koka-tuko, bueno, orain oso famatua da—, hirietan ez da euskaraz

egiten. Orduan, errealismoa emateko, Jon Juaristik esaten duena, erdaraz idatzi behar dugu. Arrazoia dauka. Bilbon, Euskal Gobernuan ere ez dakite euskaraz. Problema handia da”³.

Iñaki Uriak hala dio Atxaga elkarrizketatzen ari dela: “Baina obra urbano batean, errealitatea euskaraz bizi ez duen pertsonaia batekin, nola erabili euskara “normalik”?”⁴.

I. Bilbao kazetariak dioenez, hauxe esan omen zuen Bittor Uragak mahainguru batetan: “Nobelek gure gizartea isladatzen dutelarik errealismo linguitikoaren araberagatik herri honetako hirietan euskarazko nobelarik ez dela kokatzen adierazi zuen. Telebista dela medio, ohiturik omen gaude Harlem auzoko beltzak euskaraz ari direla entzuten. Aldiz, Bilbo aldean kokaturiko nobela batetan BBVko nagusien hitzak euskaraz jartzea ez dela sinesgarri suertatzen gaineratu zuen”⁵.

Orain dela zortzi bat urte nik ere horrela pentsatzen nuen. Egia da problema hor dagoela, baina gauzak gehiegi nahasten ari dira, orokorkiegi ari da hitz egiten eta aipatzen den zailtasun hori hiru punturen arabera gutxienez behar da aztertu:

- a) euskaraz bakarrik mintzo den errealitate batez idaztea.
- b) erdaraz bakarrik mintzo den errealitate batez idaztea.
- c) euskaraz eta edozein erdaraz (batera) mintzo den errealitate batez idaztea.

Ez zait iruditzen lehenengo bietan problema handirik dagoenik, “simulakroa” egin daiteke problema handirik gabe. Zeharo ingelesez mintzo den errealitate batez idazten duen jendeak esaten du gero, ezinezkoa dela gaztelania hutsez mintzo den errealitate batez euskaraz idaztea. Ez zait oso koherentea iruditzen.

Erabiltzen dugun kontateknika ere, badu zerikusirik arazo guzti honetan. Zenbat eta klasikoagoa izan kontakizuna, orduan eta errazagoa problema gaintzea (“klasiko” forma aldetik esan nahi da). Zenbat eta barne-bakarriketa gehiago eta narratzaile orojakile gutxiago, orduan eta problematikoago gertatzen da. Hau da, zenbat eta bitarteko gutxiago eta itzaliago egon, zenbat eta zuzenago aurkeztu pertsonaien ahotsak, orduan eta problema gehiago.

Bestalde narratzaile orojakilea berriz ere modan dagoen garai honetan, kontaktetan sortzen diren problema linguistiko eta elebidunak gaintzeko erabil daitezkeen trikimailuak, askotan,

ondo pentsatuta logikoenak eta begien bistakoenak dira efektiboak. Baina nioen bezala, ez naiz hemen horietaz luzatuko, gauza horiek hobe praktikan azaltzea.

Gai honetaz kezkatuak dagoen edozeini, orain dela zortzi urte, eta eneari erantzun gisa, Joxe Azurmendik idatzitako artikulua irakurtzea iradokiko nioke, oso baliotsua bait da oraindik, betiko gauzak etengabe errepikatzen ibil ez gaitzen⁶.

¹ "Hizkuntza, hizkera eta erdara euskal narratiban", in: *Oh! Euzkadi*, 12.zenb., 1981.ko Azaroa. "Errealismoaren hizkeraz", in: *Oh! Euzkadi*, 16.zenb. 1983.ko Martxoa.

² Joxe Azurmendi, "Nobelaren geroaz eta nobelaren hizkeraz", in: *Oh! Euzkadi*, 13. zenb. 1981.ko Abendua.

³ Laura Mintegik Gotzon Garateri egindako elkarrizketa, in: *Argia* 1203.zenb. 88-VI-19 Donostia.

⁴ *Argia*, 1210 zenb. 88-VIII-4, Donostia.

⁵ I. Bilbao, "Euskal literatura urbanoak artifizialkeriaren arriskua gainditu beharko aurrera jotzeko", in: *Egin*, 1989-III-2.

⁶ Ikus 2.oharra.

125.000 euskal hitzun Ameriketan?

Joseba Intxausti

Eskuartera etorri zaidan obra baten arabera, Hego-Ertameriketari 125.000 euskal hitzun dauzka euskarak: *Linguistic Composition of the Nations of the World/Composition Linguistique des nations du Monde* (Québec, 1979). Ez da berri txarra. Munduko hizkuntzen arteko ranking estatistikoan zerbait irabaz genezake horrekin.

Albisteak, nolabaiteko baliorik eman behar baldin bazaio behintzat, merezi du argitasun osagarriarik, edo iruzkinen bat. Kanada zehar datozkigun berri hauek harritzekoak dira izan ere, euskaldungo osoa 650.000 hitzunerara mugatuta dugunean.

Agi denez, Hego-Ertameriketako Estatuetatik zazpitan badago euskaldunik. Kloss eta McConnell irakasleek, Estaturaz Estatu bildu dituzten euskal hitzunen kopuru-datuak hauek dira:

Argentina	{ 50.000 (1959) 50.000 (1961)
Brasil	{ 30.000 (1959) 30.000 (1961)
Estatu Batuak	10.000 (1961)
Kuba	{ 5.000 (1959) 5.000 (1961)
Mexiko	{ 3.000 (1959) 10.000 (1961)
Puerto Rico	500 (1959)
Txile	5.000 (1961)
Uruguay	5.000 (1961)
Venezuela	10.000 (1961)
Orotara	125.500 (1961)

Brasileko zifra hain jasoak (30.000 euskaldun) harritu nau gehiena, eta Kolombian edo Perun daturik ez topatzeak. Mexiko eta Venezuelakoa sarritan entzun edo uste izan denaren tamainakoa da agian. Ertamerikako Estatu txikiei buruz ez da deus esaten (Puerto Rico-ko berri beste liburuki batean dator: 500 euskaldun 1959an. Eta EEBB guztietarako 10.000 ematen dira, 1961ean). Emandako datuetatik bat edo beste berezikiago komentatzekotan, Argentina-ko kasuari helduko nioke nik.

Zifra goren horrek (50.000 lagun: kopuru berdina bi inkesta-urteetan) badu interesik, zeren, euskal talderik handiena izateaz gain, talde hau Argentinako profil soziolinguistikoko "zuri" nahasi batean txertatzen baita. Peru, Bolivia edo Ekuador erdi-indiarren ondoan, homogenotasun zuri handikoa bezala ageri da Argentina. Gehienetan esan ohi denez, lurralde "huts" batean konkista, kolonizazio eta emigrazioek sortutako berdintasun soziolinguistikoa da Argentinarena. Rosas diktadorearen (1828-1852) eta ondoko agintarien armek, emigrazio-jendeek eta kolonizazio-legeek eta -ekonomiak lortu zituzten beren xedeak, eta jatorrizko hizkuntza amerikarrez mintza daitezkeenak gaur egun % 1 bakarrik dira (1960: 130.000 lagun).

Atzerrietatik heldutako hizkuntza ez-espainolek ere aurrea hartu diete jatorrizko haiei: honelakoetatik 36 hizkuntza kontu daitezke Argentinan, arabieratik hasi eta jiddish-eraino; tartean

denetarik dago: armeniera, bulgariera, japoniera, turkiera, etab. Hizkuntza hauetako mintzatzaile-kopurua ugaldua ageri zen, 1960an, zeren 1948-1951etako etorkin-uhinaldia (690.000 lagun) iritsi-berria zen eta espainieraren ofizialtasun bakarrak, inondik ere, artean egiteko berdintzailea betetzeke zuen.

Etorkinen komunitate linguistiko argentinarrok nahikoa ezberdinak izan daitezke kopuruz: arabieraren 60.000 hiztunen ondoan (1961), armenierak 4.500 (1959) ditu eta galegoak 400.000 (1959, 1961), etab. Talde hauetan, euskaldunena ez da ageri txikienetako bezala: 50.000 hiztun euskaldun, esan bezala. Orduko datuak horiek; ez dakiguna da, adibidez, euskal emigrazioek nolako segidatasun soziolinguistikoa izan duten, eta prezeskiago azken gerraondokoaren hizkuntz fideltasuna (1937-1945) nola eta noraino luzatu den.

Hemen, zifra hauetan, Autoreek obrari alde aurretik ezarrirako mugetara iristen gara, noski: Eman nahi izan dutena baino gehiago eskatzerik ere ez dago; baina, muga horiek onartuta ere (datu numeriko soil llaburrak ematea, alegia), beraun iturriez oharren bat egitea zilegi da, zalantzarik gabe: Nondik datoz Kloss/McConnell-en *Linguistic Composition of the Nations of the World/Composition Linguistique des nations du Monde* (Québec, 1979) obra honetan argitara diren zifra hauek?

Kontsulta-obra hau berria da, funtsezkoa bere informazioetan, mundu soziolinguistikoa aski zabaldua; beraz, garrantzizkoa, hainbat ikastun arduraturik gure komunitate linguistikoaren profila eskaintzen diolako. Nornahik, begiratu bizkor batean, zenbat garen, non gauden eta gure hizkuntza zertan darabilgun jakiteko tresna eroso da Québec-eko *Centre International de Recherche sur le Bilinguisme*-k babestu duen proiektu hau. Nazioartean erakunde honek duen oihartzunagatik ere aintzakotzat hartzekoa da handik gutaz zabal dezaketena.

Bidezkoa denez, Hego-Ertamerikei dagokien liburuki honetan ere, aipatzen dira datu-bilketan erabilitako iturriak: zentsuak, urtekariak, eskutitz-galdeketak eta hainbat motatako argitalpenak erabili dira lana datuz hornitzeko. Bildutakoak, oro har, azken 40 urteen barneko argibideak dira; eskura ahal izan duten informazioak mugatu ditu, noski, datu-altxorra eta beronen eguneko-tasuna.

Guzti horretan, oro har, ez dago deus harritzekorik; baina nik bederen espero ez nuen zerbaitekin topo egin dut: Nondik jaso

dituzte Kloss-McConnell-ek obra handi honetarako euskal datuak? Hauek, denak, Moskutik jasoak dira. Gainerako hizkuntza batzuetan ikus daiteke bestelako iturririk (adibidez, enbaxadetara idatziz jaso ahal izan dira hainbat albiste: halatsu, alemanari buruzkoak, La Paz/Bolivian); baina, gurean pareko irtenbiderik ez zutenaz, "ofizioko" bibliografia zabalduenetik egin dute bilketa Autoreek. Moskuko Zientzien Akademiak emandako datuak dira euskararekiko guztiak (1962 eta 1964etakoak: liburuok ez dituzte ezagutzen). Ez dago beste iturririk Hego-Ertameriketako hauetan. Eta denek 1959 eta 1961etara garamatzate beren argibideekin; hortaz, Québec-eko obraren argitalpen-dataren arabera (1979), hogeitaz urte lehenagoko egoera ematen zaigu. Honez gero, balio historiko handiagoa dute zifra hauek, soziolinguistikoa baino. Obra-mota hauen muga "naturaletan", hertsietan, gabiltza, inondik ere.

Mundu osoko hizkuntza guztien katalogo osoak, edo atlas unibertsalak, edo estatistika orokor osoak dakartzaten obrak ez dira ugariegi merkatu akademikoan. Bada sailtxo bat, baina beti ere ugari, barruti mugatuagoetakoak izaten dira ugari, izan ere oso zaila bait da Kontinente guztietako hizkuntzen sailkapenak, esparru geografikoak edo datu demografikoak hizkuntza guztientzat fidagarritasunez autore edo talde bakarrak biltzea. Panoramika orokor hauei dagozkienetan autore gutxi batzuk errepikatu ohi dira bibliografian: Dauzat, Meillet, Cohen edo Tovar hurbilenak; anglo-amerikarren batzuk urrunagotik: Voegelin, Culbert, Pei... Gero, Ekialde komunistatik iristen zaigun zenbait lan. Literatura orokor arruntena aski laburra da, eta, batez ere, horietatik jaso ohi dira, hizkuntza arrotzen albiste oinarritzkoenak. Kontsultatresna ezin baztertuak dira sarritan. Baita euskararen albisteak emateko ere.

Honek guztiak gure bi egitekoren aurrean jartzen gaitu: Alde batetik, gure egoera soziolinguistikoa —laburki, baina argi eta osorik— deskribatuko duen informazioa prestatu behararen aitzinean, eta bestetik oinarritzko informazio oso bat nazioarteko zirkuitu soziolinguistikoetara pasarazteko premiaren aurrean. Eta ez diot hau batez ere gure erbestekoaz (nahiz eta lerro hauek erbesteko albiste haietara begira jaio): lehen-lehenik Euskal Herri barruko egoera soziolinguistikoaz diot hori.

Aski ez izanik ere, garai batean baino erraztasun gehiago dugu egun zabalkunde-lan horretarako, ezagumenduz ezezik, kanpoko harremanetan ere, eta ez luke zailegi izan beharko nazioarteko informazio-kanal horiek gureaz hobeki hornitzeak.

Ikastolaren nondik-norakoa

E.H.I.E.

(OHARRA: *Euskal Herriko Ikastolen Elkartearen eta Euskadiko Autonomi Elkarteko Hezkuntza Sailaren artean sinatu-berri da Komunitateko Ikastolen Publikotasun ofizialerako bidea izan daitekeen Hitzarmena. Itxuraz, bihurtune historiko baten aurrean gerta daiteke orain euskal eskolagintza: Hiru Probintzietako Ikastola eta orainarteko eskola-sare publikoa, noski, baina baita beste herrialdeetako Ikastola eta Eskola estatala ere. Hitzarmenak garapen praktiko asegarririk izaten badu, euskal eskolaren asmoari segurtapen instituzional berria emango diolako eta horrela, agian, beste euskal herrialdeetarako eredugarri gerta daitekeelako ere. Bestelakorik balitz, ostera, gatazka berriak ikusteko geundeeelako. Nolanahi ere, Hitzarmenaren ondoko gogoeta ireki da Euskal Herriko Ikastolen Elkartean: banatu da denen artean Euskal Eskolaren Diseinua titulua duen Txostena (89-VI-3). Ikastola Elkar-teak, bere baitan duen munduaz ezezik, etorkizunean Euskal Herriak beharko lukeen Euskal Eskolaz hausnartu eta bere hitza esateko gogo du. Hau dena tarteko dela, nota llabur bat eskatu diogu Euskal Herriko Ikastolen Elkarteari, E.H.I.E.ri).*

Euskal Herriko Ikastolen Elkarte urteko Biltzar Nagusia egitera doa (1989-VI-3); eta aurtengo gaia, berezia du. Etorkizunari begira Herri honek behar duen Eskola ereduaz lanean hasten da, Elkarte Autonomoko hezkuntza Sailak egin nahi duen Euskal Eskola Publikoaren Legearen aurrean zeresanik baduelakoan.

Euskal Eskolaren Diseinua, elkarlanaren ondorio izan dadin prestatu den debaterako zirriborroa da. Eta, lan guztiak bezala, honek ere bere kokalekua duenez, Ikastolaren nondik-norakoan hain zuzen, gogora ditzagun aurre-xehetasun batzuk.

Azken bederatzi urteotako ibilaldiari (1980-1989) axaleko begiratu bat eman ondoren, laster konstata daiteke nola intentu-sail bat egon den Ikastolari Legezko estaldura bat eman nahiz: izaera iragankor bat proposatuz, dena ere ikastolak juridikoki Euskal Eskola Publiko bezala kontsideratzera zuzendutako ahaleginak, izan dira. Hona unerik seinalatuenak:

- 1980ko Ikastolen Titulartasun Publikoko Arautegia.
- 1983ko Euskal Ikastolen Erakundea (EIKE).
- 1986ko Kontzertu-erregimenaren Dekretua.
- 1987ko Akordio Politikoa (Hezkuntza Saila eta Ikastolak).
- 1988ko Legea, Hezkuntza Sailari, Ikastolekin komenioak egiteko baimena erregulatuz.
- 1989ko Komenio partikularrak, Hezkuntza Saila eta Ikastolen artean.

Argi dago, erregimen politikoaren aldaketarekin espero zitekeen normalizazio-prozesu batera ez direla iritsi. Egoera horren arrazoiak, esplikazioak, interpretazioak eta balorapenak desberdinak eta kontrajarriak dira; baina, ez dago dudarik, saio horien azpian dagoen Estatuto lege-markoa (LOECE, LODE, Funtzio Publikoaren Legea...) bortizki baldintzatzen ari dela, eta oso zaila bihurtzen, horrenbeste aldarrikatzen dugun Euskal Eskola Publikoaren behin-behineko taiuketa.

Baina kanpotik ezarriak zaizkigun legezko muga edo traben parean, badaude beste oztopo batzuk, barnetik bakarrik, Euskal Komunitate Autonomotik bertatik alegia, argi eta konpon daitezkeenak. Alderdi politiko desberdinak eta hezkuntz Komunitatea oro har, denok gaude eginkizun horretan konprometituak.

Bada denboratxo bat, Federazioek txosten bat plazaratu zutela (1983ko martxoan): «Zenbait oinarritzko gogoeta ikastolen normalizazioari buruz» titulutzat zeramana. Hantxe zirriborratzen ziren

ikastolei buruzko edoezin proiektu juridiko itxuratu behar zuten lerro nagusiak. Dokumentu horretan, Ikastolen Federazioen jarra-jaso baino ez da egiten, aipatu besterik egingo ez ditugun sei puntutan:

- Euskal Herrian Eskola Publikotzat hartua izateko, ezinbesteko baldintza da eskola horrek euskal hizkuntza eta kultura berea egitea, ikastolek beren sorkuntzan bertan eta bere hezkuntz helburuetan frogatzen duten bezala.
- Ikastolak, beren funtzionamentu, gestiokera eta prestatzen dituzten zerbitzuengatik emango dira publikotzat.
- Euskal Eskola Publikoa, eskualdaturiko eskola publiko guztiek bertan parte hartzen dutenean emango da erabatekotzat.
- Eskola publikoaren sare bakarrak, ikastolen eta eskualdaturiko eskola publikoen arteko batasun prozesuaren fruitu izan behar du, eta ez batek bestea anexionatzearen fruitu.
- Ikastolen normalizazioak, zuzenean interesatuak dauden parteen gehiengoaren onespenearekin kontatu behar du, eta adostasunaren emaitza izan behar.
- Elkarbatzeko prozesua egiten den bitartean, ikastolek, eskualdaturiko eskola publikoen tratua bera hartu behar dute, hau da doakoak izan behar dute.

Orain artekoan aztertutako lege-estalduraren panoramak, eskaini zaigun irtenbide iragankorra jasotzen du. Etorkizunari begira, ordea, behin-betikotzat eman daitekeen edozein alternatibak, oraingo zirriborro honetan tratatzen ditugun gai nagusiei erantzun beharko die:

- Euskal Eskolaren Izaera propioa, eta hori lortzeko beharrezkoa den Titulartasun-mota.
- Izaerari dagokion Gobernu eta Funtzionamentu-egitura.
- Euskal Herri osorako Hezkuntz proiektua, geure kultura eta hizkuntzan oinarritua, edozein zentru, bai publiko bai pribatuk, bete-beharrekoa.
- Irakasleagoaren ezaugarri nagusienak, proiektu berri horren oinarritzko euskarri bait dira.
- Finantzaketa.

Gai guztien ardatza AUTONOMIA da eta kontzepzio horren baitan geratzen dira, betiko arloak izan arren, ikuspegi berri batean murgilduz.

Aurtengo eztabaidari ekitean, nahitaezkoa da beti gabiltzan eskemetatik libre ihardutea, Autonomi Estatutuaren aurretik ere

egon bazeudenak. Hain zuzen ere, Eskola Publiko eta Eskola Pri-
batu bipolaritasuna albora utzi. Eskola Publikoaren kontzeptio
"uniformatzailetik" ere urrundu nahi dugu, ikusmolde horrek bere
burua, eskola-eredu arautu batetan oinarritzen bait du, LODEk
egiten duen bezala, nahiz eta bultzatu nahi den Erreforma beste
eredu batetan oinarritu eta kontzeptio zabalago batekin ari. (Dena
den, LODE/Erreformen arteko kontraesana nola gainditu asmatu
ezinik dabilta Estatu mailan oraindik).

Ikastolan egin dugun esperientziaren ildotik eta 1987.eko apiri-
lean egin zen sinposiumean ("Eskola Publikoaren Autonomia eta
kontrola, Europan" deitu zena), Autonomia eta kontrolaren frui-
tua den Eskola-ereduaren bila gabiltza. Kontzeptuok bi aldetatik
begiratur: bai Administrazioak eskolarekiko izan behar duena, eta
baita Hezkuntz Komunitateak Administrazioarekiko izan behar
duena ere.

Une honetan Euskal Herriko Ikastolen Elkartek bere barne-
-eztabaidarako plazaratzen duen lan honek (*Euskal Eskolaren Di-
seinua* deitu dugun honek, alegia) ez du izan nahi erabateko estu-
dioa, elkarlanerako apunteak baizik, debaterako abiapuntu lez,
ikastola bakoitzetik hasi eta pixkana zabalduz joango den eztabai-
dagaia, etorriko den azken proiektua denon lanaren fruitua izan
dadin, kontsentsu zabal batez onartua.

Hezkuntza, gizarte osoaren interesekoa izanik, azken buruan,
debateak hezkuntzako sektorea gaindituz, beste guztietara iritxi
beharko du, denen artean EUSKAL ESKOLAren eredia egituratu
eta Euskal Eskola Publikoaren Legea kontsentsuatzera hel
gaitezen.

JAKIN

SINDIKALISMOA ARMAGINTZA

**Euskal literaturaz
Mirande eta Iraultza
Ameriketako euskaldunak
Ikastola / Jaurlaritza**

Maiatza
Ekaina

52

1989



Ategorrieta hiribidea, 23, 1. esk. – 20013 Donostia
Tel.: (943) 27 17 13